



Felix Ibarrondo  
konpositoreari  
elkarriketa

Argituz elkartearen  
txostena, Arrasaten  
gertatutakoez



## TXAKOLIN BERRIA GERTU DUTE DEBAGOIENENKO EKOIZLEEK

Negu eta udaberri euritsuaren ostean, uda lehor eta eguzkitsua izan zen iazkoa eta on egin zien horrek mahastiei. Ondorioz, ibarreko ekoizleei txakolin ona atera zaie: orekatua eta kalitatezkoa / 4

Aritz Galdos –Murgialdai–, Felix Etxagibel –Otxia– eta Jon Urzelai –Belaskua–, Oñatiko Zañartu auzoko Belaskua baserrian. XABIER URZELAI

**10 milioitik gorako aurrekontua izango du Mankomunitateak, iazkoa baino %6,83 txikiagoa** / 5

**Florencia Olazagoitia arrasatearraren krimena ikertzeko kereila aurkeztuko du Diputazioak** / 7

**Lau urtez kudeatzen aritu ostean, "esku onetan" utzi du EHEK Arrasateko Jai-Zale taberna** / 12

**Sagar gutxiko uzta izanik, kalitate oneko sagardoa eginda hasi dute Aramaion txotx denboraldia** / 17

**Gorenean eta kirol maila onean bukatu gura du Markel Irizarrek 16 urteko kirol ibilbidea** / 36

**Joxan Goikoetxea akordeoi-jolea lagun duela ospatuko du Herrixa Dantzan-ek 10. urteurrena** / 40

### SINADURAK

|  |                      |
|--|----------------------|
|  | JOKIN LARRANAGA / 17 |
|  | MIGUEL LAZPIUR / 25  |
|  | AGURNE BARRUSO / 48  |

## MERKEALDIA

Zatoz eta aprobeitza itzazu  
prezio bereziak  
**VARILUX LENTEETAN**

Gure betaurreko guztiak  
bilduma berrietakoak dira



Otalora Lizentziaduna, 18  
Tel.: 943 79 29 95  
**ARRASATE**  
Ibargarai, 16  
Tel.: 943 76 15 75  
**BERGARA**

**MULTIOPTICAS**  
lehen zerbitzu optikoetan

www.multiopticasgipuzkoa.com



# 2019ari heltzeko "gogo betez"

Urte berria hastearekin batera, ohikoa da urteko asmoak, erronkak eta helburuak ezartzea, bai norbanako eta baita enpresa eta erakunde mailan ere. Debagoieneko hainbat erakundek ere 2019rako dituzten aurreikuspenen berri eman dute

## Amaia Zabala DEBAGOIENA

Arrasateko Ekide enpresak, Mondragon Unibertsitateak, Arrasateko Mundukide Fundazioak, Debagoieneko ELA sindikatuak, Oñatiko Ulma kooperatibak eta Debagoieneko Ospitaleak, orokorrean, urtea "gogotsu" eta proiektu berri ugariarekin hasi dute.

## Entitateen erronkak

Sei entitate horiek 2019rako erronka handiak dituzte, gainera: Ekide enpresan, esaterako, digitalizazio plan bat jarriko dute martxan 2019an, eta tren sektorean dituzten erronkei aurre egiteko IRIS ziurtagiria "zorrotza" lortzeko prozesuan ere badabilta. Nazioartekotzeari dagokionez, Ipar Amerikan eta Asian presentzia sendotzeko asmoa dute, eta, etxera begira, berriz, Emun Elkartearekin elkarlanean Euskara plana martxan jarri berri dute.

Mondragon Unibertsitateari dagokionez, 2019rako erronka nagusien artean nabarmentzekoak dira masterren eskaintza birmoldatzea, batetik, eta euskaraz ikasketak online eta erdipresentzialki egiteko eskaintzan aurrerapausoak ematea, bestetik.

Mundukide Fundazioak, berriz, Afrikan programa berri bat zabaltzea du erronka nagusi 2019rako, eta hiru hilabeteko epean programa zehazki Afrikako zein herrialdetan finkatu erabakitzea aurreikusten dute. "Mundukideren helburua 20 urtetan zehar Mozambiken bildutako esperientzia guztiarekin Afrikako beste herrialde batean ahalik eta pertsona gehiagoren bizitzak hobetu ahal izatea da", azaldu du Urri Urizarrek, Mundukide Fundazioko komunikazio arduradunak.

Debagoieneko ELA sindikatuarentzat, 2019ko erronka nagusia langileak mobilizatzeko gaitasunak handitzea da, patronalak hitzarmenak berritzeko borondatea izan dezan. Horretaz gain, pobreziarekin amaitzeko asmoz Herri Ekimen Legegile bat bultzatzen ari dira beste hainbat sindikatu eta gizarte eragilerekin. Amaitzeko, apirilaren 5ean, ELA kongresu garrantzitsua egingo du, zuzendaritza berria aukeratzeko baitute; hain zuzen, Mitxel Lakuntza

idazkari nagusi berria izatea proposatuko dute.

Oñatiko Ulma kooperatibaren asmoak ere ez dira gutxiagorako, merkatuko eskaintzak "handitzea" eta 2019an eboluzio "positiboa" izatea baitu helburu.

Debagoieneko Ospitaleari dagokionez, erakundearen profesionaltasuna finkatzea, pazienteek ospitalearengan duten konfiantza hobetzea, neurologia zerbitzu berria ezartzea eta inbestigazio proiektuak babesten jarraitzea dute helburu 2019rako.



Jon Altuna errektoreordea bilera batean. MONDRAGON UNIBERTSITATEA

## "Gogoz eta proiektuz beterik"

Jon Altuna Mondragon Unibertsitateko errektoreordeak jakinarazi du 2019a "gogoz eta proiektuz" beterik aurkeztu zaiela: "Gure jatorrizko kokalekuetan dauzkagun campusetan eskaintza akademikoa eta ikasle kopurua hazten doa, eta, horrez gain, Bilbon gure presentzia indartzeko urtea ere izango da". Bestalde, Huhezik Eskoriatzan duen Dorleta eraikin berriaren lanak aipatu ditu Altunak, eta bertan izango duten hezkuntza digitalaren KoLaborategia, ikerketa laborategia, hain zuzen, azpimarratu nahi izan du. Horretaz gain, 2019ko irailetik aurrera graduondoko hainbat tituluren birmoldaketa hasiko dutela jakinarazi du errektoreordeak: "Hezkuntza eredu berritzaileen lider aitortza daukagu eta hala izaten jarraitzea nahi dugu". Oro har, 2019a urte "garrantzitsua" izango dela nabarmendu du Altunak.



Volkswagen auto baten diseinua erabakitzen. EKIDE

## Ekide, sinergiak "aprobetxatzen"

Nazioarteko ekonomia kontuan izanik, "2019a urte konplexua eta ziurtasun gabekoa" izango dela aurreikusten du Oscar Sevillanok, Ekide enpresako zuzendari nagusiak, eta Estatu Batuetako ziklo ekonomiko positiboaren amaiera posiblea eta *brexit*-a aipatu ditu, besteak beste. Eta ondorioz, "zuhurtziaz" jokatu du dutela eta dibertsifikazioa eta internazionalizazioa izango direla gako nagusietako batzuk. Bestalde, enpresako langileei dagokienez, azken urteetan "etengabe hazten" ari direla eta 2019ari begira helburua "langile kopurua kontsolidatzea eta haien etengabeko formakuntza bermatzea" direla dio. Salmentei dagokienez, 2018an, 30 milioi euroko fakturazioarekin bukatu zuten eta 2019ari begira 33 milioi eurora igotzea aurreikusten dute.



Mundukidek Mozambiken duen programa batean. MUNDUKIDE

## Mundukide, mundura zabaltzen

Mundukide Fundazioak aurreikuspen onak ditu 2019rako, nahiz eta badakiten "gogor lan egitea" tokatzen zaiela, lantaldea "gogotsu" baitago "ahalik eta etekin handiena ateratzeko". Urri Urizar Mundukideko komunikazio arduradunak jakinarazi du fundazioak aurrekontua estalita duela, gutxienez, bi urterako, eta, ondorioz, esku artean dituzten programek egunerokoan eskatzen dizkieten beharrei aurre egiteko aukera "ona" dutela.

Mozambikeko eta Brasilgo proiektu beteranoak optimizatzeaz gain, Kolonbian programa bat estreinatu berri dute, eta epe motzean Ekuadorren ere gauza bera egin nahi dute. Afrikari dagokionez, Mozambikeko esperientzia jarraituz programa berri bat zabaltzeko nahi dute (informazio gehiago urtarilaren 25ean argitaratuko den *Puntua*-n, 179. zenbakian).





ELA sindikatuak Debagoiengan eginiko manifestazio bat. ELA

2018ko lorpenekin jarraitzea

2018a hainbat berri "onekin" itxi dutela jakinarazi du Amagoia Lasagabasterrek. Deba eskualdeko ELAko arduradunaren esanetan: "Greba kopurua %80 hazi da, langile askok protestak egiteari beldurra galdu diote eta, ondorioz, 2018an zehar hainbat hitzarmen berreskuratu ditugu: Gipuzkoako eraikuntzako hitzarmena eta Gipuzkoako hoteletako hitzarmena, esaterako". Horretaz gain, Martxoaren 8ko greba "arrakastatsuari" ere egin dio aipamena: "Greba honek lan munduan hainbat erronkari aurre egiteko indarra eman digu; besteak beste, Arrasateko etxez etxeko laguntza zerbitzuan hobekuntza garrantzitsuak ixteko ezinbestekoa izan da". 2019ari dagokionez, lorpen horiei jarraipena emateko urtea izango dela azpimarratu du.



Ulma Taldeak Oñatin duen eraikinetako bat. ULMA

Ulma, "eboluzio positiborantz"

Ulma Taldearen esanetan, 2018a urte oparoa izan dute; izan ere, "840 milioi euro" inguru fakturatzerantz iritsi dira. 2019 urte berrian ere, nazioarteko ziurgabetasun ekonomikoak gorabehera, negozio gehienetan "eboluzio positiboa" izatea espero dute, eta, era berean, merkatuko eskaintza "handituz" joatea ia-ia negozio guztietan. 2019rako espero den bilakaera positibo horren arrazoia da, hein batean, Ulma Taldeko negozioen posizionamendua "hobetu" egin dela presente dagoen merkatuetan. Enpleguaren ikuspuntutik, azpimarratzeko datua da langile kopuruaren igoera nabarmena; izan ere, taldeak, guztira, 5.000 lanpostu baino gehiago ditu. Azpimarratu dute, ordea, langile kualifikatuak lortzeko arazoak dituztela eta 2019an egoera hori hobetzea espero dutela.



Debagoieneko Ospitaleko larrialdietarako sarrera. OSPITALEKO ZUZENDARITZA

Aldaketak, pazienteen "onerako"

Debagoieneko Ospitaleak kanpo-kontsultentzako gune berri batekin hasiko du urtea; izan ere, ospitale zaharreko ospitalizazio solairu bat berritu egin dute, bezeroei eta profesionalen gune "erosoagoa" eskaintzeko helburuarekin. Eraikin bereko beheko solairuan, erauzketetako hainbat gune egokitu dituzte. Ospitaleak eskaintzen dituen zerbitzuei dagokienez, horiek finkatzeko bidean lanean jarraituko dutela jakinarazi du zuzendaritzak: bizi ohitura osasuntsuen promozioa, komunitate-jarduerak, lekuko osasun sareen sustatzea, eta abar. Eta baita dagoeneko ondo finkatuta dauden Paziente Aktiboa programa eta erorketak sailhesteko tailerrak ere. Horretaz gain, paziente kronikoen arreta integratuari dagokionez ere aurrerapausoak ematea dute helburu 2019an.

Garbitzaileek manifestazioa egin dute Bergaran

Gipuzkoako komisarietako eta epaitegietako garbitzaileek 123 egun daramatzate greban

Amaitzeko ZABALA BERGARA

Gipuzkoako komisarietako eta eraikin judizialen garbikuntza zerbitzuetako langileek 123 egun daramatzate greban, irailak 19az geroztik, eta astearte goizean manifestazioa egin zuten Bergaran. 11:30ean komissarian hasi, epaitegira joan eta komissarian bertan bukatu zuten manifestazioa; 30 bat lagun bildu ziren.

Eskatzen dituzten gauzen artean aipagarrienetako bat da kale-garbikuntzako langileei jasaten duten soldata-arrakala (bretxa) ezabatzea. Izan ere, kale garbitzaileekin alderatuz %13ko arrakala dute komisarietako langileek eta %7koa eraikin judizialenak.

Salatzen dute hiru sektoreak administrazioaren azpikontratak direla, baina soldata-arrakala honen arrazoia kale-garbikuntzan %80 gizonetakoak direla eta komisarietako eta eraikin judizialen garbitzaileei dagokienez, %95 emakumeetakoak direla.

Grebalariet, mobilizazio horien bidez, justizia eta Segurtasun Sailaren eta Garbaldi enpresaren inplikatzeko eskatzen dute, garbikuntzako sektorean soldata-berdintasuna lor dadin. Hurrengo bilera otsailaren 1ean egingo dute.

Adinekoen egoitzetan greban

Gipuzkoako adinekoen egoitzetako langileak ere mobilizazioak egiten ari dira martxoaz geroztik eta greba deialdiak, berri, irailaz geroztik. Eguberrietan, esaterako, mobilizazio eta manifestazioak egin zituzten.

2015-2016ko hitzarmenak eguneratzea eta, bide batez, enpresekin banan-banan sinatzea eskatzen dute. Gaur, Gipuzkoako ordezkarien bilera dute eta jakinarazi dute horren ostean ikusiko dutela aurrera begira ze urrats egiten diren.

ARIZMENDI, KOOP. E.AREN  
BATZAR NAGUSIRAKO DEIALDIA

Arizmendi Koop.E.aren Estatutu Sozialerako 30. artikulua dioenari jarraituz, Kontseilu Errektoreak 2018ko azaroaren 29an egindako bileran adostu du Arizmendi Koop.E.aren bazkideak Ohiko Batzar Nagusi honetara deitzea, kooperatibaren interesetarako onuragarria delakoan.

EGUNA: 2019ko otsailaren 7a.

LEKUA: Arimazubi guneko aretoa (Arrasate).

ORDUA: Lehen deialdia: 17:30. Bigarren deialdia: 18:00.

GAI-ZERRENDIA

1. Aurreko Batzar Nagusiararen aktaren onespenez-berriaren irakurtzea. Aktaren onespenerako bi bazkide izendatzea.

2. 2017-2018 ekitaldiko zuzendaritza-berriaren aurkeztea, eta hala balegokio, onartzea.

3. 2017-2018 ekitaldiko sozialitate-kudeaketa eta Urteko Kontuak (Balantzea, Galera eta Irabazien Kontua, Ondare Garbiaren Aldaketaren egoera-berria, Diru Fluxuen egoera-berria eta Txostenak), eta baita Kudeaketa-Txostenak ere, aztertzea, eta hala balegokio, onartzea.

4. 2017-2018 ekitaldiko emaitzak aurkeztea.

5. 2018-2019 ekitaldirako helburu nagusiak eta aurrekontu ekonomikoa aurkeztea.

6. Kontseilu Errektorearen berriro izendatzea.

7. Kontseilu Soziala berriro izendatzea.

8. Kontu ikuskatzaileak izendatzea.

9. Kontseilu Errektorearen ahalberritzea Batzar Nagusian hartutako erabakiak egiteko.

10. Galde-erantzunak.

arizmendi  
ikastola

Aitziber Arregi Iribecampas  
Kontseilu Errektoreko Lehendakaria  
Arrasate, 2018/11/29





Felix Etxagibel –Otxia txakolina–, Jon Urzelai –Belaskua txakolina– eta Aritz Galdos –Murgialdai txakolina– eguaztenean, Oñatiko Zañartu auzoko Belaskua baserrian. XABIER URZELAI

# Kalitate "oneko" txakolina atera zaie ibarreko ekoizleei

Atzo aurkeztu zuten, Getarian, lurraldeko txakolin berria. Debagoienean ere gertu dute. Bost ekoizle daude: hiru Oñatin eta bi Arrasaten. Urte ona izan da 2018koa; batez ere, uda ona izan delako. Ondorioz, txakolin ona atera da: "Orekatua eta kalitatezkoa"

## Eneko Azkarate OÑATI

Ibarreko bost baserrian dituzte Getariako Txakolina sor-markako txakolina egiteko mahastiak: Arrasaten bik eta beste hiruk Oñatin. Arrasaten, Bedoñako Artazubiaga baserrian, Otxia txakolina egiten dute; Egi Haundi baserrian, berriz, Kataide txakolina. Oñatin, Murgialdai baserrikoek izen bereko txakolina merkaturatzen dute; Zañartu auzoko Belaskua baserrian ere etxearen izen berekoa, eta auzo horretan bertan Upaingoa baserrian ere ekoizten dituzte Upaingoa eta Upain Berri txakolinak.

Ekoizle guztiek ez dituzte upategiak. Bi upategi daude ibarrean: Arrasateko Kataide eta Oñatiko Upaingoa. Gipuzkoan, orotara, 31 upategi daude. Otxiak, Murgialdaik eta Belaskuak mahastiak baserri inguruetan dituzte, bai-

na txakolina Getariako upategietan egiten dute. Hirurek diote txakolina afizioagatik egiten dutela, gustuko dutelako, eta "baserri inguruko zelaia garbi edukitzeko eta lehengo usadioak errekuiperatzeko".

## Belaskua eta Murgialdai

Oñatiko bi baserriotan 2008an hasi ziren txakolina egiteko mahastiekin lanean. Murgialdaik bost mahats klase dauzka landatuta lau hektareatan; gehienbat, hondarrabi zuria, hondarribi zuri zerratia –petit corbu–, riesling, gewtstraminer eta iaz

## "AURTENGOA OHIKOA BAINO GRADU ERDI GEHIAGOKOA ATERA ZAIGU TXAKOLINA"

ARITZ GALDOS, MURGIALDAI

neguan landatu zuten hondarribi beltza. Ibarreko txakolin egile gehienek bezala, hiru lehenak darabil Murgialdai markako txakolina egiteko. "Txakolin freskoa da gurea, zapore tropikalak eta zitrikoak dituena, hartzidurako zaporeekin bat egiten duena, azidotasunarekin ondo integratuz", dio Aritz Galdosek. Aurtengoa ohikoa baino gradu erdi gehiagokoa atera zaie. 15.000 botila merkaturatuko dituzte aurtun. Dena den, euren mahastietan batutako mahatsa beste upategi batzuei ere saltzen dietela dio.

## "MAHATS URTE ONA IZAN DA, BAI KANTITATEZ, BAI KALITATEZ ERE"

JON URZELAI, BELASKUA

Belaskuak 2016an atera zuen lehen aldiz txakolina. "Duela aste bi jaso berri ditut 2018ko txakolin botilak", dio Jon Urzelai. "Gorputza dauka eta 12 gradu ditu, iaz mahatsa ona heldu zelako; azukre eta gorputz aldetik, bikaina". Izan ere, mahats urte ona izan dela dio, bai "kantitatez" eta baita "kalitatez" ere. 27.000 kilo mahats batu ditu, beste horrenbeste botila egiteko adina. Lagunen artean eta bantzaile baten bitartez saltzen du: "Ez naiz tabernarik taberna eta aritzen".

## Txakolin "ekologikoa"

Debagoieneko txakolin egile "historikoetako" bat da Felix Etxagibel, Artazubiaga baserrikoa, Kataideko Jabier Arregirekin batera. Ohikoa baino "%25 gutxiago" jaso du aurtun, udaberri euritsua izan zelako. Kontrara, "abuztua eta iraila" oso onak izan ziren, eta, ondorioz, "ohikoa baino gutxiago baina kalitate oso oneko" mahatsak batu zituzten.

Txakolin berria otsail amaierarako espero du, baina mostoa ona atera dela dio, "azukre eta garraztasun aldetik prelatua eta graduari dagokionez ohikoa

## "TXAKOLIN EKOLOGIKOA EGITEN DUGU, HEKTAREAKO 6.000 KILO AURTEN"

FELIX ETXAGIBEL, OTXIA

baino gehixeagokoa". Etxagibelek dio Otxia Txakolin ekologikoa dela, eta, baserri ondoko lursailak malkartsuak direnez, lursail lauetan baino produkzio txikiagoa izaten duela. Aurtun, "hektareako 5.000-6.000 kilo" jaso dituzte. Hektarea eta erdi mahatsi dauka. Azoketan, inguruko taberna eta dendetan eta partikularrei saltzen die.

## Kataide, Partaitian domekan

2018ko txakolina gertu dauka Kataidek. Hondarribi zuri eta hondarribi zuri zerratia mahastekin egin. Aurtun ez da Getarian izan, San Anton egunez, baina Angiozarko Partaitian izango da, domekan, San Bizente jaiak direla eta. Hala ziurtatu du Kataideko Jone Arregik. Azkeneko urteetan ohitura du urteko txakolin berria amaren auzoan dastatzen emateko.

## Aldaketetan murgilduta

Juan Zelaia enpresaburu izan dakoaren fundazioak kudeatzen ditu haren ondasun eta negozioak, baita Upaingoa txakolindegia ere, Aldaixa enpresaren bitartez. Inaki Gereka arduratzen da mahastiez. Hark dioenez, oraindik ez daukate erabakita aurtun nola merkaturatuko duten txakolina, besteak beste, "bazkide berriak" sartu direlako upategian. Upaingoa eta Upainberri izenarekin merkaturatu zuten iaz, 2016ko mahatsekin egindakoa lehena eta 2017koekin bigarrena.

# 10.139.180 euroko aurrekontua 2019rako

Debagoieneko Mankomunitateak aste honetan eman du 2019rako izango duen aurrekontuaren berri, azaroan aho batez onartu ostean; kopuru baxuena da 2011z geroztik, eta, iazkoarekin alderatuta, %6,83 gutxiago; inbertsioen jaitziera da arrazoa

**Eneko Azurmendi** DEBAGOIENA  
10.139.180,36 euro. Horixe da Debagoieneko Mankomunitateak 2019rako azaroan aho batez onartu zuen aurrekontua. 2018koa baino %6,83 gutxiago da hori, eta 2011z geroztik Mankomunitateak izango duen baxuena. Inbertsioen jaitziera da horren arrazoa. "Edukiontzien eta kamioien erosketak bukatutzat emanda, eta Epelen kanpo zerbitzuaren itxierarekin, inbertsioak dezente jaitsi dira", adierazi du Unai Elkorok, Mankomunitateko lehendakariak.  
6.770.000 euro ingururekin, ingurumena da aurrekontuaren zatirik handiena hartzen duen zerbitzua. 2018arekin alderatuz, ia %2ko igoera izango du atal honek, eta Lander Arregi Hondakinen Kudeaketa Batzordeko presidentek bi arrazoi aipatzen ditu horretarako: batetik, azpikontratutako enpresekin eta langileekin adostutako eskema berriak zerbitzuan eragin dituen aldaketak; bestetik, zabor gehiago sortu izanak –errefusa, gehienbat– hondakinen tratamenduan dakarren gastua.



Elena Lete, Unai Elkorok eta Lander Arregi. TXOMIN MADINA

Debagoieneko Mankomunitatearen pertsonal gastuak igo egin diren arren, gastu orokorrak, neurri batean, mantendu egin dira. Udalek egin beharreko ekarpenei dagokienez, nahiz eta ekarpen arruntak zein ingurumeneko kuotak igo, orokorrean, %5eko jaitziera izango dutela azaldu du Ogasuneko batzordeburu Elena Letek.

## Partidak zerbitzuka (eurotan)

| Zerbitzua             | 2018                 | 2019                 | Aldea         |
|-----------------------|----------------------|----------------------|---------------|
| Zerbitzu orokorrak    | 756.535,73           | 777.303,91           | %2,75         |
| Kirola                | 24.000,00            | 24.000,00            | %0,00         |
| Ingurumena            | 6.644.107,67         | 6.772.824,49         | %1,94         |
| Epele                 | 1.107.852,26         | 209.401,35           | -%81,10       |
| Abere hiltzea         | 18.000,00            | 18.000,00            | %0,00         |
| Garapen Agentzia      | 1.022.611,09         | 978.394,99           | -%4,32        |
| Turismoa              | 326.143,94           | 332.939,26           | %2,08         |
| Udal koordinazioa     | 982.814,09           | 1.026.316,36         | %4,43         |
| <b>Mankomunitatea</b> | <b>10.882.064,78</b> | <b>10.139.180,36</b> | <b>-%6,83</b> |

ITURRIA: MANKOMUNITATEA

## Ikasleak ikerketan eta zientzian murgilduko dituen lehiaketa

Bihar, zapatua, egingo dute MicroFLL Mondragon-Innobasque-ren lehenengo edizioa, 08:00etan hasita

**E.A. DEBAGOIENA**  
MicroFLL Mondragon-Innobasque torneoaren lehen edizioa egingo dute bihar, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoaren Iturripeko Campusetan. "Emozioz beteriko taldekako ikasketa esperientzia" da hori, "ikasleak ikerketaren eta zientziaren arloan murgiltzera animatzen dituen". Lehen edizio honetan, hogei taldek hartuko dute parte, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ikastetxe ezberdinetatik: Arizmendi ikastolatik bost talde (Arrasate-Aretxabaleta); Mariaren Lagunditik hiru (Bergara), Axular Lizeotik (Donostia), El Regatotik (Barakaldo), Urkidetik (Gasteiz) eta Jesus Maria (Bilbo) ikastetxeetatik bik eta Zuazola-Larraña ikastetxetik (Oñati), Truebatik (Barakaldo), Egibidetik (Gasteiz) eta Elburgotik (Gasteiz) talde

banak. Kontuan izanda gehienez hamasei pertsonako taldeak osatu daitezkeela torneoaren egunean, 320 ikasle inguru batzea aurreikusten du antolakuntzak.  
Ikasleek urtebetez espazioan nola bizi daitekeen erakutsiko diete bertaratutakoei, "kolonizazio hau arrakastaz aurrera eraman ahal izateko soluzio berritzaileak emanez". Bestalde, "robotaren jokoak bertaratutakoak dibertituko ditu jenio txikiak asmakizunekin".  
**Aurkezpen ekitaldia**  
Aurkezpenean, agente antolatzailerak ordezkariek egon ziren: Eneko Perez –Ikerlan–, Nekane Errasti –Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoa–, Iñigo Larrea (Mondragon Korporazioa), Joseba Martinez (ULMA) eta Maria Lopez (Ausolan).



**Lanbide**  
Euskal Enplegu Zerbitzua  
Servicio Vasco de Empleo



**EUSKO JAURLARITZA**  
GOBIERNO VASCO  
ENPLEGU-ETA SOSKATE  
POLITIKARI GARA  
DEPARTMENT OF EMPLOY  
Y POLITICAL SOCIALS



**EUROPA BATASUNA**  
Europea Garatu Funtzio  
EDPA zure etorkizunaren inbertsioa du  
**UNION EUROPEA**  
Fondos Social Europeas  
El FSE inberti en la futuro

**MGEP**  
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA  
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S. COOP

**Enplegurako Prestakuntza**

**Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak diruz lagundutako programak**

**KURTSOA**  
FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKTUEN DISEINUA (FMEE0308)  
Orduak 680 Data

**Urt 28-Uzt 17**  
13:15-18:30  
Al,As,Az,Og,Or

**Lehentasunez langabeei zuzendutako doako ikastaroak**

Gure doako kurtsoetara inskriba zaitez...

<https://www.mondragon.edu/cursos/eu/doako-ikastaroak>

Informazio eta inskripzioa

**Idurre Retolaza**  
664 205 068  
iretolaza@mondragon.edu

Zentro honek Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak eta Europako Gizarte Funtzioak diruz lagundutako enplegurako lanbide-heziketa ematen du.





ZABALIK

GARIKOITZ ITURBE

# 40 urteko langa

Dena ondo bidean, 40 urtetako langara iritziko naiz aurren. Azken urteetan, fenomeno bihurturik, lagunartearekin planen bat egiteko ohitura zabaldu da.

Antza, bizitzaren inflexio puntuetako batean nago. Zahartzaroa gertuago ei dut, baita osasun fisiko oparo baten langa ere. Puntu honetara heltzeak, oraingoz, ez dit traumatizatu ekarri. Bizitzak langa ezberdinak jartzen dizkit eta horiek datozen bezala bizi behar ditudalakoan nago. Momentuak eskaintzen dizkidan aukerak baliatu, horietara moldatu eta gozatu. Futbolean edo eskubaloian, zure ateko langa jotzen dutenean, beste aukera bat ematen dizu partidak.

Horrela bizi dut nik bizitza.

Egun bakoitzak aukera berri bat bizitzeko ate bat zabaltzen dit. Bizitakoa bizita, egin nahi dudana horretan energiak jarritz, urte bakoitzari zukua atera nahi diot.

Beraz, langa berri honen aurrean eta esan dudana guztiarekin koherente izanda, bizitzen jarraitu nahi dut.

Bizi eta ez iraun.

## EGIN NAHI DUDAN HORRETAN ENERGIAK JARRIZ, URTE BAKOITZARI ZUKUA ATERA NAHI DIOT

Mendiaz gozatzen jarraitu nahi dut, inguruko maitasuna zaindu eta mimatzen ernai egon nahi dut, umeen hazkuntzan eta hezkuntzan sakontzen jarraitu nahiko nuke, nire inkoherentziak limatu nahiko nituzke, musika egin eta zabaldu, laneko erronketan gogotsu jarraitu nahi dut Aretxabaletako Lanbide Eskolan, harremanak zaindu eta hobetu nahi ditut...

Bizitzako langa honetan, gainera, ahaztuko ez dudana fenomeno bat gertatuko da. Berri Txarrak taldeak agur esango digu. Gero arte bat izatea nahiko nuke, baina tira. Aspalditik jarraitu izan ditut; taldearen sorreratik, esango nuke. Gogoan dut, oraindik, Ezkutu tabernan lehen aldiz ikusi nituen egun hura. Musika eta letra edarrak, pertsona bezala handiak. Beraien letra bat gogoratuz egin nahi dut gaurko agurra: *Bizi nahi dut hil baino lehenago, bizi egin nahi dut.*

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Zergatik?

**ONINTZA ENBEITA**  
HTTPS://LABUR.EUS/LHEOH  
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Zergatik dira erlijio monoteistetako ahalguztidun guztiak maskulinoak?

Zergatik indartu ziren Jaungoiko bakarreko erlijioak?

Zergatik daukate halako aberastasuna erlijio handien abaroen sortutako erakundeek?

Zergatik da Mari mitologia bakarrik eta Ama Birjina erlijioa?

Zergatik dira emakumeak gauzak gaizki egin dituztenak erlijioen istorio ia guztietan?

Zergatik dira profeta gehienak gizonak?

Zergatik ez dago emakume ebanjelaririk?

Zergatik Eva?

Zergatik Maria Magdalakoa?

Zergatik egon dira erlijioak konkista guztien atzetik?

Zergatik sartu ziren fraideak Ameriketara zihoazen ontzi haietan?

Zergatik ez dago emakumezko apaizik?

Zergatik ezin da emakumea Jaungoikoarenganainoko kanala izan?

Zergatik dira batzuk sektak eta besteak ez?

Zergatik normalizatu ditugu Jaungoikoaren izenean egindako izugarrikeriak?

Zergatik egiten dute erlijioek emakumeen, homosexualen eta askatasunaren kontra?

Zergatik klausura?

Zergatik zapia?

Zergatik errua?

Zergatik absoluzioa?

Zergatik zigorra?

Zergatik Palestina?

Bada, norbaitek hala erabaki duelako.

Eta geure buruari galdetuko bagenio zergatik erabaki duten norbaitzuek gauzak hala izatea, erantzunak ez gintuzke harrituko: kontrola, beldurra, botere ekonomiko-politiko eta sistema patriarkalaren betiketzea.

Post gehiago 8. orrialdean.

goiena“  
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

**Argitaratzailea**  
Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkartea  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

**Lehendakaria** Aitor Izagirre.  
**Zuzendari nagusia**  
Iban Arantzabal.

**Eduki zuzendaria**  
Eneko Azkarate.

**Erredakzio batzordea**  
Eneko Azkarate, Goiatz Arana,  
Monika Belastegi, Mirari Altube.  
**Zuzendari komertziala**  
Mireia Larrañaga.  
**Administrazio zuzendaria**  
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**  
Iñaki Iturbe.  
**Hizkuntza arduraduna**  
Sergio Azkarate.  
**Harpidetza eta banaketa arduraduna**  
Igone Osinaga.

**Sailletako arduradunak**  
Xabi Urtzelai (Kirola),  
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

**Maketazioa**  
Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

**Publizitatea**  
Mireia Larrañaga,  
Amaia Mundiñano,  
Ziortza Martin.  
Amaia Igarua.  
**Administrazioa**  
Ane Bereizbar, Iratxe Bengoa,  
Nerea Artola.

**HARPIDETZA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.eus

**PUBLIZITATEA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
Faxa: 943 25 05 00  
publi@goiena.eus

**EGOITZA NAGUSIA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
berriak@goiena.eus

**Lege Gordailua:** SS-965/2014  
**ISSN:** 2174-369X  
**Tirada:** 19.000 ale  
**Difusioa:** 18.723 ale

LAGUNTZAILEAK



Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI

# "Aitak 10 urte zituela eroan zuten amandrea faxistek"

NATI ROA FRANKISTEK ERAILDAKO FLORENCIA OLAZAGOITIA ZEZIAGAREN BILOBA

**Eneko Azkarate** ARRASATE  
Herri akusazio gisa aurkeztuko da Gipuzkoako Diputazioa, 1936an frankismoak erail zituen bi gipuzkoarren kasu partikularretan: Florencia Olazagoitia Zeziaga arrasatearrarenean eta Jose Ariztimuño Aitzol apaiz tolosarrarenean. Olazagoitiaren biloba Nati Roak eman ditu azalpenak **Zelan jakin zenuten Gipuzkoako Diputazioa ari zela salaketa aurkezteko asmotan?** Duela pare bat hilabete Diputazioak aditzera eman zigun Frankismoaren krimenen aurkako kereila kriminala aurkezteko aukerak aztertzen zebiltzala eta Aranzadi Zientzia Elkarateak egindako ikerketak jasotako 979 kasuen artean, gure amandre Florencia Olazagoitia Zeziaga zegoela. Armak tartean ez zituzten kasu bi aukeratu zituzten, kereilak aurrera egiteko aukera handiago izateko.



Nati Roa, Arrasateko Garibai kalean, etxean. ENEKO AZKARATE

Indarrez desagerrarazitako kasu garbia zen. **Ze sentitu zenuten?** Isiltasuna, ikara... Esan ziguten herri akusazioa egiteko, kereila partikularra ere egitea komeni zela.

Planteamendu serioa iruditu zitzaigun, erakunde publikoen babesarekin. Gertatutakoa kontatzen ez bada, berriro gerta daiteke. Salaketa jarriko dute Donostiako epaitegian eta nahiko genuke lortzea epaitegi

batek esatea zer gertatu zen; egia ofiziala. Konplikatua da... **Urte asko izan dira isilean.**

82 urte. Zergatik ez lehenago kontatu? Beldurrarengatik, lotsarengatik... Gure aitak, Eduardok, ez zuen ezer jakin gura. 85 urterekin hil zen. Amama eroan zutenean, harekin batera zen, 10 urte zituen, eta frontera eroan zuten erreketeeek.

**Zer gertatu zitzaion amandreari?** Atxilotu zutenean, familiakoa zen Udalako baserrian behera zetorren esnearekin, Resusta kalean zuten denda zabaldu eta saltzeko.

Lehengusinarekin eta gure aitarekin batera zetorren. 40 urte zituen. Bi seme eta alaba bat zituen, txikiak hirurak... eta haurdun zen, bost hilabeteko. Uste dugu guardia zibilek atxilotu zutela, Kondekuan, eta Oiartzunen fusilatu zutela. Gorpua zehazki non den ez dakigu.

**Politikoki nabarmendu egin zen?** Sozialista zen. Baina, dirudienez, frankisten aurka borrokatzen hiru anaia eta lehengusu bi zituelako fusilatu zuten. Lehengusu bat, gainera, Dragoen batailoiko komandantea zen. Eta, antza, Llamas komandante faxistak esana zuen "marxista zitalen familiarrak erail beharra" zegoela. Hitza bete egin zuen.

HAU BE BADOGU!

## Ohashiren ariketak liluratu egin ditu denak



Katelyn Ohashi estatubatuarrak 10-eko puntuazio perfektua lortu du gimnasia artistiko ariketa batean, eta sare sozialetan *trending topic* izan da bideo ikusgarria:

**@asiegaraialde:** "Ez naiz gimnasiaren oso zale baina asko gustatu zait eta txundituta utzi nau **@katelyn\_ohashi**-ren saioak".

**@exprai:** "Zuekin, Katelyn Ohashi gimnastaren 10-eko ariketa. Ederra. Magikoa. Harrigarria. Akatsik gabea. Borobila. Rediosa".

## '#Grebafeminista', Martxoaren 8ari begira

Eguaztenean aurkeztu zuen Euskal Herriko Mugimendu Feministak Martxoaren 8ko grebak izango duen ardatza.

**@askakonpartsa:** "Badator 2019ko **#m8grebafeminista!** Heteropatriarkatu kapitalistari planto! **#Feminismoa #M8 #Grebafeminista**".

**@zelaiaik:** "Gu gelditzen bagara mundua geldituko da! Bizitza erdigunean jarri nahi dugulako heteropatriarkatu kapitalistari **#Planto** egingo diogu!"

## Lan istripuen aurka haserre sarean

Sare sozialak **#lanistripurikez** lelo eta traolarekin bete dira astean zehar. Dagoeneko Euskal Herrian bi langile zendu dira, lanean.

**@juantxogoi:** "25 urteekin bizitza lanpostuan utzi du. Tristura eta amorrua. **#LanIstripurikEz**".

**@EraginBilbo:** "25 urteko gazte bat, Rotten XIII talde ezaguneko kidea, hil da Macillan lan istripu batean. 2019an daramagun bigarrena. 2018an, 68 langile hil ziren lanean".

ITURRI ONETIK

## Bagara Kooperatiba Elkarteari, agur

Bagara Kooperatiba Elkartea desegin eta eskualdean sortzearen dinamika berri baten, lankidetzaren sare zabalago baten, jarraituko du, sorrerako helburuei eutsiz, eta beste agente batzuekin elkarlanean. Gizarte garapenean eragiteko sortu zen Bagara. Euskalduntasuna, iraunkortasuna, elkartasuna eta autoeraketa oinarritzat hartuta eta arlo ezberdinetan eragiteko proiektuak martxan jartzeko aurkeztu zen 2010eko martxoan. Urtarrilaren 31n egingo du amaiera batzarra, Kulturaten.

ALBISTE IZAN ZEN

2005-01-15

## Sharon Stoner, lehen Danbakako irabazle

Sharon Stoner talde oñatiarrak irabazi zuen Debagoieneko Danbaka Musika Lehiaketako lehen edizioa. Muted eta Potemkin taldeekin batera aritu zen lehen sariaren bila Elgetako Espaloia Kafe Antzokian jokaturako finalean. 500 lagun elkartu ziren "kontzertu gogoangarrian". Enboscada talde arrasatearrak irabazi zuen publikoaren saria. Split 77 izan zen talde gonbidatua. Danbakaren beste hiru edizio egin ziren Espaloian.



GUTUNAK

Zuhaitzak eta Schwarzenegger

JOSU GARITAONANDIA

'OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOAREN  
ARDURADUNA  
BERGARA

Kaliforniako estatuko arduradun nagusi izandako aktore famatu horrek, Arnold Schwarzeneggerrek, esan zuen berak heroi asko antzeztu dituela, baina, edozelan ere, suhiltzaileak bezalako heroirik ez dagoela.

Aspalditxoan, su asko dabil inguru hartan, kalte asko eragiten, hildako eta guzti.

Hala, gure aktorea konturatu zen aldaketa klimatikoa dagoela sute kopurua handitzearen atzean.

Alajaina, meritu handiko konklusioa errepublikano batendako.

Ameriketako Estatu Batuetan hura izan zen lehenengoa berotegi efektua gutxitzeko zerbait egiten hasi zena.

Pena da alderdikideek Schwarzeneggerren etsenplua ez jarraitzea.

Donald Trumpek berak, orain dela pare bat hilabete, lasai asko esan zuen honako hau:

"Ez dut sinisten"; hain zuzen, hori esan zuen 300 zientzialarik baino gehiagok babestutako 1.656 orrialde dituen txosten bat aztertu ostean.

Eta... zuk zeuk sinisten duzu? Ez dago heroia izan beharrik zuhaitzak zaintzen hasteko.

Bihotzez eskerrak

ANARTZ ETA UXUE AGIRRE MADARIAGA  
ETA FERNANDO AGIRRE ZUBIATE  
BERGARA

Momentu latz hauetan aldamenean izan zareten guztioi bihotzez eskerrak.

Bergarako lagunak, Plaentxiko eskolakoak, Zarauzko kanpineko lagunak, Lazkao, Elgeta eta Iurretako familiakoak... ez genuke inor ahaztu nahi.

Asko maite genuen gure ama, gure amona, baina jabetu gara beste askok ere asko maite zenutela. Nola, gainera!

Hartu ezazu atseden jaiotzen ikusi zintuen Lazkaomendiko lurretan, ama. Betirako eramango zaitugu gure bihotzetan!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egi-learen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otolora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HANDIK ETA HEMENDIK

Biak

ANDONI EGAÑA

HTTPS://LABUR.EUS/D7CHO  
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Ondo bizi gara eta badakigu ondo bizi garela.

Planetaren iparraldean jaiotzeko zortea izan genuenok –gehienok behintzat– asebeterik ditugu gure premiazko beharrak: non etzana, zer jan eta edana, non eta nora joana, non eta nola hezia, non gozatua, non denbora pasa ibilia, non informatua...

Ez gara ederki bizi eta kontziente gara.

Non etzana modu onean aurkitzea gero eta zailagoa da eta estalpeari argitsu eta bero eustea zer esanik ez; janari eta edanari tentuz begiratu behar zaie egungo soldata mixerableen talaiatik; buruko auto bana edukitzea gero eta jasangaitzagoa da hainbat ikuspegitatik; ez dakigu zer egin geuk sortzen dugun zaborraz; informazioa, urriegia bezain galgarri da oparoegia...

Bi ikuspegiek dute asko egiatik.

Kontraesan horretan bizi gara.

Askotan datorkit gogora aspaldiko pasadizoa.

Juan XXIII.a hilzorian zela, Testa kardinala joan zitzaion bisitaldia egitera.

Etsipen oro uxatu nahian egin zion diosala: "Zer moduz dabil ba, nire adiskide Roncalli?".

Ohetik erantzun zion honek. "Zure adiskide Roncalli erabat izorratua. Baina irratiz entzun berri dut Aita Santuaren osasun egoerak onera egin duela".

Askotan ez dakigu Roncalli garen ala Aita Santu izatea egokitu zaigun.

Segur aski, biak gara aldi berean.

Lehentasunak

ANGEL ERRO

HTTPS://LABUR.EUS/A5NH9  
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Azkenaldian, eskuineko politikari asko ari dira iragartzen, gurean ere bai, boterera iritsi (haien irudiko, boterea berreskuratu, eta pertzepzioan ez zaie arrazoi osoa falta) eta lehendabiziko gauza zer eginen duten.

Madril hiriko PPren hautagaiak erdiguneko trafiko murrizketak bertan behera utzi.

Ez omen zaie berokia ere esekitokian uzteko astirik ere

emanen, hainbesteko presa dute, herriak bezala omen, bidegabekeria horrekin amaitzeko.

Enrique Maya UPNko hautagaiak ere, iritsi eta lehendabiziko gauza, Armadari atzera emanen dizkio etorbidea eta ohore galdua.

Haren nagusia, Esparza, ez da hain zehaztu zalea, eta oraingo gobernuak hartu dituen neurri guztiak atzera botatzeko asmoa omen du.

Seguruenik ez daki nondik hasi.

Baina, bai, badakit nondik hasi.

Begira, bestela, Andaluziara.

Hauteskunde kanpainan zer aginduko zuten ez dut gogoan, zezenketen babesa izanen zen ala ehizarena, baina iritsi eta lehendabiziko gauza (dagoeneko aitortu dute inbestiduran) oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga kentzea izanen da, erkidego horretan milioi bat eurora arte dagoeneko salbuetsita zeuden arren.

Horrelakoetan salatzen dute beren burua, lehentasunak benetan zeintzuk dituzten, eta noren lehentasunak.

Post gehiago 6. orrialdean.

Amodio-gutuna  
Eskertza-gutuna  
Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali *gutunak@goiena.eus* helbidera!

Erantzun-gutuna  
Aldarrikapen-gutuna  
Kexa-gutuna





### KONFIANTZAREN PEDAGOGIA

Arizmendi Ikastolaren marko pedagogikoaren oinarrian konfiantza dago. Ikasleek beren buruarengan, besteengan eta beren inguruarengan konfiantza edukitzeak norbere gaitasunak garatzeko eta, era autonomoan, etorkizuneko erronkak lortzeko balio du.

**konfiantza**  
ZATOZ IKASTOLARA!

**MATRIKULAZIO EPEA**  
Urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra

**arizmendi**  
ikastola

### HAUR HEZKUNTZA 0-6 URTE

|                     |               |            |       |              |
|---------------------|---------------|------------|-------|--------------|
| <b>URIBARRI*</b>    | Urtarrilak 21 | astelehena | 17:30 | Arrasate     |
| <b>OLARTE</b>       | Urtarrilak 22 | asteartea  | 17:30 | Arrasate     |
| <b>SANTA TERESA</b> | Urtarrilak 23 | asteazkena | 17:30 | Arrasate     |
| <b>UMEZAINZA*</b>   | Urtarrilak 26 | larunbata  | 11:30 | Arrasate     |
| <b>BASABEAZPI</b>   | Urtarrilak 23 | asteazkena | 17:30 | Aretxabaleta |
| <b>JOSE ARANA*</b>  | Urtarrilak 22 | asteartea  | 17:30 | Eskoriatza   |



eskoriatza  
udala



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

### LEHEN HEZKUNTZA 6-12 URTE

|                     |               |            |                           |            |
|---------------------|---------------|------------|---------------------------|------------|
| <b>ARIMAZUBI</b>    | Urtarrilak 28 | astelehena | 9:15-11:15<br>14:45-16:30 | Arrasate   |
| <b>GAZTELUONDO</b>  | Urtarrilak 29 | asteartea  | 9:15-11:15<br>14:45-16:30 | Arrasate   |
| <b>SANTA TERESA</b> | Urtarrilak 30 | asteazkena | 9:15-11:15<br>14:45-16:30 | Arrasate   |
| <b>ALMEN</b>        | Urtarrilak 28 | astelehena | 9:15-11:15<br>14:15-16:00 | Eskoriatza |



Ordutegi horietan bisita gidatuak antolatuko dira gunea ezagutzeko. Ordu horietan ezinezkoa bazazue, gune bakoitzeko arduradunarekin jarri harremanetan: Almen (Aritz Olanguen arolanguen@arizmendi.eus), Gazteluondo (Miren Uribealgo muribesalgo@arizmendi.eus), S. Teresa (Iban Roa iroa@arizmendi.eus), Arimazubi (Anabel Mondragon amondragon@arizmendi.eus)

### DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA 12-16 URTE

|                  |               |            |                                                |            |
|------------------|---------------|------------|------------------------------------------------|------------|
| <b>GAZTELUPE</b> | Urtarrilak 22 | asteartea  | 9:00-12:30<br>(6. mailako ikasleen bitartean)  | Arrasate   |
|                  | Otsailak 5    | asteartea  | 11:00-12:30<br>15:00-16:30                     | Arrasate   |
| <b>ALMEN</b>     | Urtarrilak 30 | asteazkena | 11:30-12:30<br>(6. mailako ikasleen bitartean) | Eskoriatza |
|                  | Otsailak 5    | asteartea  | 11:00-12:30<br>14:30-16:00                     | Eskoriatza |



Ordutegi horietan bisita gidatuak antolatuko dira gunea ezagutzeko. Ordu horietan ezinezkoa bazazue, DBHko zuzendari Unai Busturia (ubusturia@arizmendi.eus) eta Elena Errostenarekin (errost@arizmendi.eus) harremanetan jarri.

### INFORMAZIO BILERAK

|                                |               |            |                                |            |
|--------------------------------|---------------|------------|--------------------------------|------------|
| <b>SANTA TERESA</b>            | Urtarrilak 23 | asteazkena | 17:30                          | Arrasate   |
| <b>GAZTELUPE</b><br>(EUSKARAZ) | Urtarrilak 29 | asteartea  | 17:30                          | Arrasate   |
| <b>GAZTELUPE</b><br>(ELEBITAN) | Urtarrilak 30 | asteazkena | 17:30                          | Arrasate   |
| <b>ALMEN</b>                   | Urtarrilak 29 | asteartea  | 17:30<br>(aldiberko itzulpena) | Eskoriatza |

INFORMA ZAITEZ: 943 77 20 25 / [www.arizmendi.eus](http://www.arizmendi.eus)



ikastolenelkartea



GZATASUNA  
LANEAN



MONDRAGON



# Monitoreak kiroldegian, eta bi jarduera berri

Udalak lau urterako kontratua esleitu dio Egoitek-i, Uarkaperen kudeaketa integrala eta kirol eskaintzak egin ditzan. Kontratu berriak Musakolan ere monitore zerbitzua izatea eta bi ikastaro berri jasotzen ditu: 'jumping'-a eta entrenamendua suspentsioan


**Xabi Gorostidi** ARRASATE

2019ak hainbat berritasun eka- rri dituen besapean, Arrasateko Udalaren kirol eskaintzarekin lotuta. Udalak Egoitek enpresa- rekin lau urterako kontratua sinatu du Uarkapeko kudeaketa integrala egiteko –monitore aholkularitza zerbitzua eta ate- zaintza– eta kirol ekintzen es- kaintzaz arduratzeko. "Lehen, bi kontratu solte izaten ziren, baina, behin hauek agortuta, biak bateratu ditugu kontratu bakarrean", azaldu du Ander Garayk, Kirol zinegotziak.

Esleipen berria urteko 123.000 euroren truke egingo du enpre- sa horrek, eta, horrez gain, ki- rol ikastaroen matrikulazioen %70 ere jasoko du.

## Berritasunak

Kontratu berri horrek hainbat hobekuntza ekarriko dituela azaldu du Garayk: "Iaz, moni- tore zerbitzua Uarkapen bakarrik eskaintzen genuen, baina, kon-



Egoitek-eko monitoreak, Muñoz –Kirol teknikaria– eta Garay –Kirol zinegotzia–. X.G.

tratu berriari esker, Musakolan ere izango da; astelehenetik ostiralera, eta egunean hiru orduz".

Bestalde, beste bi ikastaro be- rri egiteko aukera izango da 2019an: entrenamendua suspen-

tsioan eta *jumping*-a. Lehenean, nyloneko bi soka eta norberaren pisua aprobetxatuz, gorputzeko muskulu guztiak lantzen dira, eta aproposa da indarra lantze- ko, eta oreka zein malgutasuna hobetzeko. *Jumping*-a, ordea,

martxosogoa da, musika eta ohe elastikoak uztartzen dituelako. Oheak dimentsio murriztukoak dira, eta horien gainean salto erregulatuak egitean datza.

## Ateak irekitzeko jardunaldiak

Jarduera gidatu berri horiek probatzeko, ateak irekitzeko saioak izango dira hurrengo bi asteetan: hain zuzen ere, urta- rrilaren 25ean, 26an, 28an, 29an eta 30ean. Bi ekintza horiez gain, *aero pilates* eta *strong* jarduerak ere probatu ahaliko dira. Ordu- tegiei eta kokaleku zehatzei buruzko informazioa *Goiena.eus* atarian dago.

## Kirol orientazio zerbitzua

Kontratu berriaren baitan, kirol orientazio zerbitzu bat ere jaso dute. Horren helburu nagusia arrasatearren jarduera fisikoa areagotzea eta sedentarismoa murriztea izango da: "Orain arte kirolik egin ez duten pertsona pasiboak aktibo bilakatzea da helburua. Martxo aldean jarriko da martxan, eta orduan emango ditugu aholkularitza zerbitzu horri buruzko xehetasun guztiak".

## Kiroldegi berria

Musakolako kiroldegi berriari buruz galdetuta, zera adierazi du Garayk: "Kirol taldeek hela- razi zigutena jakinarazi genien aurreproiektua idazten ari di- renei, eta espero dugu otsail eta martxo artean jada aurreproiek- tua amaitua egotea".

## Kirol jarduera gidatuen eskaintza

### Kiroldegian

- Pilatesa.
- Aeropilates lasaia.
- Aeropilatesa.
- Yoga
- Body balancea.
- Egokitua.
- Strong-a.
- Zumba.
- Spinninga.
- Body pump-a.
- Krosfit-a.
- Junping-a.
- Entrenamendua suspentsioan.
- Gimnasia +60.
- Aeropilates lasaia, +60.
- Gazteentzako zumba.
- Gazteentzako spinninga.
- Aeropilates gazteak.

### Uarkapen

- K-stretch-a.
- Hipopresiboak.

### Uretako jarduerak

- Aquagym-a.
- Matrogym-a.
- Helduen igeriketa.
- Zapaburuak: 4 urtetik beherako haurrentzako igeriketa.
- 4 urtetik aurrerako umeentzako igeriketa.
- Igeriketa egokitua.

## GORA ETA BEHERA




## Zaborrak, bereizketarik egin gabe botata

Irakurle batek Musakola auzoan ateratako argazkia da. Bertan, telebistak, platerak eta altzariak agertzen dira edukiontzi kanpoan botata. "Zabor organikoa botatzera joan, eta ia-ia etxera bueltan ekarri behar izan dut. Espero dut egileak isun eredugarri bat jasotzea, lotsagarria baita".

## EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus

edo 688 69 00 07.



GOIENA

## OHARRAK

### Pako Aristi

Idazle ezagunak *Euskarak independentzia behar du?* galderari erantzunak emateko saioa egingo du gaur. Hitzordua, gaztetxean, 18:30ean.

### Ikurrina, zapatuan

Duela 42 urte jarri zuten udaletxean lehen ikurrina. Hala, egun berean, ikurrina handi bat estreinatuko dute, bihar –13:30ean–, herriarren botoek erabakitako lekuan: Jose Maria Arizmendiarrera plazan.

### Pentsiodunak

Elkarretaratzea egingo dute astelehenean, 12:00etan, Herriko Plazan.



## NIRE USTEZ

NEREA MAKAZAGA

## Indiako emakumeen giza katea

Emakume izateagatik tenplu batera sartzen utzi ez zidaten lehen aldia Thaiandiako tenplu hinduista batean izan zen; emakumeon hilerokoaren ustezko purutasun ezean oinarrituz debekatu zidaten sarrera. Antzeko zerbait gertatu izan zait eraikin *sakratuetan* hainbat gorputz atal estaltzera behartu nautenetan: sorbaldak, orkatilak, belaunak, ilea... Honi gehitu diezaiokegu, sarri, emakumeoi sartzen uzten gaituztenean ere, txokorik ezkutu eta isolatuenak baino ez dizkigutela egozten, eta gizonezkoek edukitzen dituzten debeku apurak zorrotzasun gutxikoak izaten direla. Duela gutxi prentsan azaldu da Indiako Kerala estatuan nola bi emakume Sabarimalako Ayyappa tenplura sartzen ausartu direla, gobernu komunistak bultzatutako lege aldaketa berri baten harira.

Gizarte tradizionalak ez du aldaketa onartu, baina emakume anitz kaleratu dira Estatuko 620 kilometrotan zehar egin den giza katearekin bat egitera. Indiako emakumeetan berpiztu den oihu honek horma sendoaren forma hartu du, eta sendo dirudi eremu berriak berreskuratze prest datorrela.





Juan Karlos Izagirre, Maider Morras eta Larraitx Ugarte, asteazkenean Kulturateko klaustroan. XABI GOROSTIDI

# Morrasek eta Izagirrek, lehentasunak ardatz

EH Bilduk ekitaldi politikoa egin zuen asteazkenean, Gipuzkoako eta Arrasateko hautagaiak aurkezteko. Izagirre Gipuzkoako eskualdeei autonomia ekonomikoa handitzearen alde agertu zen eta Morrasek, aldiz, berdintasuna jarri zuen jomugan

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Kulturateko klaustroan batutako herritarrak maiatzeko hauteskundeei begira jarri zituen EH Bilduk asteazkenean. Maider Morrasedi –Arrasateko alkategaia– eta Juan Karlos Izagirrek –Gipuzkoako zerrendaburua– hartu zuten hitza, eta, saioa hasi aurretik, Mondragon taldeko eta Fagor Arrasateko egoitzak bisitatu zituzten.

## Hobetu beharreko lehentasunak

Bi hautagaiek hobetzeko dauden aspektuetan zentratu zuten diskurtsoa. Izagirreren kasuan, Gipuzkoako eskualdeen finantza autonomia hobetzeko neurriak iragarri zituen. "40 milioiko poltsa jarriko dugu eskualde bakoitzak bere inbertsio nagusiak erabaki ditzan. Eurek ezagutzen dituzte eskualdeen beharrak hobekien, eta eurei eman behar zaie hitza. Hemen, Debagoienean, keak edukitzeko arrazoiak badituzue; keak justifikatuta daude. Baina, diru poltsa horre-

kin, ziur zuen beharrak hobeto aseko dituzuela", azaldu du. Menpekotasuna ere izan zuen hizpide, eta honako hobekuntza hauek iragarri zituen: "2015ean, Aldundia utzi genuenean, 700 lagun zeuden zaharren egoitzetara sartzeko itxaroren, eta, batez beste, 129 egun behar ziren horietara sartu ahal izateko. Orain, ordea, 800 lagun daude, 200 eguneko itxarote-zerrendekin. Hori konpontzeko, eta sektore horretako langileen baldintzak hobetzeko, inbertsioak egin dira, eta horiek egiteko prest gaude".

Maider Morrasedi herriko komertzioarekiko kezka azaldu zuen lehen hitzartzean, eta hori indartzeko beharra azpimarratu zuen. Horrez gain, berdinta-

**MORRASEK ADIERAZI ZUEN ARRASATERAKO PROIEKTU ZEHATZAK AURRERAGO AZALDUKO DITUZTELA**

sunean hobetzeko beharrean ere jarri zuen fokua: "Erronka bat da. Orain, euskara, gazteria, kultura eta berdintasuna alor berdinean sartuta daude Udalean, eta ezin dugu horrela jarraitu. Arlo guztietan aplikatu behar da berdintasuna: hirigintzan, kale seguruagoekin, zerbitzuetan, kulturean..."

## Lan-saioak

Herritarrek gai konkretuei buruzko ekarpenak egiteko, bi lan-saio prestatu ditu EH Bilduk. Lehena bihar goizean egingo dute –Kulturaten, 10:30ean– honako gaiak jorratzeko: kirola eta osasuna, hezkuntza eta kultura, hirigintza eta ingurumena, eta aniztasuna. Hurrengo hitzordua otsailaren 2an izango da –Kulturateko Loramendi gelan, 10:30ean–, eta honako gai hauei buruz: euskara, justizia soziala, memoria eta bizikidetzatza, pentsiodunak, auzoak, merkataritza, enplegua, feminismoa eta gazteria.

Oscar Garcia, *Harira* programan, 2018ko abenduan. JAGOBA DOMINGO

## Oscar Garcia, Arrasateko sozialisten alkategai berriz ere

Kudeatu dituzten udal arloetako lana jarri du balioan, eta herritarren arazoak konpontzeko gogoz azaldu da

**X.G.** ARRASATE

"Barne prozesu bat egin ostean, berriz aukeratu nauzue, eta harro esan dezaket sozialisten alkategaia naizela berriz".

2015ean jarritako helburuetako gehienak bete egin dituztela uste du Garciak, baina aurretik lan asko geratzen dela ere esan du: "Lau urte igaro dira eta gauza asko egiteke zeuden Udal Gobernura sartu ginenean. Gaur, harro esan dezakegu gure programan zeuden arlo gehienak landu ditugula, baina honek ez du esan nahi dena eginga dagoenik, edo gauzak dauden bezala

utzi ditzakegunik, eta, horregatik, biztanleria guztiari eskatzen diogu gure programan parte har dezan, zuen iradokizunak Udalera eramateko kapaz izango baikara. Udal Gobernuan kudeatutako arloetan egindakoak ere nabarmendu ditu: "Kudeatu ditugun bi arloek fruituak eman dituzte. Adibide gisa: doako wifi publikoa, Gabonetako argiteria, Makatzenako igogailua, garbitasun ordenantza, kale garbiketako kontratu berria, Erdi Aroko azoka, Gaming Day egitasmoa, parkeen eraberritzea asfaltatze lan handiak..."



M8KO PLATAFORMA

## Ilusionatzeko moduko hasiera

**Goiena komunitatea**

M-8ko Plataforma / ARRASATE

Martxoaren 8rako plataforma sortzeko lehen batzarrean 80 emakumek hartu dugu parte; ilusioz betetako sei lantalde eratu ditugu. Olatu morea indarberritua dator eta M-8a borroka egun ahaztezin bilakatuko dugu!



Euskal Herrian Euskaraz-eko kideak kristalezko kopa formako lekukoa pasatzen tabernako arduradun berriei. XABI GOROSTIDI

# "Esku onetan" utzi du EHEk Jai-Zale taberna

Duela lau urte, Jai-Zale tabernaren gidaritza hartzeko apustua egin zuen Arrasateko Euskal Herrian Euskaraz taldeak. Jarritako helburuak bete ostean, taberna kudeatzeari utziko diote, baina euskaltzaleen gune izaten jarraituko du aurrerantzean

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Euskal Herrian Euskaraz taldekoek Jai-Zale tabernaren gidaritza hartzea erabaki zuten duela lau urte, baina berriki erabaki dute horren ustiapena uztea eta lekukoa gazte talde bati pasatzea.

"Larregi pentsatu gabe hartu genuen tabernaren gidaritza, aukera oso ona zela iruditzen zitzaigulako, nagusiki. Uste dut lortu dugula Arrasaten gure lekua egitea, askotariko ekintzak antolatuz, hitzaldiak, kontzertuak, bertso saioak... nolabait, lortu dugu askorentzat erreferentzialtasuna duen gunea izatea", azaldu du EHEko kide Lierni Etxeberriak.

Baina, urte hauetan pilatutako nekeak eraginda, tabernaren kudeaketa amaitzea erabaki dute. "Ziklo bat amaitu dugula ikusi dugu. Taberna negozio bat da, azken finean, eta hori ondo eramateak energia asko xurgatzen du. Aipatutako neke horren eraginez, onena taberna esku berrietan uztea zela erabaki dugu".

## Jai-Zalaren 4. urteurreneko egitaraua

**Gaur, egubakoitza**

- **20:30** Maravillas gaztetxeari elkartasuna adierazteko talde argazkia.
- **22:00** Ekiñe Casadoren kontzertu akustikoa.
- **23:30** DJa.

**Bihar, zapatua**

- **12:30** Uxue Alberdiren eta Sustrai Colinaren bertso saioa. Gai jartzailea: Beñat Zamalloa.
- **18:00** Kontzertuak: Idoia Asurmendi eta The Liernors.
- **23:00** DJa.

**Euskaltzaleen topaleku**

Tabernaren gidaritza Arrasateko bi gaztek hartuko dute, baina Etxeberriak azaldu du orain arteko filosofia mantendu egingo dutela. "Taberna hartuko duten bi gazteetako bat Jai-zalen lanean aritu da azkenaldian, eta ondo ezagutzen du. Beraz, helburua da, EHEk kudeatzeari utziko dion arren, euskaltzaleentzat gune izaten jarraitzea". Lau urtetik hona egindako lanak Arrasateko euskalduntasunean sakontzeko balio izan duen galdetuta, zera dio Etxeberriak: "Zaila da horri neurria hartzea, baina, zirkulu txikietan izan bada ere, igarri dugu euskarekiko kontzientzia areagotzea lortu dugula. Asko geratzen da egiteko, baina pozik gaude".

**Urteurren jaia**

Taberna utzi aurretik, ordea, hiru eguneko egitarau landua prestatu dute, jai-giroan, lau urte hauek emandakoak ganoraz ospatzeko.

## Emakumeei zuzendutako hamar ikastaro eta lau tailer

Emakume Txokoak eta Arrasateko Jabetze Eskolak gertu dute otsailetik maiatzera bitarteko ikastaro eta tailer sorta. Emakume Txokoan egingo diren hamar ikastaro eta lau tailer antolatu dituzte, formakuntzarako, hausnarketarako eta eztabaidarako baliabideak eskaintzeko helburuarekin.

Horietan parte hartzeko, ezinbestekoa da izen-ematea datorren astean egitea: hilaren 21etik 25era, hain zuzen. Izena emateko orria liburuxkan bertan edo Emakume Txokoan edo Arrasateko webgunean eskuratu daiteke. Argibideak behar izanez gero, deitu 943 79 41 39 edo 618 20 62 33 telefonoetara.

## Maria Ubarretxena 'Harira' saioan izango da martitzenean

Arrasateko alkatea Goiena telebistako platoan izango da, eta Eneko Azkarate kazetariaren galderei erantzungo die. Herriko gaurkotasan gaiak, agintaldiaren errepasoa eta hemendik aurrerako egitasmoak aztertuko dituzte, besteak beste. Saioa 21:30ean eta 23:30ean emitituko da, eta, ostean, *Goiena.eus* webgunean ere egongo da ikusgai.

## Ibai-arteren eskutik, kultur ikuskizunak debalde lor daitezke

Gabonetako kanpaina pasatzen arren, Ibai-arterko lagunek erosleak saritzeko gosez jarraitzen dute. Hala, herriko komertzioetan erosketak egiten dituzten artean, kultur ikuskizun hauetarako sarrerak banatuko dituzte: *Inondik inora* haurren antzerkirako 25 sarrera, zinema ikusteko 50 sarrera bikoitz eta *Madamme Butterfly* operarako hogeitaz sarrera bikoitz –urtarrilaren 26an banatuko dira sarre-  
rak; 20:15ean, Herriko Plazan–.

Hori guztia gutxi ez balitz, zuzeneko musika ekitaldi bat ere antolatu dute hilaren 26rako. Tala & Su Banda taldeak El Barrioren bertsioak joko ditu Herriko Plazan, 19:00etan.

## Zuhaitz Eguna bihar: Hidalgobason zuhaitz landaketa, eta azoka

Bihar, zapatua, egingo da Zuhaitz Eguna Arrasaten, goiburuan aipatutako bi osagai nagusiekin. Zuhaitz landaketa parte hartu nahi duten herritarrek Arrasateko Institutuan dute hitzordua, 10:00etan. Pixkanaka, iaz egin bezala, Hidalgobasorantz abiatuko dira, Udalaren jabetzakoa den lursailean, elorri beltza, elorri zuria, gurbitza, basaerramua, gorostia, zuhandorra eta halako zuhaitzak landatzera.

Bestalde, zuhaitzak erosteko premia dutenek Euskal Herriko askotariko txokoetatik etorritako zazpi mintegitako zuhaitzak erosi ahalko dituzte Seber Altube plazan, 08:00etatik 14:00etara bitartean.

## Martxoaren 8ko Kartel Lehiaketako lanak, otsailaren 15era arte

Arrasateko Udaleko Berdintasun Sailak Martxoaren 8ko 22. Kartel Lehiaketa antolatu du, *Sentitu, pentsatu eta ekin feminismoari!* lelopean.

Hain zuzen ere, lanak aurkezteko epea otsailaren 15era arte izango da –BAZen entregatu behar dira– eta diseinu irabazleak 450 euroko diru saria izango du zain.

## OHARRAK

### Familian jolasean

Domeka honetan egingo dute bigarren saioa, Okendoko ludotekan, 17:00etan.

### Mus kanporaketa

Euskal Herriko XI. mus txapelketako kanporaketa jokatu da gaur Monte tabernan, 22:30ean. Zazpi herrialdetako finalak otsailaren 23an jokatu dira, eta final nazionala martxoaren 16an, Lizarran.

### Egutegien zozketa

Presoen eta iheslarien egutegiko zozketan, hauek izan dira zenbaki sarituak: lehen saria, 28; bigarren saria, 444; hirugarren saria, 435; eta laugarren saria, 538.



# Batzokiko pintaketekin, askotariko irakurketak

Urtarrilaren 11n Maravillas gaztetxearen alde herrian jarritako pankartak kendu ostean, ezezagunek pintaketak egin zituzten batzokian. EAJk "bizikidetza apurtzeko ekintza gisa" irakurri zuen gertatukoa, baina EH Bilduk eta Baleiek ez dute hala ikusi

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Iruñeko gaztetxea itxi zen egun berean *Maravillas aurrera* izenburua zuten pankartak agertu ziren herrian. Jaiki taldeak sinatzen zituen, eta, horietako batzuetan, *Gero Bai*, *EAJ*, *ordainduko duzue* mezua agertzen zen bigarren mailan. Udalak horiek kendu zituen, jarri eta gutxira, eta, urtarrilaren 11n, batzokian ezezagunek egindako pintaketa batzuk azaldu ziren, honako mezu hauekin: *Kijera eta Maravillas aurrera*, *Lotu txakurrak* eta *Geroa Bai=PNV*. Horren aurrean, "erasoa eta mehatxuak salatze" oharra plazaratu zuen Arrasateko EAJK.



Batzokian agertutako pintaketak. EAJ

"Pankarta bidez alderdiari, alkateari, zein zinegotziei egindako mehatxuak, demokrazia eta askatasunetik baino gehiago, totalitarismotik eta faxismotik daude gertuago. Bizikidetza apurtzen duten ekintza horien aurrean ez dugu atzera-pausorik emango". Bizikidetza-ren alde lan egiten jarraitzeko prest daudela esan zuten, eta Udaleko alderdiei dei egin zieten, "publikoki akzio horiek salatze" ausardia edukitzeko".

**EH Bilduren irakurketa**

"Kezkaz eta harrituraz bizi dugu EAJren agiria. Kezkaz, Arrasaten bizikidetza eta gatazka po-

litikoaren konponbidea eraikitzen gaudenean honelako kritika politiko batetik biktimismoari heldu, eta beste indar politiko batzuk zalantzan jartzeko baliatzea abagunea. Batzokian egindako pintaketetan ez dago mehatxurik, gure ustez, ez eta irainik ere. Kritika politikoaren barruan kokatzen dira eta naturaltasun handiagoz hartu beharko lituzke, biktimismo oportunistak gabe. Bizikidetza ez da disidentzia ororen isiltzea, urratsak eman ahal izateko helmuga baizik. Jarraitu dezagun lanean".

**Baleikeren kritikak**

Alderdi moreko kideak izan ziren EAJren oharrari publikoki erantzuten lehenak. "EAJk era interesatu batean nahasten ditu aldarrikapen sozial legitimoak, eraso pertsonal edo partidistekin. Memoriaren Mahaian eginiko lana Iruñeko Maravillas Gaztetxea defendatzen duten pintadekin nahasteak argi islatzen du bere lerro politikoekin ados ez dauden protesta sozial guztien kriminalizazioa bilatzen dutela. *Bizikidetza* hitza hipokrisia osoz erabiltzen dute".

## Zalduspe berriz urbanizatzeko konpromisoa

Ospitalearen eta Argatek enpresaren lehengo Asmobi- arteko eremua urbanizatuko dute eta, besteak beste, biribilgune bat, 75 aparkaleku berri eta atsedengune bat egokituko dituzte. Hori bai, Kulturolarekin estuki lotuta doan proiektua denez, 2024rako gauzatzea aurreikusten du Gobernuak. Esku-hartze garestia izango da, faseka egin beharrekoa, lau milioi euro eta erdiko aurrekontua dauka eta; Udalak urte oso batean inbertsioetara bideratu ohi duen kopurua, hain zuzen.

Hirigintza zinegotzi Ibon Arruperen arabera, Arrasateko "eremurik degradatuena" da Zalduspekoa eta berriro urbanizatu beharra dago: "2016an Aprehendices udal jabegoko egiteko permuta bat egin zuen Udalak SPRI erakundearekin. Kontratu horretan jarri zen baldintzetako bat izan zen Arrasateko Udalak konprometitzen zela zortzi urtetan Zalduspeko eremua berriro urbanizatzeko".

## Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK



### ABOKATUAK

#### BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5  
Tel.: 943 76 10 81

#### BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A  
Tel.: 943 79 98 86  
Faxa: 943 77 01 08  
[blasaga@conet.es](mailto:blasaga@conet.es)

#### RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5  
Tel.: 943 76 10 81

### AHOLKULARITZAK

#### ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3  
Tel./Faxa: 943 79 29 26  
[andrama@arrakis.es](mailto:andrama@arrakis.es)

#### GARRAILAN

BERGARA / Mabilategi 36  
Tel.: 943 76 90 83

### ARKITEKTOAK

#### BIARK ARKITEKTOAK

ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behe  
Tel.: 943 79 80 33  
[www.biark.net](http://www.biark.net)

### ETXE ADMINISTRAZIOAK

#### URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Pablo Uranga 3, behe  
Tel.: 943 79 51 25  
Faxa: 943 71 19 85  
[uribesalgo@uribesalgo.es](mailto:uribesalgo@uribesalgo.es)

Iragarkia jarri nahi baduzu,  
deitu 943 25 05 05 zenbakira.

# Urrea Carrascalendako eta Ruiz de Azuarendako

Udazkenean egindako denboraldi-aurreko lana hasi da fruituak ematen, eta atleta arrasatearrak hasi dira denboraldiko lehenengo dominak batzen. Gipuzkoako txapelketan, Eneko Carrascal eta Malen Ruiz de Azua nabarmendu dira

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Gauean daude pista estaliko hitzordu nagusiak, otsailean atleta arrasatearrak batera eta bestera ibiliko dira-eta txapelketetan esku hartzen. Goiztiarrena, atletak ze gorputzalditan dauden erakusteko lehenengo pistak ematen dituen Gipuzkoako txapelketa izaten da, eta hor, etxeko hainbat ordezkari nabarmendu ziren joan den astean Anoetan.

Malen Ruiz de Azuak (Super Amara BAT) urrezko bi domina jantzi zituen. Batetik, bere espezialitatea den pertika-saltoan ez zuen kontrariorik izan, eta 4,15eko marka eginda urrea jantzi zuen. Baina, horrekin konformatu ez, eta salto hirukoitzean marka ederra egin zuen (12,03) eta hor ere gailendu egin zen. Gainera, BAT taldearendako marka berria ezarri zuen pista estalian.

**Salto hirukoitzean protagonista**

Bailarako atletak, baina, salto hirukoitzean bereganatu zuten erabateko protagonismoa, Arrasate Kanpanzar Atletiko Taldeko harrobiak emandako hiru atleta izan ziren-eta podiumera igo zirenak. Eneko Carrascal (Real Sociedad) izan zen onena (15,17), talde bereko Iñigo Uri-



Malen Ruiz de Azua, artxiboko erretratuan. GOIENA

## 60 METROKO LASTERKETAN ZAZPI SEGUNDO AZPITIK DABIL JADA IBAI FERNANDEZ (6.98)

barren sailkatu zen bigarren (15,07) eta Alex Agiriano eskoriatzarra izan zen hirugarrena (14,10). Aipatu behar da podiumetik kanpo geratu bazen ere, Alain Egia bosgarren sailkatu zela (13,47).

Horrekin batera, 60 metroko lasterketan hauek izan ziren Arrasateko atleten markak: Aitor Uranga (7.35), Mikel Agirre (7.40), Iker Menor (7.56) eta Ander Otero (7.56).

**Madriren, 7 segundotik behera**

Horrekin batera, Ibai Fernandez atleta arrasatearra Madrilgo Gallur pista estalian lehiatu zen. 200 metrokoan 23.19ko marka egin zuen, baina nabarmenezkoa da 60 metrokoan zazpi segundoko markatik jaisteko kapaz izan zela (6.98).

## Oilarrek ez diote Kanpanzar ART taldeari beldurrik ematen

Joan den astean Gaztedi mendean hartu eta gero, bihar, Atletico San Sebastian Hernaniren bisita izango dute

**X.U. ARRASATE**

Gabonetako atsedendia on egin dio Arrasate Kanpanzarri. Zuri-moreek taldea indartzeko baliatu dituzte atsedeen egunak, eta joan den astean ligako oilarrerako bat den Gaztedi talde gasteiztarrek ezuste ederra hartu zuen Mojategin, aurreikuspen guztiak gailinduta Isasiren mutilek 24-17 irabazi zieten eta.

Hori ikusita, errespetua ez, baina ARTk beldurra galdu du ligako kontrario gogorren aurrean. Eta bihar (16:30, Mojategi), hori erakusteko beste aukera bat izango dute, bigarren dagoen Atletico San Sebastian/Hernani taldearen kontra jokatuta.

**Aste gogorak dituzte aurretik**

ARTk hauspoa hartu du, joan den asteko garaipenarekin sailkapeneko zuloa atzean utzi eta



Gaztediren kontra, iaz. GOIENA

zortzigarren postura egin du salto. Hala ere, arrasatearrek mailari eusteko borrokan murgilduta jarraitzen dute buru-belarri, eta hurrengo asteak gogorak izango dira. Otsailean, bereziki, kontrario zuzenak izango dituzte aurrean.

## Zikloturisten lizentziak berritzeko azken eguna, gaur


Debagoiena Zikloturista klube-ko lagunak 19:00etatik 20:00etara bitartean egongo dira gaur, egubakoitza, Arrasateko Ignazio Zuloagako 10. atartearen behean duden egoitza izenak hartzen. Gainera, zikloturista lizentziak egiteko ez da derrigorrezkoa klubeko kide izatea, baina bazkide egin gura duenak ere horretarako aukera izango du.

## Arrasate-Udalatxeko izen-ematea, otsailaren 1ean

Apirilaren 14an egingo dute Arrasate-Udalatx mendi lasterketaren bosgarren edizioa, eta, urteurrena ospatzeko, Mondraitzeko lagunek aurreko edizioetako irabazleak batu gura dituzte irteera puntuan. Otsailaren 1ean irekiko dute izen-emate epea ([Herrikrosa.eus](http://Herrikrosa.eus)) eta aurrean ere 350 atletarendako tokia egongo da (25 euro).

## Bailarakoak, podiuma osatzen

Gipuzkoako Txapelketan, salto hirukoitzean Debagoieneko atletak izan ziren protagonista, hirurak Arrasate Kanpanzar Atletiko Taldeko harrobikoak. Eneko Carrascal arrasatearra izan zen onena (Real Sociedad), zilarra jantzi zuen Iñigo Uribarren herrikideak (Real Sociedad) eta podiuma osatu zuen Eskoriatzako Alex Agirianok (Arrasate Kanpanzar).



Ezkerretik hasita, Uribarren, Carrascal eta Agiriano. ARRASATE KANPANZAR ATLETIKO T.

## Besaidek batzar orokorra egingo du hilaren 24an

2017ko jardueraren eta 2018ko ekintza programaren azalpena eta aurrekontuaren eta kuoten onarpena dira Besaideko urteko batzar nagusiko gai zerrendako puntu nagusiak. Hitzordua Kulturaren izango da (19:00). Bestalde, hilaren 27rako, Donejakue bidearen zazpigarren etapa antolatu dute; Zamudion hasi eta Barakaldon amaituko da.

## Liderraren kantxan jokatu du MUK, Burgosen, bihar

Mondragon Unibertsitateak aste gogorak ditu aurretik, hurrengo bi partiduak etxetik kanpora jokatu du-eta jarraian. Gainera, bi kasuetan, Burgoseraino joan behar dute. Bihar, 19:30ean, sailkapenean postu bat atzerago dagoen Miraflores taldea izango dute aurrean eta hurrengo astean, kategoriako liderraren kontra jokatu dute.





2018ko udan Arrasateko Etxoste tabernan. Behean, ezkerretik eskuinera, P. Carrala, DJ Etten eta Talycual. ESENCIA

# Norbere esentzia aurkitu, eta rap bidez azaleratu

2010ean sortu zen Esencia rap taldea, Arrasaten; 2012an kaleratu zuten euren lehen lana, taldearen izen berarekin, eta, geldialdia ostean, 2018an iritsi zen bigarrena; datorren urtarrilaren 26an kontzertua eskainiko dute gaztetxean, ArRAPsate jaialdian

**Eneko Azurmendi** ARRASATE

Talycual, P. Carrala abeslariak eta DJ Etten dira taldea osatzen dutenak, eta Asier Elgezua ere taldeko kide da, hura arduratzen baita komunikazio arloaz, bi-deoklipak grabatzeaz, eta abarrez.

Esan moduan, 2010ean hasi zuten bidea Esencia taldeak, Talycual eta P. Carrala elkarrekin abesten hasi zirenean. Lehe-

naren bizitza beti egon da rapari lotuta. Txikitatik rap munduak asko erakarri izan du, eta, kalean inprobisatzen aritu ostean, letrak idazteari ekin zion.

P. Carrala, berriz, rock eta punk-rock mundutik dator. "Pare bat talde eduki ditut aurrez, eta 13-14 urterekin hasi nintzen letrak idazten. Gerora, ordea, rapa ezagutu nuen eta *engantxatu*

egin nintzen, barruraino heldu zitzaidan", azaldu du.

2012an kaleratu zuten euren lehen lana, *Esencia* izenekoa. "Diskoa baino gehiago, maketa izan zen. Grabatu behar zigun produktorearekin esperientzia txar bat eduki genuen eta, azkenean, guk erdi grabatu behar izan genuen". Horregatik eta beste hainbat arrazoiengatik,

geldialdia egin zuten, pare bat urtez, nahiz eta bitarte hartan letrak idazten jarraitu zuten.

2016 bukaeran martxan jarri ziren berriro, eta gogor heldu zioten erronka berriari, gogotsu. "Ordutik, lan asko egin dugu, ez gara geratu ere egin", diote. Horren isla da 2018an kaleratu berri duten diskoa: *Sophia*.

Lan berriarekin hiru kontzertu eskaini dituzte: Arrasateko Etxoste tabernan, Tuteran eta Amanecer Bailando jaialdian, Mostolesen (Madril). Azken hori izan da, zalantzarik gabe, bereziena: "Espainia mailan egiten den jaialdi entzutetsuenetako bat da. Elektronika, rap, trap eta beste hainbat estilotako 50 artistatik gora elkartu ginen. Plazer handia izan zen, guretzat, horrelako jaialdi batean parte hartzea", adierazi dute.

## Orotariko gaiak

Taldea sortu zuten momentutik, garbi eduki dute rap estiloan aritu behar zutela: "Eta espero dugu luzaroan jarraitu ahal izatea elkarrekin rapa egiten". Rapa "oso aldarrikatzailea" da, eta mota guztietako gaiak jorratu izan dituzte euren ibilbidean zehar: "Kaleko gaiak, gure esperientziak, bizipenak, gai sozialak, gure ingurukoek bizi izan dituzten esperientziak... Politikari buruz, adibidez, ez dugu idazten. Baina ez zaigulako barrutik ateratzen. Bestela, inongo arazorik gabe idatziko genuke", nabarmendu dute.

## Disko berria prestatzen

Bigarren lana orain gutxi plazaratu duten arren, dagoeneko abesti eta letra berriak sortzen ari dira, eta disko berri bat kaleratzea aurreikusten dute laster. Bitartean, abesti solteak egiten

ari dira, single bezala ezagunak diren abestiak. "Gero, erabakiko dugu disko berrian sartuko ditugun edo ez. Oraingoz, sortzen ari gara, buru-belarri".

## Ezagutzera ematen

Gaur-gaurkoz, euren burua ezagutzera ematen ari dira. "Oraindik ezezagunak gara eta lan handia egin beharko dugu gure burua ezagutzera emateko eta oinarri bat egiteko". Horretarako, lehenik, hemen inguruan kontzertuak lotzen saiatzen ari dira, eta pixkanaka handi egiten joatea dute helburu, nahiz eta jakitun diren ez dela erraza izango.

## Urtarrilaren 26an, gaztetxean

Oraingoz lotuta daukaten lehen kontzertua datorren urtarrilaren 26an, zapatua, Arrasateko gaztetxean eskainiko dutena da.

ArRAPsate jaialdia egingo dute egun horretan, 22:30ean hasita, eta, Esenciaz gain, Arrasateko beste rap talde bat ere igoko da oholta gainera, Suprim' Records, baita Barri CBCA, Etten eta Garate DJ-ak ere. "Musika ezberdina egongo da, publiko ezberdina batzeko helburuarekin. Herriari txinparta apur bat emateko ere bada, azkenaldian mugimendu gutxi dago eta".

Herritarrak animatu gura izan dituzte: "Rap ona entzun nahi duten guztiei dei egiten diegu gaztetxera hurbildu daitezen. Gu oso gogotsu gaude, eta daukagun guztia emango dugu".

## 2018AN KALERATU ZUTEN AZKENA, ETA LASTER BESTE DISKO BAT KALERATZEA AURREIKUSTEN DUTE

## 'Inondik inora' haur antzerkiaz goatzeko aukera bihar Amaian

17:00etan izango da Benetan Be antzerki taldearen emanaldia, Amaia antzokian; sarrera bost euro da

**E.A.** ARRASATE

4 urtetik gorako haurrei zuzendutako antzerkia da *Inondik inora*, 50 minutu inguru irauten duena. Postari bat eta bere zorroa dira emanaldiko protagonistak. "Benetan harritzeko modukoa

da zenbat gauza sar daitezkeen postari baten zorroan!".

Hala ere, ezin da "inondik inora ere" paketerik zabaltu, Benetan Be konpainiako kideen esanetan. "Seme-alabei elkarbizitzen, arauak betetzen, zuzen

jokatzen, enpatia garatzen eta euren buruak zaintzen derrigorrez irakatsi behar diegu. Eta libre nahi ditugu, pozik, burujabe, gorputzaren jabe, jakin-minez gainezka, bidegabekeriei eta zentzugabekeriei kontra egiten, euren buruari eta izaerari entzuten, desobeditzen".

Umorea eta poesia, zuzeneko musika, panpinak, euskara eta ingelesa uztartuz, jakin-mina eta desobedientzia sustatzen dituen haurrentzako antzezlan da, konpainiaren esanetan.



Inondik inora antzezlaneko irudi bat. BENETAN BE



# "Zoriondu egin naute, eta hori pozgarria da"

ALEX MENDIKUTE ARGAZKILARIA

Duela bi hilabete inguru, bi panel jarri zituzten kultura etxeko bi hormatan, tximeletak eta sendabelarrak oinarri hartuta; paneletako argazki guztiak Mendikuterena dira

Eneko Azurmendi ARAMAIO

Herritarrengandik jasotako erantzuna "oso ona" izan dela azpimarratu du aramaioarrak, eta bi panelen gaineko komentario positiboak jaso ditu. Batzuk "harritu" egin direla dio, hainbeste tximeleta ikusita.

**Iniziatiba polita da martxan jarri duzuen. Nola suertatu zitzaizuen hau egiteko aukera?**

Liernik [Altuna, alkatea] eta Cristinak [Etxenausia, Kultura zinegotzia] planteatu zidaten kultura etxeko hormetan naturarekin lotutako zerbait jartzea, eta erronka onartzea erabaki nuen. Buruari buelta batzuk eman ostean, sendabelarrak eta tximeletak lantzea erabaki nuen, eta, Udalaren baiezkua jaso ostean, panelak diseinatu nituen. **Argazkiak aurrez ateratakoak dira?** Bai. Beti ibiltzen naiz bidez bide Aramaion, kamera aldean, eta denetik ateratzen dut. Natura oso gustuko dut, eta urte guztian argazki asko ateratzen ditut. Tximeleta ugari nituen, eta, hain zuzen, pentsatu nuen polita izango zela herriari erakustea.

**Guztiak Aramaion ateratakoak dira?** Hala da. Dibertsitate handia dago Aramaion. 21 sendabelar eta 21 tximeleta daude paneletan, baina tximeletak, adibidez, 30etik gora ditut.



Alex Mendikute, paneletako batean. E.A.

**Zeren arabera aukeratu dituzu?**

Batetik, gustu kontua izan da. Bestalde, teknikoki argazki onek direnak saiatu naiz jartzen. Leku mugatua zen, eta aukeraketa bat egin beharra neukan. **Zergatik tximeletak eta sendabelarrak, eta ez beste zerbait?**

Gauza txikiak dira, eta asko gustatzen zaizkit. Animalia txikiak badute zerbait berezia. **Izen zientifikoa, euskarazkoa eta gaztelaniazkoa dituzte. Asko kosta zaizu bakoitza identifikatzea?**

Bai, dezente. Ni ez naiz-eta biologoa; kar, kar. Sendabelarrei

dagokienez, lehendik ezagutzen nituen batzuk, baina tximeletei buruz gauza gutxi nekien. Banituen liburu batzuk etxean, Internet erabili dut eta herriarren laguntza ere eduki dut. Izan ere, batzuek badakite gaiari buruz. Guztion artean lortu dugu bakoitzari izen egokiak jartzea.

**Tximeleta guztiek ere euskarazko izena dute?**

Guztiak ez. Bost bat tximeleta euskarazko izenik gabe daude, ez daukatelako euskarazko izenik edota ezin izan ditugulako

aurkitu. *Tximeleta* hitzak hainbat sinonimo ditu euskaraz: mitxoleta, pinpilinpauza, eta abar. Baina bakoitzaren izenak ez dira hain ezagunak. Sendabelarrekin bai, guztiek dute euskarazko izena.

**Zer lortu gura duzue honekin? Zein da helburua?**

Atentzioa emateko, paretak apaintzeko eta informazioa emateko modu bat da. Leku aproposa da, gainera. Ikastetxea, kultura etxea eta herriko parkea bertan daudelako.

**Dagoeneko pasa da denboratxo bat panelak jarri zenituztenetik. Nola-koa izan da harrera?**

Oso ona. Zoriondu egin naute, eta hori pozgarria da. Azken finean, zure lanari egindako nolabaiteko aitortza da. Batzuk harritu ere egin dira, herrian hainbeste tximeleta aurkitu daitezkeenik ez zutelako espero.

**Fauna eta flora handiko herria da Aramaio. Aukera ematen du beste animalia edo espezie batzuekin ere horrelako zerbait egiteko.**

Nire aldetik, ez litzateke inolako arazorik egongo. Intsektuekin, txoriekin, zuhaitzekin, iturriekin... politak izango lirateke panelak. Materiala badaukat. **Lekua Udalarekin negoziatu behar-ko duzu.**

Herri txikia da eta horma guztiak ere ezingo ditugu bete; kar, kar. **Argazkiak koloretan daude, baina esan behar da zuk argazki guztiak zuri-beltzera pasatzen dituzula. Zergatik? Zer ematen die zuri-beltzak argazkiei?**

Nik adin bat daukat, eta lehen-go garaietan argazkiak zuri-beltzean egiten genituen. Beti gustatu izan zait zuri-beltza. Hala, argian zentratzen da ikuslearen begirada, keinuetan, adierazteko moduan, eta ez norberaren jantzian edo zapatetan.

**Kasu honetan, loreak eta tximeletak. Baina mota guztietako argazkiak ateratzen dituzu. Argazki kamera hartu, eta kalera irteten zara.**

Bai, eta herritarrei eskerrak eman nahi dizkiet. Niretzako, plazera da euren artean hain erraz ibiltzea argazkiak ateratzen, momentuak harrapatzen.

**Gabonetan urtero egiten duzu argazki proiektzioa, argazki guzti horiek, edo horietako batzuk, behintzat, erakusteko helburuarekin.**

Pena ematen zidan hainbeste argazki eduki eta nik bakarrik ikusteak. Beraz, herrira zabaltzea erabaki nuen, eta 2011z geroztik proiektzioak egiten ditut.

**Orain arte Sastiñan egin izan dituzu, baina aurten udaletxean.**

Bai, eguraldiak baldintzatuta. Sastiña oso hotza da. Udaletxeko osoko bilkuren aretoan egin genuen, eta askoz ere hobeto, egia esan. Datorren urtean ere hor egingo dugu.

**Herritarren erantzuna ere oso ona izan da aurten, ezta?**

Hala da. Sorpresa hartu nuen. Iaz ez zen horrenbeste jende egon, eta kezkatuta geratu nintzen, herritarrei ez ote zitzaien gustatu pentsatuz. Baina aurten bete egin da osoko bilkuren aretoa, eta oso pozik nago.

**Noiz egingo duzu hurrengo argazki saioa? Irteera berezirik baduzu?**

Ahal dudan gehienetan, kamera eskuan dudala irteten naiz, eta jaiak edota ekintza ezberdinak ere aprobetxatzen ditut argazkiak ateratzeko. Beraz, edonoiz izan daiteke hurrena.

**"21 SENDABELAR ETA 21 TXIMELETA DAUDE PANELETAN, BAINA GEHIAGO ERE AURKITU DAITEZKE ARAMAION"**

## Martxoaren 8ari begira, bilera irekia egingo dute gaur

Aramaio talde feministak eta Iturri Zuri Emakume Elkarteak antolatuta, bilera irekia egingo dute gaur, egubakoitza, kultura etxeko aretoan, 19:00etan. Martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean, Aramaion egingo dituzten ekintzak antolatzea izango da gaurko saioaren helburua, eta herritar guztiak daude gonbidatuta.

## Guraso zein ume, patinetan

Guraso elkarteak antolatutako patinaje ikastaroa arrakastaz beterikoa izan da aurten ere, eta ia 60 parte-hartzaile ariko dira, bai umeak, baita gurasoak ere. Lehen saioa pasa den asteburuan egin zuten —*Goiena.eus* webgunean dago erreportajea ikusgai— eta domekan egingo dute bigarrena, 11:00etan, kiroldegian. Azkena Gasteizen egingo dute, otsailean.



ARANTZAZU EZKIBEL





Iazko Arabako txotx irekiera, Iturrieta sagardotegian. ENEKO AZURMENDI

# Ongi etorria egin diote sagardo denboraldiari

Aste honetan abiatu dute sagardo denboraldi berria Araban, eta Askartzako Trebiñu sagardotegian egin dute txotx irekiera ekitaldia; iaz baino sagar gutxiago batu dute aurtan sagardogileek, baina kalitatea "oso ona" dela nabarmendu gura izan dute

**Eneko Azurmendi** ARAMAIO

Atzo, eguna, egin zuten 2019ko sagardo denboraldiaren irekiera ekitaldia, Askartzan, eta Iñaki Garaialde Baskoniako jokalaria ohia eta kirol esataria izan zen kupelak zabaldu zituena.

Juanjo Peciña Iturrieta sagardotegiko arduradunak azaldu duenez, iaz baino "dezente" sagar gutxiago batu dute aurtan. Bi arrazoi aipatu ditu: "Batetik, loraldian, martxo-apiril inguru horretan, euri asko egin zuen, eta, horren ondorioz, lorea erori egin zen, galdu egin zen, eta horrek eragina izan du sagar kantitatean. Bestetik, iaz, sekulako uzta jaso genuen, inoizko handiena, eta, horrelako uzta baten ostean, zuhaitzak ahulagoak izaten dira hurrengo urtean. Horren aurrean ezin dugu ezer egin, naturak agintzen du".

Hori dela eta, Gipuzkoatik ekarri behar izan dituzte sagarrak. "Iaz, soberan gelditu ziren tona batzuk, alferrik galdu ziren sagar asko, eta aurtan, berriz,

eskatu egin behar izan ditugu. Gehienbat, Gipuzkoatik ekarri ditugu, Urretxutik, Debatik, eta abar. Gure kasuan, sagar ekologikoak erabiltzen ditugunez, ez daude edonon, eta leku konkretu batzuetan eskatu behar ditugu", adierazi du Peciñak.

Nafarroatik ere ekarri dituzte sagarrak. "Mahai sagarrak Erriberatik ekarri ditugu, hauek ere ekologikoak. Baina hauek sagar zukurako erabiliko ditugu".

## Kalitate "oso onekoa"

Sagar gutxi, bai, baina kalitate "oso onekoa" da aurtengoa. "Oso sagar osasuntsua sartu da dola-rean, inolako gaixotasunik eta kalterik jasan gabekoa. Horrek asko laguntzen du sagardoa egi-

teko orduan. Horrez gain, gradu eta azukre aldetik, mota ezberdinak saltzen ditugunez, eta Euskal Herriko sagarrak direnez, sagardoa betiko moduan egin dugu", dio.

Zaporeari dagokionez, "gozo puntuarekin" dago oraindik sagardoa, baina "denborarekin joango da bere onera". "Aurtan, garratz puntu bat ere badu. Baina azpimarratu behar dut oso sagardo ona eta osasuntsua aterala dela". Koloreari erreparatuta, berriz, Peciñari ez zaio orokortzea gustatzen. "Kupel bakoitzean kolore ezberdineko sagardoa ateratzen da; beraz, orokortzea akats bat da, nire ustez".

## Aurreikuspen onak

Gaur, egubakoitza, irekiko dute Iturrieta, eta, denboraldiari begira, aurreikuspen onak dituzte. "Ohiturak aldatu egin dira eta jende gehiena eguerdietan etortzen da. Baina gauetan ere animatuko dira; giro onean egingo dugu denboraldia, beti bezala".

## GIPUZKOATIK ETA NAFARROATIK EKARRI BEHAR IZAN DITUZTE SAGARRAK ITURRIETA SAGARDOTEGIRA

## Santa eske herrikoirako entseguak hasiko dituzte

Urtarrilaren 24ko saioan eman beharko da izena otsailaren 2an egingo duten bazkarirako

**E.A. ARAMAIO**

Aurreko urteetan bezala, herriko elkarte ugari arituko dira aurtan ere kantuan herrian otsailaren 2an -zapatua-. Aramaixoko Bertso Eskolako, Triki Kalejira taldeko eta Bizente Goikoetxea eta Papargorri abesbatzetako ordezkariak aterako dira, Santa eskean. 10:00etan elkartuko dira, herriko plazan, eta goizean hainbat auzotan ibiliko dira kantuan. Bazkalostean, Ibarran abestuko dute.

Aurrez, baina, bi entsegu egingo dituzte. Eguenetan izango dira bi saioak, urtarrilaren 24an eta 31n, kultura etxean, 19:00etan.

## Deialdia herritarrei

Ekimena lau eragile horiek antolatzen duten arren, deialdia herritar guztientzat zabalik dago eta guztiak daude gonbidatuta.

## Bazkaria

Kalez kale kantuan ibili ostean, guztiek elkarrekin bazkalduko dute, urteroko ohiturari jarraituz, eta urtarrilaren 24ko entseguan eman beharko da izena horretarako. Umeek 15 euro ordaindu beharko dute eta helduek, berriz, 20 euro. Bazkaria ehiztari txokoa izango da, 14:00etan hasita.

## GPS lokalizatzaileak erosteko laguntzak eskatu daitezke

GPS lokalizatzaileak erosteko diru-laguntzak eskatzeko epea martxoaren 31ra arte egongo da zabalik. Baldintza zehatz batzuk bete beharko dira laguntza horiek jasotzeko. Argibide gehiago nahi duenak Udaleko Gizarte langilearengana jo beharko du. Horretarako, aldeztu aurretiko hitzordua hartu behar da, udalera deituta: 945 44 50 16.

## NIRE USTEZ



**JOKIN LARRAÑAGA**

## Gauerdiko kezak

Nor naiz? Zer naiz? Zer izan nahi dut? Izan nahi dudana naiz? Ala ez? Zein da nire helburua bizitzan? Akaso, badut helbururik? Izan beharko nuke? Ala helburua ez da helmuga bat, bidea baino? Zoriontsu naiz? Zer da zoriontsu izatea? Izan naiteke zoriontsu? Ala momentu zoriontsuak bakarrik izan ditzaket? Hala balitz, nola lor ditzaket momentu zoriontsu horiek?

Horrela jarraituz gero, gaur ere nekez hartuko dut loa. Galdera gehiegi eginak dizkiot nire buruari jada, eta lorturiko erantzunak, aldiz, urriak dira. Haurtzaroko inozentziaren epeltasunetik irtetetik, galdera existentzialista sorta zabal batekin bizitzera behartua sentitu naiz ezinbestean, eta, momentuz, ezin izan dut nire burua laino ikusezin honetatik alden. Baina erantzun batzuk lortu ditut, bide lauso bat trazaratzen duten erantzunak.

Badakit ez dudala helbururik bizitza zukutzerik baino, badakit mundua ederra bezain bortitza dela, eta datorrena datorrela inoiz ez dela irribarre egiteko gaitasuna galdu behar, eta badakit kontzientzia garbi izateak ez duela preziorik. Eta hori jakitea nahikoa da gauerdiko kezka guztiak ezabatu eta hurrengo eguna irribarre batez hasteko.

## Oinarritzko Internet ikastaroa jasotzeko izen-ematea, zabalik

Kultura etxean dagoen KZgunean emango dute ikastaroa, otsailaren 4an hasita, 09:00etatik 11:00etara, eta izena eman beharko da aurretik, urtarrilaren 25a baino lehen. Horretarako, bi aukera daude: batetik, liburutegian bertan; eta, bestetik, [itxasokultura@gorbeialdea.eus](mailto:itxasokultura@gorbeialdea.eus) helbidera idatzita. Izan ere, plazak mugatuak dira.

# Herri akordioak hizpide hurrengo jardunaldietan

'2030ean, nolako Eskoriatza izan nahi dugu?' lelopean hasitako jardunaldiek jarraipena izango dute urtarrilaren 26an izango den bigarren saioan. Oraingoan, 'Herri akordioak' izenburupean, kultura etxean 10:00etan izango da herri-bilera

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Herritarren ekarpenak jasotzeko asmoz, EH Bilduk *2030ean, nolako Eskoriatza izan nahi dugu?* lelopean herri-bilera antolatu zuen urte amaierarako. Bertan, lau puntu landu zituzten: hirigintza, herri integratzailea; herri bizia: kirola, kultura, euskara, hezkuntza; herri soziala, denona; eta garapen ekonomikoa, herri bizitza. Hala, jardunaldiei jarraipena emateko, *Herri akordioak* izeneko ekimena antolatu dute, bigarren saio modura. Jardunaldi hori urtarrilaren 26an izango da, 10:00etan hasi eta 12:15ak arte, kultura etxean. Hori horrela, EH Bilduk herritar guztiak parte hartzera gonbidatu nahi ditu.

**Lehen saioko ekarpenak batuta**

"Aurreko jardunaldian jasotako ekarpen guztiekin dokumentu bat osatu dugu, eta hurrengo jardunaldietan lan egiteko balioko digu. Balio eta interes handiko ekarpenak egin ziren

eta espero dugu denak ondo jasoak egotea", adierazi du EH Bilduko Aitor Zubizarreta bozeramaileak. Hori horrela, urtarrilaren 26ko jardunaldiari begira, adierazi dute asmoa dela batutako ideia horiek bi norabidetan sakontzea: batetik, hurrengo lau urteetan zeintzuk izan behar diren egitasmo nagusiak; eta, bestetik, herri dinamikoa izateko, parte hartze eta erabakitze elkartegune berria diseinatzea.

**Ekarpen eta ideia ugari**

"Lehenengo bileran, ideia ezberdinak izan genituen hizpide. Mugikortasun plan bat egitea, eta honekin batera, irisgarritasun plan bat eratzea. Hala, bri-

gada osatuagoa sortzearen ideia ere atera zen, herrian dauden behar guztiak asetzeko, zerbait batuagoa sortuz. Eskoriatza Lagunkoia ere izan genuen hizpide; izan ere, pentsionistekin batera elkarlana ezinbestekoa dela uste dugu, hezkuntza foroa berraktibatzeaz aritu ginen, kultur-mahaia berreskuratzaz, gazteen egoera prekarioaren diagnosia egiteaz, eta honekin batera, plan bat sortzea... halakoez hitz egin genuen. Ideiak dira, eta hauek herritarrei transmitituko diegu. Orain, bigarren saioan, behar gehien dutenak lehenetsiko ditugu", adierazi du Zubizarretak.

**Informatzeko bidea**

Antolatzaileek adierazi dute edozein zalantza edo argibide jaso gura dituenak eta urtarrilaren 26ko jardunaldira joan ezin duenak ekarpenak egin ditzakeela. Horretarako, *eskoriatza@ehbildu.eus* helbidera idatzi dezakete herritarrek.



Eskoriatza Lagunkoia taldeko hainbat kide bilera batean. I.B

## Eskoriatza Lagunkoia taldekoek herri diagnosia aurkeztuko dute

Olazar Erretiratu Elkartekoek astelehenean, hilaren 21ean, aurkeztuko dute, Zaldibar antzokian, 19:00etan

**I.B** ESKORIATZA

Eskoriatza Lagunkoia herriko hogei erretiratu osatutako taldea da, azkeneko bi urte eta erdian Eskoriatzako egoera landu eta aztertzen ibili dena, eguneroko bizitzan dauden arazoak identifikatu eta horientzako irtenbideak proposatzen. Egingako lana udal ordezkariari pasata, astelehenean, 19:00etan, Zaldibarren, herritarrei aurkeztu nahi diete proiektua, eta, hori horrela, bertaratzeko dei egin nahi izan die herritarrei.

Herria hobetzeko lan horrek zortzi arlo hauek batzen ditu:

aire zabaleko espazioak eta eraikinak; garraioa; etxebizitza; parte-hartzea eta gizarte sarea; herritarren parte-hartzea eta enplegua; errespetua eta inklusioa; komunikazioa eta informazioa; eta gizarte eta osasun zerbitzuak.

**Diagnosia ikusgai**

Osasunerako Mundu Erakundetik (OME) datorren proiektua da, eta [www.euskadilagunkoia.net](http://www.euskadilagunkoia.net) webgunean ikusgai dago egindako diagnosia, eta baita Udalaren partetik jaso dituzten lehen erantzunak ere.

## Danborrada egingo dute gaur, sansebastianak ospatzeko

Luis Ezeiza Herri Eskolako haurrek danborrada egingo dute gaur, 15:40an hasita, eskolako jolastokian

**I.B** ESKORIATZA

Luis Ezeiza Herri Eskolako ikasleek, urtero moduan, San Sebastian eguna ospatzeko dute. Horretarako, gaur egingo dute danborrada, eskolako jolastokian, *Herri Eskola gizartearekin bat!*, *Gora gure danborrada!*, *Hezi eta Hazi Eskola Publikoan* lelopean. 15:40an batuko dira, eguraldi ona eginez gero; txarra egiten badu, ordea, Joseba Iñurrategi pilotalekuan batuko dira.

Danborrada egiteko, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako lau mailetako haurrak

batuko dira, eta guztiek batera hainbat pieza joko dituzte danborrekin.

Haurrek egindako sukaldari txapelak eta trajeak eramango dituzte ekitaldira, eta hainbat pieza joko dituzte, herri osoan danbor hotsak entzun daitezen. Horretarako, hainbat entsegu egin dituzte, eta familiakoen eta lagunen aurrean eskainiko dute emanaldia. Ekitaldiari amaiera emateko, aldiz, txokolatea hartzeko aukera izango da, eta nork bere basoa eramateko eskatu dute antolatzaileek.



Eskoriatza EH Bilduk antolatutako herri bileraren lehen saioan. IMANOL SORIANO





Iratxe Arrese, Berbalagunak taldeko koordinatzailea, Gurasolagunak ekimeneko kartelarekin. IMANOL BELOKI

# Gurasoengan euskararen erabilera areagotzeko

0 eta 12 urte artean dituzten haurren gurasoentzat sortu berri dute 'Gurasolagunak' izeneko ekimena Berbalagunak egitasmoko kideek, eta dagoeneko eman daiteke izena. Helburua da euskara modu natural eta erosoan erabiltzea

## Imanol Beloki ESKORIATZA

Urte berriarekin batera, Berbalagunak egitasmoko antolatzaileak guraso berbalagun talde bat sortu guran ari dira. Hori horrela, *Gurasolagunak* ekimena sortu dute, gurasoen artean euskararen erabilera areagotzeko. Urtarrilean hasiko da martxan eta bi modalitate izango ditu: batetik, A modalitatean, euskaraz hitz egiteko ohitura dutenak eta ohiturarik ez dutenak batuko dira, euskaraz hitz egiteko; bestetik, B modalitatean, *ahobizi* izango diren gurasoak eta *belarriprest* izango diren gurasoak elkartuko dira. Elkarriketak euskaraz edo ele bitan izango dira.

## Ekimenaren funtzionamendua

0 eta 12 urte bitarteko haurren gurasoak batuko dira, eta guraso taldeak haurrekin batera elkartuko dira. Gurasoak, euren kabuz, haur barik batzeko aukera ere badago –haurrak aisialdiko ekintzetan dauden bitartean,

esaterako–, astean ordubeteko saioak izango dira, elkartzeko eguna eta ordua norberak aukeratu du eta horren arabera taldeak sortuko dira.

Ekimenaren helburua honako hau dela adierazi dute antolatzaileek: "Bi hizkuntza ofizial izateko zortea daukagu. Hizkuntza modu natural eta erosoan erabiltzea onuragarria da edozeinentzat, baita geure seme-alabentzat ere. Beraz, eurak hiltun oso izatea nahi badugu, gurasoon ardura da euren eredu izatea". Hori horrela, esperientziara batzera animatu nahi dituzte herritarrek: "Benetan animatzen zaituztegu egitasmu hauetan parte hartzera, orain arte Berbalagunak taldeetan

parte hartzen dugunontzat oso esperientzia aberasgarria baita".

## Izen-ematea, hainbat bidetatik

Izena emateko, 0 eta 12 urte bitarteko haurren gurasoei eskutitz bat bidaliko zaie, eta Eskoriatzan zehar kartelak jarriko dituzte. Hala, izena eman daiteke 661 74 63 76 telefono zenbakira deituta edo *whatsapp*-a bidalita edo *berbalagunak@gmail.com* helbidera idatzita. Bide horiez gain, karteletan QR bat ere jarriko dute, formulario batera bideratuko duena.

## Berbalagunak, astean hirutan

Berbalagunak egitasmok hiru talde ditu, eta egun hauetan batzen dira: eguaztenetan, 19:00etatik 20:00etara; eguenetan 19:00etatik 20:30era, honako hau pintxo-pote taldea da; eta egubakoitzetan, 17:00etatik 18:00etara bitartean, kafe-tertulia taldea. Hala, talde horietan parte hartzeko aukera ere badago, urte osoan zehar zabalik dago.

**'GURASOLAGUNAK' EGITASMOA SORTU DUTE, GURASOEK ELKARTU ETA EUSKARAZ EGITEKO**

## GORA ETA BEHERA



## Bizikletentzako aparailua jarri dute bidegorrian

Eskoriatzako bidegorrian, bizikletak konpontzeko oinarritzko erremintak eta puzgailua dituen aparailua jarri dute Dorleta auzoan, saihezbideko soinu-bandak hasten diren bidegorri zatian. Hain justu, egunerokotasunean sortzen diren mantentze beharrak asetzeko asmoz.

## EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

*berriak@goiena.eus*

edo 688 69 00 07.



GOIENA

## San Cristobalera eta Orixolera mendi irteera egingo dute

Aretxabaletako Guraso Foroak, Murruxiko mendizale elkarteak eta Eskoriatzako *Makila eskuen eta ibili basuen* egitasmoko kideek antolatuta, hileroko mendi irteera izango da urtarrilaren 20an, domekan.

Familiei zuzendutako irteera izan arren, edozein herritarrek har dezake parte, eta, oraingoan, San Cristobalera eta Orixolera joango dira. 09:00etan abiatuko dira, Aretxabaletako Herriko plazatik eta Fernando Eskoriatza plazatik, eta ez da izenik eman behar irteerara joateko. Joan-etorria, berriz, bakoitzaren ardura izango da, eta hurrek heldu batekin lagunduta joan beharko dute.

## 'Mari eta gailera fabrika' antzezlan, domekan

Eidabe Ekimen Kulturalak antolatuta, *Mari eta gailera fabrika* antzezlan ikusteko aukera izango da domekan, Zaldibar antzokian. Saioa 17:00etan hasiko da, eta sarrerak hiru euro balio du. Nahi duenak aldez aurretik erosi ditzake, Manuel Muñoz kiroldegian, edo, bestela, antzezlan hasi aurretik egongo dira salgai txartel-leihatilan.

7 urtetik gorakoei zuzenduta dago, euskaraz da, eta protagonistak Luka eta bere amona dira. Lukak gailetak prestatuko dizkio amonari, eta oroitzapenek hain gozoa ez den iraganera eramango dute amona, irenstea kostatuko zaion gogorapenera, hain zuzen ere.



# "Elizateen behar nagusia komunikazioa da"

**IÑAKI KEREXETA** ESKORIATZAKO ELIZATEEN ELKARTEKO BOZERAMAILEA  
25 urte daramatza Eskoriatzako Elizateen Elkartek Udalean. Herriko zazpi elizateek dituzten beharren aldeko apustua egiten dute: "Horiek ere herria osatzen dute"

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Eskoriatzako Elizateen Elkarteko ordezkarria izan da Iñaki Kerexeta agintaldi honetan, eta Udal Gobernuan izan da, EAJ-rekin batera, gobernatzen. Hori horrela, egindako lanarekin pozik agertu da bozeramailea; hurrengo agintaldira begira, ez du baztertzen bere hautagaitza. **Zuen elkartearen hautagaitza hau berezia da. Nolakoa da zuen funtzionamendua?**

Nik dakidala, ez dago halako besterik bailaran. 1984an sortu ginen; beraz, 35 urte daramagu Udalean lanean, eta sortzearen arrazoiak izan zen elizateen dinamika, garapena, mantentzea... bultzatzea, eta hala jarraitzen dugu. Elkartea sortu zenetik, agintaldi guztietan izan dugu ordezkaritza Udalean, eta bi zinegotzi egon den urterik ere izan da.

**Zein da zuen lan-dinamika?**

Eskoriatzan zazpi elizate ditugu: Apotzaga, Bolibar, Gellao, Marin, Mazmela, Mendiola eta Zarimutz, eta Lete auzoa ere bertan sartzen da. Hori horrela, elizate bakoitzak auzo-alkate bat du, eta hiler batzen gara, arazoak eta beharrak identifikatu eta gure artean komentatzeko.

**Aurrekontuan hazkundera izan da iaiztik hona; elizateek izan dute partida handitzerik?**

Pixka bat bai, baina asko ez, mantendu egiten dira. Sastrakak kentzea, elurraren garbiketa, argiteria, mantentzea, inbertsioak... Ia 120.000 euroko partida izango dugu, gutxi gora-behera.

**Zuen behar nagusiak zeintzuk izanongo dira?**

Auzo-alkateen bileretan adierazi dugun gai bat komunikazioarena da. Ez soilik komunikazio elektronikoa, garraio publikoarena ere komentatu dugu. Eskoriatzatik Leintz Gatzagaraino doan autobusa geratzen da tartean dauden auzoetan,



Iñaki Kerexeta, *Harira* saioan. JAGOBA DOMINGO

## KOMUNIKAZIOA ETA INTERNET DIRA ELIZATE GUZTietan DITUGUN BEHAR NAGUSIAK

baina, esaterako, Marinera joaten bada, autobusak ez dauka non buelta eman. Proiektua eta diru-laguntzak onartuta, lanak laster hastea aurreikusten dugu. Horrez gain, pertsona nagusi askok zailtasunak dituzte herri-jaisteko, eta arazo bat bada hor. Eta Internet ere arazo bat da. Interneta kable normaletik doa, eta abiadura oso txikia du. Elizate guztiak *gune zuria* izeneko talde horretan sartzeko aukera egon zen, Europatik datozen diru-laguntzak jasotzeko. Sartu gara talde horretan, baina prozesu oso luzea da. Europako diru-laguntzak Espainiara joango dira; gero, Euskal Herrira... Helburua da Internet azkartzea eta baserri guztiak konektatzeko aukera izatea. Ez soilik Internet; telebista ikusteko ere zailtasunak daude hainbat gunetan, eta horri konponbidea

emateko ere aukera emango liguke.

**Eskoriatzatik Leterako bidearen gaia ere komentatua izan da; nola dago gaur egun?**

Bi gunetan izan zuen eragina lur-jausiak. Leteko bidean, eta baita Eskoriatzako saihesbidean. Azken horretan, larrialdiko lan moduan Foru Aldundiak konpondu zuen, eta besteak ohiko prozedura jarraitu du, eta hala-koak luze joaten dira. Udaberri-rako lanak amaituta egotea espero dut.

**Gatz Bidea proiektu ederra da elizateak ezagutzeko, ezta?**

Oso bide polita da, eta beste modu bat da Gatzaga eta Eskoriatza batzeko. Auzolan ederra egin da bertan, eta bidean Zarimutz, Mazmela... ikusi daitezke. **Herritar bati edo beste edozeini gomendatuko zenioke Eskoriatzako elizateak ezagutzeko?** Noski; zirkuitu borobil bat osatzen dute elizateek Eskoriatzaren bueltan, eta paisaia ederraz gozatzeko aukera dago. Gainera, herria ezagutzeko beste modu bat da. Askok, autobidetik pasatzerakoan, Zarimutz ikusi eta bertara joateko aprobetxatzen dute.

# LEINTZ GATZAGA



Dorletako santutegian ikusgai dagoen erakusketa. JOSU BILBAO

## Txirrindularitzako izen handien berbaldia kultura etxean

Izen handiko txirrindulariak batuko dira urtarilaren 26an, 12:00etan, Gatzagako kultura etxean

**Imanol Beloki** LEINTZ GATZAGA

Txirrindularitzarekin lotutako izen handiko pertsonak batuko dira datorren zapatuan, urtarilaren 26an, Gatzagan. Marino Lejarreta, Txomin Perurena, Joseba Beloki, Jesus Aranzabal txirrindulari ohiak, Eusebio Unzueta Movistar taldeko zuzendaria eta Euskal Herriko Itzuliaren eta Donostia klasikoko zuzendari Julian Eraso egongo dira Gatzagako kultura etxean, 12:00etan, mahai-ingurua eskaintzen.

Dorletako Ama txirrindulari taldeak jarritako erakusketaren bueltan eta beraien ibilbide profesionalaren gainean solasaldia eskainiko dute. "Gonbidatuak aurkeztuko ditugu, eta, ondoren, galderak egingo dizkiegu. Asmoa da beraien historia, izan duten egoera, irabazi dituzten lasterketak... ezagutzeko. Ondoren, mahai-ingurura datozen entzu-

leei ere emango diegu galderak egiteko aukera...", adierazi du Alberto Altubek, antolakuntzako kideak.

**Erakusketa arrakastatsua**

Izan ere, Dorletako santutegiko erakusketak zeresana sortu du. Kas taldeko masajista izandako Karmelo Uriak batutako materiala ikustera hainbat bisitari joan dira, eta oraindik interesdun asko daudela adierazi du Altubek: "Leku askotariko txirrindulari gazte taldeen deiak jaso ditugu. Erakusketa ikustera bizikletan etorri nahi dutela talde handietan...".

**Erakusketa bisitatzeko**

Erakusketa ikusi nahi duenak zapatuan eta domekan izango du aukera, 11:00etatik 14:00etara. Astegunetan joan nahi duenak, berriz, deitu egin beharko du 647 15 48 45 telefonora.

## OHARRAK

### 2019ko egutegiak

Leintz Gatzagako Udalak urtero banatzen dituen egutegiak bidali dituzte etxeetara. Hori horrela, 2019ko egutegia etxean jaso ez duenak udaletxean izango du eskuragai.

### Ur eta estolderia zerbitzuen tasak

2018ko laugarren hiruileko etxebizitzarako edateko uraren eta estolderia zerbitzuaren tasen errolda onartu dute, eta zabalik dago ordaintzeko epea.

### Gaztainuzketa mendi-etxeak

Lehiaketara atera aurretik –otsailean, seguruenik–, egokitapen-lan batzuk zehaztu eta horiek egingo ditu Udalak.



# Proposamena, mahai gainean

Udal Gobernuak hamar milioi euro pasatxoko aurrekontu proposamena aurkeztu du 2019rako, agintaldiko handiena, eta inbertsioetara ia 850.000 euro bideratu dituzte; hori eztabaidatzeko eta onartzeko osoko bilkura urtarilaren 31n egingo dute

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Udal Gobernuak gertu dauka 2019ko aurrekontua, eta proposamena dagoeneko aurkeztu die Udaleko gainerako alderdiei; ondo bidean, urtarilaren 31n egingo duten osoko bilkuran onartzea da asmoa. 10.015.516 euroko aurrekontua da, agintaldiko handiena, eta, iazkoarekin alderatuta %3,4ko igoera izango du: "Arrazoa da Foru Fondotik datorren kopuruaren igoera; iaz baino 311.000 euro gehiago jasoko dugu eta 2015arekin alderatuta 800.000 euro gehiago", jakinarazi du Unai Elkoro alkateak.

Pertsonal gastuak bi milioi euroren bueltakoak dira eta %2,25eko igoera aurreikusi dute. Ohiko gastuak bost milioi euro pasakoak dira, eta inbertsioetara ia 850.000 euro bideratu dituzte: "Partida polita da, ilusioa eta lanerako gogo sortzen duena", dio alkateak.

## Inbertsioak kiroldegian

Kirol Sailaren aurrekontuak nabarmen egin duela gora jakinarazi du Mikel Uribe txabarria zinegotziak: %20, iazkoarekin alderatuta. Igoera horren arrazoa da Ibarra kiroldegiko bi inbertsio: fitness gela handitzea (70.000 euro) eta kantzaren lurzoruari babesgarria jartzea (40.000 euro). "Kiroldegia 1.050.000 euro inguruko aurrekontua du aurten, baina sarreak ere gora doaz: bazkide gehiago ditu, 3.100 bueltan, eta jarduerak ere gora doaz, 700 lagun. Hortaz, 780.000 euroko sarrerak aurreikusi ditugu, gastuaren %83 estaltzea lortuz. Eta hainbat erabaki ere hartu dira ondorioz; ordutegia luzatu, esaterako", jakinarazi du Uribe txabarria.

Iturri gorri pilotalekuan ere hainbat hobekuntza lan egingo



EAJ alderdiko sei udal ordezkariak bost osoko bilkuran aretoan. MIRARI ALTUBE

dituzte (14.000 euro). Era berean, Atxabalta Mugi ekimenaren estalpe den Mugiment proiektua indartu gura dute. Iaz 100 bat erabiltzaile izan zituela eta aurtun 150era iritsiko direla dio.

## Gizarte Zentroa mojetan

Ongizate Saileko zinegotzi Karmele Uribarrik adierazi du II. Berdintasun Planean jasotakoa betez berdintasun aholkularitza kontratatatzeko partida zehaztu dutela. "Nobedadea handiena da zeharkakotasuna. Sail bakoitzak bere partida du Berdintasun Plana garatzeko".

Ongizateari dagokionez, hiru garren adinekoendako Gizarte Zentroa aurreikusi dute mojen komentuan, eta proiektu arkitetnikoa egiteko dirua jarri dute aurrekontu proposamenean: "Goiko solairuan etxebizitzak egitea da asmoa, eta, gainerakoan,

**KIROL SAILAREN AURREKONTUAK %20 EGINGO DU GORA, KIROLDEGIAN INBERTSIOAK EGITEKO**

Basotxoko erretiratuendako eta, orokorrean, adinekoendako kontuak: jangela...". Bakarrik bizi diren 80 urtetik gorako etxebizitzetan, oster, su detektagailuak jarri gura dituzte (2.000 euro). Eta partida berri bat zehaztu dute esku-hartze programaren baitan 18 urte bete ondoren ere jarraipena egiteko (2.000 euro).

## Iazko ekitaldi askori jarraipena

"Kultura Sailean, iaz antolatutako ekitaldi gehienei eutsiko diegu: Fun Dantz, kale animazioak, magia emanaldiak... Nobedadea da antzinako ezkontzaren antzezpena; azkenekoz orain dela 30 urte egin zen, eta berreskuratu egingo dugu sanmigeletan", adierazi du Joxe Migel Uribarrenek, Kultura zinegotziak.

Bestetik, oso pozik agertu da zinematik eta antzezlanek izandako harrerarekin: "Azken urteko 25 film emanalditara 5.042 heldu joan dira eta haurren emanaldietara, 2.427. Gainera, sei bat aldiz Arkupe beteta egon da antzezlanak ikusteko". Halako ekitaldietarako sarrerak samurrago hartzeko aplikazio bat garatuko dutela jakinarazi du.

## Aurkeztutako proiektuetako batzuk



Agustindar mojen komentua. M.A.

**Mojen komentua** Eraikineko aretoa egokitzeko lanen proiektua egiten dihardutela eta hilabetean bukatuta egongo dela iragarri dute. 100.000 euro bideratu dituzte horretara, nahiz eta hainbeste ez dela beharko uste izan.



Santa Kurtz kalea Iturri gorri pilotaleku parean. M.A.

**Santa Kurtz kaleko bidegorria** laz egindako proiektua da eta 200.000 euro sartu dituzte aurten. Egindako proiektu hori, baina, berrikusi egingo dute, "hobetze aldera". Aurrekontua onartzeaz bat lizitatuko dituzte lanak.



Herriko Plazatik Santa Kurtz kalera igotzeko eskailerak. M.A.

**Arrapala** Herriko Plazatik Santa Kurtz kalera igotzeko, arrapala jarriko dute, eta baita eskailerak ere. Proiektua bukatuta dago dagoeneko eta 71.000 euro aurreikusi dituzte horretarako; lizitazioa ateratzear ditzuten lanak.



# Sexu kontuen gainean berba egiteko zerbitzua

Urtarrilaren 21ean jarriko du abian Udalak Sexu Aholkularitza Zerbitzua. Montse Velasco aretxabaletarra izango da herritarren zerbitzura, hamabostean behin, astelehen arratsaldeetan, Prebentzio Zerbitzuko bulegoan, udaletxe alboko eraikinean

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Udalbatzak abenduan onartutako II. Berdintasun Planean jasotako lez, Sexu Aholkularitza Zerbitzua jarriko du abian urte berriarekin batera. Ongizate Saileko zinegotzi Karmele Uribarri horren helburua azaldu du: "Sexualitatearen inguruko kezka, zailtasun eta beharrei erantzuteko doako zerbitzua izango da". Bakarka, bikoteka zein taldean joan ahal izango dela bertara adierazi du, eta gaineratu: "Topikoetatik, beldur-erretatik eta aurreiritzietatik haragoko mezuak transmitituko dira. Izan ere, sexualitatea bizitzeko dauden modu ezberdinak normaltasun eta errespetuz tratatzea sustatu nahi da". Montse Velasco aretxabaletarra izango da herritarren zerbitzura egongo dena.

## Hilabeteen birritan

Prebentzio Zerbitzuan kokatuko dute bulegoa –udaletxe alboko



Montse Velasco aholkularia eta Karmele Uribarri zinegotzia, bulego aurrean. M.A.

eraikina, liburutegi zaharraren bigarren solairuan, eta, hamabostean behin, astelehenetan, hartuko ditu Velascok herritarrek (16:00-18:00). Hona egutegia: urtarrilak 21; otsailak 4 eta 18; martxoak 4 eta 18; apirilak 1 eta

15; maiatzak 2 eta 20; ekainak 10 eta 24; eta uztailak 8 eta 22. Harremanetan jartzeko, hona hemen bideak: bulegoan; telefonoz: 843 98 52 46 (luzapena: 38); eta posta elektronikoz: [sexologia-aholkularitza@aretxabaleta.eus](mailto:sexologia-aholkularitza@aretxabaleta.eus).

## "Kezka gehienak desirarekin zerikusia dutenak izaten dira"

**MONTSE VELASCO** SEXOLOGOA

Zazpi urte inguru daramatza sexualitate aholkularitza lanetan, eta astelehenetik aurrera bulegoa izango du Aretxabaletan.

**Orain arte ez da egon halako zerbitzurik herrian; zelako harrera espero duzu?**

Ona espero dugu, adin guztietako herritarrei zuzendua dagoelako. Sexologia Aholkularitza Zerbitzuaren bulegora gerturatzeko modu zabala eskaini denez, hau da, bertara etorrita, telefonoz edo posta elektronikoz, erosen sentitu bezala egin daiteke kontsulta.



M.A.

**Zeren gaineiko informazioa eta argibideak emango dituzu?**

Giza gertaera sexualaren inguruan izan daitezkeen zailtasunak edo zalantzak

argitzen saiatuko gara, horretan laguntzen: sexualitatea, erotika, maitasuna, bikotea...

**Urteetako esperientzia duzu; zeintzuk izaten dira ohiko zalantzak?**

Desirarekin erlazioatutakoak izaten dira kezka gehienak. Azken finean, bizitako edozein zailtasun edo zalantzaren aurrean, hori normala den jakin nahi izaten da.

**Orokorrean, zelako profila izaten dute aholku bila doazenek?**

Ez dago profil zehatzik; jaiotzetik hila arte sexualitatea dugu eta zailtasun ezberdinak gerta daitezke bizitzan zehar.

**Euskaldunek lotsa eta tabu asko dituztela esan ohi da; hala da?**

Pentsatzen dena baino gutxiago.



MIRARI ALTUBE

## Korrika batzordea, lanean hasita

Korrika batzordea dagoeneko hasi da lanean; hamabost lagun elkartu ziren eguaztenean; besteak beste, ikastetxeetako ordezkariak, UDAko kideak eta euskalgintzan dihardutenak. 21. Korrikaren etorrera girotzeko ekitaldiak zerrendatu zituzten, eta hamabostean behin elkartzeko asmoa agertu; hurrengo bilera urtarrilaren 30ean da (18:30), udaletxe zaharrean.

## Inprobisazioa eta uneko kontzientzia lantzeko saioak

*Hemen eta orain gorputza bizi-gune eta biziune* ikastaroa antolatuko du Jaiki elkarteak. Hiru saio egingo dituzte, kuartelean (18:30-20:30); lehenengoa urtarrilaren 24an eta hurrengoak datozen hilabeteetan: otsailaren 21ean eta apirilaren 24an.

Saio horiek gidatuko ditu Ignacio Monterubiok, eta dantzari, antzezle, *performer* eta musiki-

karietari bideratutakoa da; bat-bateko inprobisazio eta konposizioa landu gura dutenei, hain zuzen. Antolatzaileek honela laburtu dute ikastaroa: "Momentuko kontzientziak eta presentziak munduarekiko dugun harremana baldintzatzen du. Ez dugu ezer egin behar. Prest egon".

Izena emateko epea zabalik dago: telefonoz, 688 81 96 65; posta elektronikoz: [jaikielkarteak@gmail.com](mailto:jaikielkarteak@gmail.com); eta Facebook bidez. Prezioa da 25 euro langileendako eta 20 euro gainerakoendako.

## Aratusteak iragarriko dituen kartela hautatzeko lehiaketa

Martxoaren 3an ospatuko diren Aratusteei begira, Kartel Lehiaketa deitu du Kultura Sailak. Edonork parte har dezake eta teknika librea izango da. Derri-gorrez, honako testu hau izan beharko du: *Aratusteak, Aretxabaleta 2019*. Eta lanak aurkeztu beharko dira DIN-A3an eta formatu digitalean.

Posta arruntez bidali ahal izango dira, udaletxera, baita posta elektronikoz: [kultura@aretxabaleta.eus](mailto:kultura@aretxabaleta.eus) –gaia: *Aretxabaleta Aratusteak 2019*–; Arkupen ere utz daitezke. Aurkezteko azken eguna otsailaren 14a da eta epai-mahaiak erabakiaren berri otsailaren 18an emango du. Irabazleak 200 euro jasoko ditu.

## Igande arratsaldeetan ere zabalik dago Ibarra kiroldegia

Urtarrilaren 13az geroztik, domeka arratsaldeetan ere zabalik dago kiroldegia; hona ordutegia: 09:00-14:00 eta 16:00-20:00. Arduradunek iragarri dute Aste Santura arte izango dela zabalik, apirilaren 14ra arte. Ordutegia luzatzearen aldeko apustua iaz egin zuen Udalak, herritarren nahiak ase guran, eta hortik dator neguko domeka arratsaldeetan zabaltzearen erabakia. Astelehenetik egubakoitzera, egun guztian dago zabalik (07:00-21:30) eta zapatuetan, goizez (08:30-14:00) eta arratsaldez (16:00-20:00).

Bestetik, urte berrian sartzearrekin batera, kuotek %2,1 egingo dute gora; udalbatzak urrian onartutakoa aplikatuko da.



# "Begirada zabaldu gura dugu lanean jarraitzeko"

**ANE BERAZA** LORAMENDI ELKARTEKO TEKNIKARIA

Urrian hartu zuen Loramendi elkartearen dinamizatzeko ardura eta oso gustura dihardu; Euskaldia ekimenean buru-belarri jardun ostean, Korrikari helduko dio orain

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Kirol eta Jarduera Fisikoan lizentziaduna da Ane Beraza (Arrasate, 1991), eta Kirol Eli-kadura ikasketak egiten dihardu orain. Urriaz geroztik, Loramendi elkartearen teknikaria da. **Aurretik ez zara euskalgintzan jardundakoa; gustura?**

Bai, benetan ere gustura. Loramendiko lanak aukera eman dit beste ikuspegi bat ezagutzeko.

**Eta zelako harrera egin dizute aretxabaletarrek?**

Ona, ona; arrasatearra izanik, jendea aurretik ere ezagutzen nuen eta lankideek asko lagundu didate, elkartearen martxa bizkorrago hartu dut hala.



Ane Beraza bulegoan. MIRARI ALTUBE

**Zein da euskararen egoera herrian?**

Herri euskalduna da eta euskara entzuten da kalean. Beti dau lantzekoak eta hobetzekoak, herri guztietan lez, eta horretarako gabilta lanean, bultzada bat emateko euskarari proiektu ezberdinen bitartez.

**Zerbaitek eman dizu atentzioa?**

Martin Berrizbeitia eta biok egon ginen *Zergatik ez?* saioak lantzen Kurtzebarri eskolan 14 urteko gaztetxoekin, eta, euskara non kokatzen duten galdetuta, erantzun dezente jaso genituen urrun sentitzen dutela ziotenak. Ni harritu egin nintzen, baina hori da errealitatea eta hor eragin behar dugu.

**Euskaraldian jardun duzu lanean; zelako emaitzak lortu dira?**

Parte-hartzeari dagokionez, ona izan da balorazioa, 1.500 txapa baino gehiago banatu ziren eta enpresek eta komertzioek, besteak beste, babesa erakutsi zuten. Bestelako balorazioa? Norberak egin behar du; norberak daki ohiturak aldatu dituen...

**Aurrera begira, non jarri beharko lituzke indarrak euskalgintzak?**

Herriar guztiengana iristen ote garen kezka dugu Loramendin; izan ere, euskaraz bizi garen ikuspuntu horretatik egiten dugu lan guk. Begirada zabaldu gurako genuke, beste egoera batzuk ere badaudelako, entzun egin behar diegu horiei eta non jokatuko beste aukera batzuk topatu. Barriketan eta Auzoko egitasmoen ardura Paloma Martinezek hartu du orain, eta beste bide bat izan daiteke kanpotik etorritakoak gerturatzeko. Herriko benetako errealitatea eza gutuko dugu horrela.

**Korrika dator apirilean...**

Eta zenbat eta herritar gehiagok parte hartu, hobeto, batetik, antolatze-lan handia delako, eta, bestetik, oso polita delako.

## Pikarraituz Asanblada Feministaren aurkezpena gaur

Iaz sortu zuten Pikarraituz Asanblada Feministak aurkezpen ekitaldia egingo du gaur, egubakoitza, Herriko Plazan (19:00). Idoia Asurmendi musikari aramaiorak girotuko du ekitaldi bukaera eta mokadutxo ere eskainiko dutela iragarri dute taldeko kideek. Herriar guztiak gonbidatu dituzte eurekin bat egitera.

## OHARRAK

### Danborrada

Kurtzebarri eskolako ikasleek danborrak astinduko dituzte gaur, egubakoitza, Herriko Plazan (16:00).

### Mendi irteera

Guraso Foroak antolatuta, San Kristobal eta Orixol arteko ibilaldia egingo dute familiarek, domekan. Herriko Plazatik irtengo dira, 09:00etan.

PROIEKTUEN BIDEZKO  
PUBLIKOA IKASKUNTZA  
EUSKALDUNA  
KALITATEZKOA  
ARRETA GOIZTIARRA  
HURBILA INKLUSIBOA

Zaintza zerbitzua ( 2 - 12 urte )

**Bilera informatiboa:**  
Urtarrilaren 24an, 18:00etan

**Matrikulazio epea:**  
Urtarrilaren 28tik Otsailaren 8ra

**Telefona:**  
943 79 00 49

# Bihotzez ikasi

## Kurtzebarri Eskola

Haur eta lehen Hezkuntza  
( 2 - 12 urte )







Oinezkoen eta autoen artean arazoak sortzen diren puntuetako bat, Bidekurutzeta kalean. JOKIN BEREZIARTUA

## Desplazamendu ohiturak aztertzeke lehen urratsa

Mugikortasun plana egiten hasi aurretik, Gobernuak inkestak banatu ditu etxez etxe, 1.500 familia unitateri, "ahalik eta diagnostiko osatuena" lortzeko; oposizioak adierazi du "behin eta berriz" eskatu dutela plan hori garatzea, eta "beranduegi" datorrela

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Etorkizunean Bergarak izango duen mugikortasun plana idazten hasi aurretik, diagnostikoa egiten dabil Udala, Leber enpresaren laguntzarekin. Eta, horren barruan, bergararren beharren informazio osatuagoa izateko, inkesta bat bidali dute, gutun bidez, 1.500 familia unitatetara. "Oso inportantea da herritarren ohiturak interpretatu ahal izateko datuak jasotzea. Horregatik eskatzen diegu, mesedez, inkesta jaso dutenek bete dezatela", adierazi zuen Elena Lete alkateak martitzenean egindako agerraldian. Orduan aurreratu zuten, gainera, inkesta betetzen dutenen artean herriko saltokietan trukatzeke 150 euroko bi erosketabonu zozketatuko dituztela.

**Orekatua eta parekidea**

Gobernuak azaldu duenez, bereziki zaindu dute 1.500 familia unitateak ahalik eta esanguratsuenak izatea: "Inkestotan bilatu dugu gizartearen arlo eta

geruza ezberdinak ondo islatuta egotea; orekatua da adin tarteari eta beste ezaugarri batzuei dagokienez, eta baita parekidea ere. Auzo guztietan zabaldu dugu", gaineratu du Letek.

**Saio irekia herritarrekin**

Inkestaren bidez martxan jarriko den prozesua, baina, ez da informazioa jasotzeko diagnostikoarekin amaituko. Izan ere, emaitzak jasotakoan, herritarrentzako saio irekia egingo dute horien guztien berri emateko: "Ze datu jaso ditugun eta horiek nola interpretatu ditugun kontatuko diegu herritarrei, modu irekian. Mugikortasun planaren oinarria diagnostikoa da; beraz, zenbat eta diagnostiko hobea egin, plana orduan eta osatuagoa izango da". Gobernuak erantzun gura dituen galderen artean, honako hauek daude, besteak beste: *Nola bizi dugu mugikortasuna Bergaran?, Zerk funtzionatzen du ondo?, Zein gabezia daude?...*

Hala, aztertu gura dituzte aparkalekurako beharrak, bergararren zein bisitarien desplazamendu ohiturak, bidegorrien erabilera eta oinezkoen esparruak eta beharrak.

Diagnostiko hori bi edo hiru hilabetetan bukatuta egoteko aurreikuspena du Gobernuak, eta ondoren hasiko dira mugikortasun planaren idazketa prozesuarekin.

**Oposizioaren ustez, berandu**

Mugikortasunaren gaia, modu batera edo bestera, behin baino gehiagotan irten da osoko bilkuretako eztabaidetan. EH Bilduk eta Irabazik Udal Gobernuari eskatu izan diote plan hori berandu baino lehen mar-


**INKESTAK ASTEON BANATU DIRA; BI EDO HIRU HILABETE BARRU DIAGNOSTIKOA IZATEA DA AURREIKUSPENA**

### Anonimoa eta konfidentziala

Galdetegietako erantzunak anonimoak eta guztiz konfidentzialak dira eta diagnostiko horretarako bakarrik erabiliko dira. Harremanetarako telefonoa 150 euroko bi bonuren zozketan parte hartzeko bakarrik eskatu dute. Azken lanegunean egindako bidaia —etxea izandako jatorria— dira apuntatu behar direnak; gehienez, etxe bereko lau lagunek erantzun ahaliko dute eta haietako bakoitzak, gehienez, hiru bidaia adierazi ahaliko ditu. Zalantzak argitzeko: 94 464 33 55 (Leber enpresa).

txan jartzea "beharrezkoa" dela. Horregatik, bi taldeak bat datoz plana abiarazteko diagnostikoa "beranduegi" datorrela esatera. "Oso berandu dator Gobernuaren partetik mugikortasun plana abiatzeko erabakia. Behin eta berriz eskatu izan dugu, foro ezberdinetan, alde aurretik gauzatu diren ekimenek mugikortasun plan baten beharra zutela osatzeko —TAO, oraindik ere zabaltzen ari den bidegorri sarea, Eskolara Oinez egitasmoa, aparkaleku beharrraren gainera azterketa...—. Baina hiru urte eta erdi itxaron behar izan dugu lehen pausoa eman dadin. Berandu bada ere, plana garatu behar dela sinistuta gaude", adierazi du EH Bilduko Gorka Artolak.

Irabaziko Aiert Lizarralde, gainera, kutsu elektoralista ikusten dio erabakiari: "Ez dakigu ezer galdetegiaz. Parkinga Algodoneran egitea proposatu genien eta erdigunean egitea erabaki dute; beraz, galdetegi berandu dator. Garbi dago galdetegiak bakarrik helburu elektoralak daukala. Bergara hiri bizigarria izateko, erdigunean, oinezkoiei, bizikletei eta garraio publikoari espazio gehiago eman behar zaio eta ez kotxearendako aparkalekuei. Hemendik aurrerako ia guztia partxeak izango dira. Gobernuak jarrera honekin hauteskundeak galtzeari dion beldurra erakusten du bakarrik; hautesleen esklabo bihurtu dira".



Gabonetako argiak Barrenkalean. O.E.

### Gabonetako argiak piztuta, gutxieneko argitasuna mantentzeko

Erdiguneko kale batzuk bereziki ilun daudenez eta led berriak jarri artean, Gabonetako argiak piztuta mantenduko ditu Udalak; aste honetan, gutxieneko argitasuna bermatzeko, argi horiek piztuta egongo dira Barrenkalea, Artekalea, Bidekurutzeta eta San Pedro kaleetan. Kale horietan led berriak jartzeaz Tecuni enpresa arduratuko da, eta las-ter hasiko dira lanean.

### OHARRAK

#### Pentsionistak, Bilbora

Erretiratuek eta pentsionistek deituta bihar Bilbon egingo den manifestaziorako izena eman behar da San Joxepe elkartearen: 630 74 81 95.

#### Pol-Pol gazteak

Urteko lehen irteera egingo dute Osintxu, Irukurutzeta eta Bergara artean, bihar; Ibargaraiko geltokitik irtengo dira, 08:00etan. Gaur da izena emateko azken eguna.

#### Maravillas gaztetxea

Bihar Iruñean egingo den manifestaziorako autobusa 11:00etan irtengo da. Izenematea, ohiko lekuetan.

#### Aranzadirekin lilatoira

Martxoaren 10ean Donostian egingo den lilatoian parte hartzeko deialdi irekia egin du Aranzadik; [www.lilaton.es/eu](http://www.lilaton.es/eu) webgunean sartu eta *Taldea* jartzen duen eremuan, *Aranzadi Ikastola* idatzi behar da. Otsailaren 26a baino lehen egin behar da eskaera.



# Xaxauk "haize freskoa" behar du bizirik irauteko

Pentekosteak antolatzeke inoiz baino gutxiago direla ikusita, Xaxauk jende berria – gazteak, bereziki– erakartzeko "SOS mezua" bidali du: "Lanerako gertu egongo den jendea behar dugu; gaur egun garenokin ezingo ditugu jaiak antolatu"

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Lekutan daude Pentekosteak, ekainaren 8an hasiko dira-eta aurten, ohi baino beranduago. Hala ere, Xaxau jai herrikoien konpartsa urtarrilean –batzuetan, abendu amaieran ere bai– hasten da herriko jai nagusiak antolatzen. Aurten, baina, mezu gordin batekin zuzendu zatzaizkie bergararrei: "Azken urteotan, antolakuntza lanetarako jendea uzten joan da eta ez da berririk etorri. Gaur egun garenokin ezingo ditugu jaiak antolatu".

**"Hasiak gaude erretzen"**

Xaxauko kide Iosu Agirrek argi azaldu du zein den arazoa: "Azken urteotan, jende berbera ari gara lanean, eta hasiak gaude erretzen. San Martin jaiak oso jende gutxiren artean atera genituen, eta, gaur-gaurkoz, egoera oso antzekoa edo okerragoa dela ikusita, SOS mezu bat ireki nahi izan dugu. Jende berria behar dugu; bereziki, belaunaldi berriak. Haize freskoa behar dugu, ezinbestean".

Bilera atzo egin zuten, baina, ordurako albiste honen erredakzioa itxita zegoenez, ezin da zehaztu zenbat lagun batu ziren.

**Tenperatura hartzeko bilera**

Izan ere, Agirreren ustez, "oso garrantzitsua" zen atzoko bileta horretara gerturatzen zen jende kopurua eta haien inplikazio maila zein izango zen jakitea, aurrera begira zer egin erabakitzeke: "Lanerako gertu dagoen jende berria behar dugu, ideia berriak ekarriko dituen eta konpromiso maila minimo batekin etorriko dena. Hileta moduan aurkeztu dugu, Xaxauren egoera larria delako. Bilerara etor dadila jendea, zenbat garen ikusteko".

**2009AN SORTU ZEN XAXAU, "HAMAIIKA ELKARTE ETA MUGIMENDUREN BILGUNE" IZATEKO**

**Eskela bidez deitutako batzarra**

Bilerarako deialdian agerikoa da Xaxauk bizi duen egoera larria, eta, eskela itxurako kartelean ikusten denez, jendea falta zaie, baina irudimenik ez. Honela dio kartelak, besteak beste: *Jaixetako agur bilera, Xaxau hiltzorian. Bergaran hilko da, 2019ko ekainaren 8an, 10 urte dituela [...]. Bere emaztea: Herria; gizona: Bergarako Udala; maitaleak: nork daki; seme-alabak: onartuak eta ez-onartuak; bilobak: kontaezinak; anai-arrebak: Martxanterak, Txapa irratia, Kopla Barik bertso eskola, BET eta JAU! (Haur eta guraso asanblada). [...]* *Familiak Bergarako herrigintzan partaide izan eta izan ez diren norbanako, kolektibo eta pertsonaien bisitak eskertzen ditu.*

2009an sortu zen konpartsa, "Bergarako hamaika elkarte eta mugimenduren bilgune" izateko bokazioarekin. Jaietarako "egitarau alternatibo bat" eskaintzeaz gain, urtean zehar beste ekimen txiki batzuk ere gauzatu dituzte.



NIRE USTEZ

MIGUEL LAZPIUR

## Nola lortu nahi dugun parekotasuna

Desparekotasun sozialaren arazoa aztertzen duen artikulu batek ondorioztatu du kezkarria dena pobrezia desagerraraztea dela, eta ez desparekotasuna. Oso logikoa da, arrazoi hauengatik: parekotasunari buruz hitz egiten ari gara, baina parekotasuna, pobrezian? Euskaldunoi hori ez zaigu interesatzen; Hego Amerikako herrialdeetan nahiko adibide ditugu. Europako iparraldean, berriz, beste adibide batzuk ditugu, kontrakoak, non parekotasuna bilatzen ari diren aberastasunean; azken hori interesatzen zaigu: herrialde aberats bat sortzea, ezberdintasunak izan ditzakeena; baina beharrezkoa da horiek zehaztea eta neurriak hartzea aurrera egiteko.

Euskadin ondo ari da lanean, baina ez da nahikoa; lana gure herriaren balio positibotzat jo behar dugu. Aberastasuna nola lor daitekeen pentsatu behar dugu, ikuspegi sozial komunarekin eta konpromiso kolektiboarekin. Ez zaigu interesatzen pobreen herri berdinzale bat; denok nahi dugu herritar aberatsentzako herri berdinzale bat. Hori uste dut nik, behintzat.

Guk gure lanaren bidez egin dezakegu, beti egin izan dugu.

## 36ko gerran hildakoak gogoratu gura dituen erakusketa Aroztegin

'Berririo Inoiz ez! Gerrako irudiak, 1936-1939' du izenburu eta gaur inauguratuko da; otsailaren 10era arte izango da

**J.B. BERGARA**

Gaur inauguratuko da, Aroztegin (19:00), *Berririo Inoiz ez! Gerrako irudiak, 1936-1939* erakusketa. Sabino Arana fundazioaren eskutik, otsailaren 10era arte egongo da ikusgai. Oroimen historikoa berreskuratu eta 36ko gerran bizitza galdu zutenak aitortu gura ditu: "40 urtetan ondorioak benetan dramatikoak izan ziren gure herriarentzat: hilketak, erbestealdia, kartzelaratzeak, fusilamenduak... Urte erabakigarri haietan gertatu zenaren eta gertakarietan

harrapaturik geratu ziren gizonak eta emakumeek sentitu zutenaren gaineko erakusketa hurbila eta bizia da. Ez du epaitzeko asmorik, alde batean zein bestean gertatu zena aurkeztu baino ez du egiten".

Bi hitzaldi antolatu dituzte: batetik, Iñaki Goioanak *Memoria eta historia* izenburu duen saioa emango du hilaren 22an (19:00). Otsailaren 5ean, berriz, Lourdes Herrastik *Oroimenaren inguruan* izeneko hitzaldia egingo du, 19:00etan. Bi hitzaldiak Aroztegin izango dira.

## OHARRAK

### Realzaleak: txotx!

Urtarrilaren 27ko Huescaren kontrako partiduauren aurretik sagardotegira joango dira. Izena eman behar da hilaren 25a baino lehen: lagunarteko bazkideek 20 euro ordainduko dute; gainerakoek, 40 euro.

### Udala: kobrantza

Zaborraren, estolderiaren eta uraren agiriak ordaindu daitezke, martxoaren 11ra arte.



Hainbat lagun, gaupasa eginda, Xaxauk kudeatzen duen Bideberriko txosnagunean, 2017ko jaietan. XAXAU JAI HERRIKOIEK KONPARTSA

**disdira**  
ile-apaindegia  
edertze gela

Masterreka 7  
BERGARA  
Tel.: 943 76 00 55





Gelditzeke kirol orientazio zerbitzuaren gaineko aurkezpenean batutakoak. TXOMIN MADINA

## Aholkua eta jarraipena Gelditzeke zerbitzuarekin

Bizi kalitatea hobetu eta gizarteratzen laguntzeko, Gelditzeke kirol orientazio zerbitzua gehiago osatu du Bergarako Udalak, hainbat erakunderekin elkarlanean. Zerbitzuaren asmoa herritar aktiboen kopurua handitzea izango da

**Imanol Beloki** BERGARA

Herri aktiboagoa egiteko, Bergarako Udalak, hainbat erakunderekin elkarlanean Mugiment programaren baitan, Gelditzeke izeneko kirol orientazio zerbitzua are eta gehiago osatu du. Eusko Jaurlaritzako, Gipuzkoako Foru Aldundiko, Osasun Saileko eta Bergarako Udaleko ordezkariak batu ziren martitzenean, zerbitzuaren nondik norakoak aurkezteko: Mugiment ekimeneko Malen Ruiz de Azua, Osasun Publikoko Arantxa Uranga, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuko Iñaki Iturrioz, Debagoieneko ESIko Ana Bustindui, Udaleko Kirol Zerbitzuko Ion Larrañaga eta Bergarako alkate Elena Lete. Guztien artean elkarlanean jarri dute martxan geldiezina den Gelditzeke kirol orientazio zerbitzua.

### Aholkua eta jarraipena

Gauza jakina da kirolak osasunean onerako eragiten duela, eta baita sozializatzeko ere erremi-

ta oso aproposa dela. Hala, osasun zerbitzu publikotik zein Udaleko Gizarte Zerbitzuetatik deribatuta, herritarrek beren kabuz aukera izango dute zer kirol, zelan eta zeinekin praktikatu aholkua eta jarraipena jasotzeko. Honela adierazi zuten martitzenean egindako aurkezpenean: "Udalaren kirol arloko 2018-2021eko Plan Estrategikoak herritar aktiboen kopurua handitzea du zutabetzat, eta, ahalegin horretan, bergararek erraztasuna eskaini nahi die. Bestalde, Udala konbentzitututa dago kirola integrazio tresna zoragarria dela, herritar guztiek aukera baitute doan ematen den Kirol Orientabide Zerbitzua (KOZ) erabiltzeko, jarduera fisikoaren inguruko ahol-

**HERRIA AKTIBOAGO ETA BIZIAGO EGITEKO, KIROL ORIENTAZIO ZERBITZUA AURKEZTU DUTE**

kua eta orientazioa emanda, bizitza-estilo aktibo eta osasungarria bultzatzeko helburuarekin. Horretarako, Jarduera Fisikoan eta Kirolaren Zientzietan Lizenziatua den aditu batek herrian diren baliabide eta aukera desberdinei buruzko informazioa eta orientabideak emango ditu, pertsona bakoitzaren egoera fisikoa, beharrak, baliabideak eta lehentasunak kontuan hartuta".

### Egitasmoa, elkarlanean

Orain arte, zerbitzu horren erabiltzaile gehienak euren kabuz joandako herritarrek izan dira, baina, hurrengo astetik aurrera, herriko osasun etxetik eta Debagoieneko Ospitaletik ere bideratuko dituzte erabiltzaileak Gelditzeke kirol orientazio zerbitzura.

Zerbitzu horren beharra izan dezaketen pertsonak identifikatuta, herriko jarduera fisikoaren inguruan eskaintzen duena ezagutzera ematea izango da zerbitzuaren helburua.

## Askotariko eragileak batuta, lanean ari da Korrika Batzordea

Lehenengo bilera aste honetan eginda, bigarrenarako deialdia egin dute otsailaren 5erako

**I.B BERGARA**

Udaberrian zeharkatuko ditu Korrikak Euskal Herri osoko bideak eta errepideak, apirilaren 4tik apirilaren 14ra bitartean, Garestik Gasteizera, eta Bergaratik apirilaren 13an, zapatuan, pasako da, 13:57 aldera. Horrekin batera, Bergarak egin du lehenengo Korrika Batzordea, egunerako egitaraua prestatzeko eta, bide batez, Korrikaren nondik norakoak azaltzeko.

Urtarrilaren 15ean egin zuten lehenengo bilera, eta elkarte eta eragile hauetako ordezkariak izan ziren bertan: Mariaren Lagundia, Erraldoi taldea, San Martin Agirre eskola, Osintxuko Kultura taldea, Aranzadi ikastola, Jardun Euskara Elkartea, Angiozar eskola, BKE eskubaloia, Bergarako Musika Eskola, Aspace eta Udala.

### Klika! egitea mintzagai

Lehenbizi, Korrikaren mezua azaldu zieten Korrika Batzordean parte hartu zuten eragileei, hau da: *Euskarak hurrengo fasea klikatu du: akzioarena, konpromisoarena; euskara unibertsal bihurtuko dugu, eta klik egingen du denon zeruan. Euskal Herriak hartu du euskararekiko kontzientzia, sortu du euskal komunitatea. Euskararen aroan gaude; orain da unea: etorri euskarara, aktibatu, erabakiak hartu, klik egin, euskaraz egin.*

Horrekin batera, Korrikako edizio guztietan egin moduan, omendu bat izango da, eta hori

ere izan zuten berba. 21. edizioan, kulturen eta euskalgintzan egindako ekarpenagatik omenduko dute Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegi; horretaz ere aritu ziren hitz egiten.

### Laguntzaile izateko jarraibideak

Korrikan parte hartzeko moduak askotarikoak direla adierazi zuten, eta, Korrika den bezalakoa izateko, korrika laguntzailearen figura ere ezinbestekoa dela nabarmendu zuten lehen bileran. Hala, Korrika Laguntzaile izatea zer den azaldu zuten -12 euroren truke, edizio honetako pina, txartela eta hori erabiltzeko deskontuen katalogoa lortu daiteke; hala, Korrika laguntzailea bihurtuta. Horren bueltan, azalpenak eman zituzten, eta Korrika Laguntzaileak bilatzeko, batzordeko eragileek beraien zirkuluetan zabalkundea egiteko eskaera egin zuten.

### Bigarren bilera, otsailaren 5ean

Amaitzeko, Korrika Batzordearen bigarren bilerarako deialdia egin zuten batzordekideek. Otsailaren 5ean izango da, 19:00etan, Bergarako udaletxeko Hirigintza gelan, eta herriko eragile, elkarte eta norbanakoei bertaratzeko dei egin zieten.

Korrikaren 21. edizioaren nondik norakoak eta Bergaran egingo direnak ezagutzeko aukera izango dute bertaratzeko direnak, eta, horrela nahi izanez gero, herrirako bestelako ekitaldiak proposatzeko aukera izango dute herritarrek.



Bergarako Korrika Batzordea lehen bileran. KORRIKA DEBAGOIENA





Ander Etxaniz, abenduan, Udal Pilotalekuan. IMANOL SORIANO

# Etxeko pilotariak ere izango dira 4 t'erdikoan

Bederatzigarren aldiz egingo dute Soraluzeko lau t'erdi pilota txapelketa. Urtarrilaren 29an hasiko dituzte partiduak, eta zuzendaritzaren nahia izan da etxekoei ere lekua egitea. Elkarteko bi pilotari arituko dira: Ander Etxaniz eta Ander Murua

**Arantzazu Ezkibel Galdos** BERGARA  
Urtarrilaren 29an hasiko dute Soraluzeko lau t'erdiko pilota txapelketa. Aurtengoa bederatzigarren aldia izango da kaio-lako txapelketa antolatuko dutena. Zuzendaritza berriak orain arteko eredu berarekin jarraitzea erabaki du; aurreko zuzendaritzak hasitako bidearekin, alegia. "Afizionatu mailan aurrean dabilen pilotariak ekartzen saiatu gara; baina, horrez gain, etxekoei ere lekua egin nahi izaten diegu", azaldu du zuzendaritza taldeko Julen Aranburuk. Hala, aurtan, Bergara pilota elkarteko bi pilotari izango dira txapelketan: Ander Murua arrasatearra eta Ander Etxaniz bergarra.

Ander Etxanizek bigarren jardunaldian jokatu du: otsailaren 5ean. "Gazte mailako pilotaria da, baina pilotan asko egiten duena. Aukera eman nahi izan diogu promes mailan jokatzeko", dio zuzendaritza taldeko Aranburuk. Ander Ruiz de La-

rramendiren aurka jokatu behar du bergararrak.

Txapelketan jardungo duen beste taldekidea Ander Murua arrasatearra izango da; horrek ere promes mailan jokatu du: "Promes mailan DV txapelketa irabaztetik dator; gantxo ona duen pilotaria da", dio Aranburuk. Muruak hirugarren jardunaldian egingo du debuta, otsailaren 12an, Josu Olaetxearen aurka.

## Aurrean dabilen pilotariak

Maila handiko pilotariak ekarri dituzte txapelketara, zaleak erakarriko dituztenak. "Afizionatu mailan aurrean dabilenak ekartzen saiatu gara. Bat baino gehiago nabarmenduko da, bai-

**AFIZIONATU MAILAN  
AURREAN  
DABILTZANAK EKARRI  
DITUZTE; PILOTARI  
ONAK ETORRIKO DIRA**

na, izenen bat ematearren, Egi-gurenak nagusitasuna erakutsiko duela uste dut; horrez gain, Salaberria bera, Lerena... badaude beste txapelketa batzuk irabaztetik datozen pilotariak", dio Aranburuk. Beste txapelketa batzuetan goian ibili diren pilotariak ikusteko aukera egongo da frontoian: "Uste dugu oso kartel ona osatu dugula, eta espero dugu aurreikusitako moduan joatea dena eta ordezkapen gutxi egin beharra izatea", nabarmendu du.

## Txapelketa asko dituzte

Gaineratu du txapelketa asko antolatzen direla eta txapelketa gehienetan aurrean dabilen pilotariak etorriko direla: "Beste partidu batzuetarako zaindu beharagatik, eskuengatik, ikasketak direla... beti egoten dira ordezkapenen batzuk egin beharra", dio Aranburuk.

Partiduak martitzenetan izango dira, 19:30ean. Martxoaren 12an izango dira finalak.

## Lehen itzuliko azken partidua izango dute mahoneroek

Urnietaren aurka jokatu du Soraluce Bergarak; 9 puntu ditu etxeko taldeak eta Urnietak, 13

### A.E. BERGARA

Eskubaloiaz gozatzeko aukera ona izango da aste bukaera. Sei partidu jokatu dituzte Labegaraletan. Horien artean nabarmenezkoa da, gizonezkoetan, territorial mailako taldeak jokatu duen lehia.

Lehen Territorialeko taldeak bihar, zapatua, jokatu du, 18:45ean. "Txapelketako lehen itzuliko azken lehia izango da", azaldu du Josetxo Muniategi. Hori horrela, Urnietaren aurkako lehia "oso garrantzitsua" izango dela nabarmendu du. Aurrean izango duten taldeari dagokionez, zera dio: "Urnietak laugarren sailkatuta dagoen taldea da, 13 punturekin, talde beteteranoa da eta esperientziadun jokalariek ditu". Joan zen asteleko partidua irabazi egin zuten mahoneroek: Zumaiaren aurka 21-27 nagusitu ziren.



Bergararra, erasoan. ARTXIBOA

### Gainontzeko partiduak

Norgehiagokak: zapatuan, 13:00etan, infantilak; zapatuan, 15:30ean, gazte mailako mutilak; zapatuan, 17:00etan, gazte mailako neskek; domekan, 10:45ean, alebin mailako neskek; eta domekan, 12:15ean, kadete mutilak.

## Hockey partiduak jokatu dituzte Labegaraletan

Burdinaola elkartek hainbat lehia jokatu ditu domekan Labegaraletan. 16:00etan, Benjamin mailako lehia izango da: Burdinaola A-k Burdinaola B-ren aurka jokatu du; 17:15ean, alebinen txanda izango da, Burdinaola C-k Burdinaola D-ren aurka jokatu du; eta 18:30ean, infantiletan, Burdinaola E-k Burdinaola F hartuko du.



Hockey jokalaria, jokoan. ARTXIBOA

## Sailkapeneko bigarrenaren aurka jokatu du Bergarak

Saskibaloian, Bergara Soraluce taldeak ez du partidu samurra izango. Gipuzkoako bigarren mailan jokatu duen gizonezkoen taldeak Ordiziaren aurka jokatu du bihar, zapatua, 16:00etan, Labegaraletan.

Ordizia txapelketa txukuna egiten ari da; sailkapenari begira jarrita, bigarren postuan daude, 22 punturekin -bederatz

partidu irabazi dituzte-. Etxeko taldea, aldiz, sailkapenean atzerago dago: 10. postuan daude, baina hiru puntuko alde besterik ez dute bi taldeek.

Biharko partidua garrantzitsua izango da mahoneroendako, sailkapeneko beheko aldetik ihes egin eta gora begira jartzeko aukera izan dezaten. Orain jokatu duten partidua bigarren itzuliko lehenengo lehia izango da. Joaneko partiduan, Ordiziak 48-43 irabazi zion Bergara Soralucei.

# "Errusiarrei eskainitako kontzertua izango da"

**JOSE MIGEL LASKURAIN** ORKESTRA ZUZENDARIA

Bielorrusiarako bidea hartu aurretik elkarrizketatu du GOIENAK Laskurain zuzendaria; izan ere, hango irrati telebistako orkestra sinfonikoa zuzenduko du, martitzenean

**Arantzazu Ezkibel Galdos** BERGARA  
Bergarako txistulari bandaren zuzendariak Bielorrusiara bidaiatu zuen atzo, orkestra sinfonikoa zuzentzeko asmoarekin. Erronka handia dela dio; izan ere, musikari profesionalekin lan egingo du han.

**Bielorrusiara joago zara. Zertara, zehazki?**

Bielorrusiako irrati telebistako orkestra sinfonikoko zuzendaritzak egin dit gonbidapena hilaren 22an kontzertu bat zuzentzeko. Astelehenera arte entseguak egingo ditugu eta martitzenean izango da emanaldia. Kontzertua musikari errusiarrei eskainia izango da.

**Nola iritsi zaizu aukera hori?**

Horrelako aukerak ezagunen bitartez iristen dira, normalean. Irrati telebistako orkestra sinfonikoko zuzendaria nire ezaguna da; eta zuzendari gonbidatu moduan joateko gonbidapena egin zidan Bielorrusiako Gobernuaren bitartez.

**Txistularien bandako zuzendari moduan ezagutzen zaitugun arren, oraingoan, orkestra bat zuzenduko duzu.**

Bai; orkestra sinfoniko bat da, eta, gainera, profesionala. Bergarako Musika Eskolako orkestrako zuzendaria naiz; baina esan behar da 40 umeko orkestra bat dela hori. Hau, aldiz, orkestra profesional bat da; musikariak musika jotzera bakarrik dedikatzen dira. Hortaz, bataren eta bestearen mailek ez dute zerikusirik.

**Nolako kontzertua izango da martitzenean eskainiko duzue?**

Musikari errusiarrei eskainitako emanaldia izango da: Txai-kovski, Xostakovitx, Borodin... denak errusiarrak izango dira. Eurek oso argi dute musika estilo hori, arazoa gu izango gara! Izan ere, hemen ez gaude ohituta musika estilo horretara. Gonbidatu moduan noa, eta asko ikasi eta prestatu dut emanaldia.



Jose Migel Laskurain, udaletxeko osoko bilkuren aretoan. AITOR AGIRIANO

## "ZUZENDARI LANAK EGINGO DITUDAN ARREN, NIRETZAKO, IKASTEKO AUKERA IZANGO DA"

Zuzendari lanak egingo ditudan arren, niretzako, ikasteko aukera ere izango da.

**Erronka polita izango da, ezta?**

Bai, oso-oso polita. Gainera, 2019a hasteko modu ezin hobe da hau. Urtea ondo amaitu dugu, *Alizia* musikala Baluartean eta Euskaldunak eskainita. Hortaz, orain, beste erronka bat dut aurrean.

**Ohikoa izaten da horrelako gonbidapenak jasotzea?**

Bai; egin izan ditut, baina beste era batera. Nik bi lizentziatura ditut: bata bandako zuzendariarena eta bestea orkestra zuzendariarena. Ohikoena izaten da horrelako elkarrizketak bandako zuzendariarekin egitea; zailagoa da orkestrakoekin egitea. Orain arte ez dudana egin izan da atzerri joatea; oraingoan, joango naiz, nora eta Bielorrusiara, gainera. Uste dut etorkizunean

ere izango dudala horrelako beste elkarrizketak egiteko aukera.

**Badakizu orkestrako musikariak nortzuk izango diren, edo nongoak diren?**

Ez, ideiarik ere ez dut. Uste dut gehienak Bielorrusiakoak izango direla, baina, Euskadiko Orkestrarekin gertatzen den moduan, han ere egongo dira atzerriarrak.

**Han zauden bitartean, zer egingo duzu? Ikusiko duzu beste emanaldiren bat?**

Horrelako zerbait egitera goazenean, ia denbora guztia entseguetan pasatzen dugu. Goizetan entseguak izango ditut eta arratsaldeetan hotelean egongo naiz. Ingurua ezagutuko dut, batez ere, burua argitzeko. Kasu honetan, baina, hango zuzendari laguna dudanez, egingo dugu zerbait: ballet bat ikusteko asmoa dugu. Hala ere, esan didate arratsaldeko lauretan iluntzen duela; hortaz, ez dut uste kalean asko ibiliko garenik. Gainera, zero azpitik 10 gradu egiten duela esan didate. Beroki on bat eraman beharko dut!

**Zorte on!**

Eskerrik asko zuei!



Nomadak taldea, Aramaion. ARTXIBOKO IRUDIA

## Kutsu elektronikodun doinuak entzungai, Seminarixoan

Nomadak eta Kometa taldeek emanaldia eskainiko dute gaur, egubakoitza, 22:00etan, 8 euroren truke

**A.E. BERGARA**

Rocka, elektronika, trikitia... musika doinu horiek entzuteko aukera egongo da gaur, Seminarixoan. Aipatutako doinuak ez dira ohikoak areto berrian; hori horrela, aukera ona izango da gaurkoa horrelako musika maite dutenentako.

Bi talde igoko dira oholtzara: Nomadak eta Kometa. Etxekoak lehenak, nafarrak besteak.

**Nafarrek hirugarren lana**

Kometa taldeak hasiko du kontzertua. Vianako musikariak ezagun egin ziren 2014an, *Momentuaren zain* abestiarekin Gaztea-ko maketa lehiaketako entzuleen saria irabazita. Smoking Hill taldearen errautsetatik sortutako taldea da Kometa. Hasierako hirukote hari Mattin Saldias gitarra-jolea gehitu zitzaion; hala, gaur, laukote moduan etorriko dira Seminarixo-

ra. *El principio del final* hirugarren diskoa aurkeztuko dute vianarrek.

**Etxekoendako, "berezia"**

Bestalde, Durangon diskoa aurkeztu ondoren egingo duten lehenengo emanaldia izango da Nomadak taldearendako. "Elektronika eta rock doinuak nagusitu diren lana da, trikitiak pisua galdu du", azaldu du Aritz Alustizak; hamar abestiz osatutako lana aurkeztuko dute.

Alustizak azaldu du herritarren aurrean jotzea "berezia" izaten dela, "beldur puntua" ematen duelako, baina, era berean, "gogotsu" daudela. *Hasieratik+* da Nomadak taldearen diskoaren izena, iaz udazkenean egindako biraren esperientzia jasotzen duena.

Emanaldia 22:00etan hasiko da eta sarrerak leihatilan eros daitezke, 8 euroren truke.


## San Martin plazan egin zuten emanaldia doan eskura daiteke

Bergararen 750. urteurrenaren harira egindako "ikuskizun erraldoia" jasotzen duen DVDa argitaratu du Udalak. Irailean egindako emanaldia ETBk grabatu zuen; orain, Udalak 2.000 kopia argitaratu ditu. Eguaztenaz geroztik, Udal Liburutegian eskuratu daiteke, doan. Bergarako elkarteek, taldeek eta herritarrek parte hartu zuten.

## Oraindik geratzen dira 'Go!azen 5.0' ikusteko sarrerak

Seminarixoan eskainiko dute ikuskizuna, otsailaren 2an eta 3an; eta, edukiera muga ikusita, lau emanaldi egingo dituzte: otsailaren 2an 17:00etan eta 19:00etan eta otsailaren 3an 12:00etan eta 17:00etan. Oraindik geratzen dira sarrerak lau emanaldi horiek ikusteko: <https://tickets.kutxabank.es> atarian eros daitezke sarrerak.





# goiena

**Eskerrik asko Goiena goienean egoten laguntzarren.**

Goienako hedabideek gora egin dute 2018an:

**Goiena telebista + %16**

7.000 ikus-entzule ditu egunero\*

**Goiena.eus + %19**

8.000 bisita egunero\*\*

**Goiena aldizkaria + %16**

43.000 irakurle astero\*

\*CIES 2018 \*\*GOOGLE ANALYTICS

# goiena

Zu hemen zaude.



lazko elkarretaratzean, Herriko Plaza more kolorez jantzita. ANDRAMANUELAK

# Emakumeek greba eginez gero, herria geldi

Emakumeek greba egin eta geratuz gero herria bera ere geratu egingo litzatekeela azaleratu gura du Martxoaren 8ko greba antolatzen diharduen emakume taldeak. Informazioa zabaltzeko asmoz, gutunak banatu dituzte herriko ordezkarien artean

## Maidar Arregi ANTZUOLA

Martxoaren 8aren baitan greba antolatzeko lanean dihardu sortu berri den Antzuolako emakume plataformak. Dagoeneko lehen batzarrak egiteko elkartu dira, eta, talde eragileak azaldu duenez, orain, helburua da antzuolarrei grebaren gaineko informazioa eskaintzea: "Martxoaren 8ko emakumeon greba orokorraren planteamendua eginda dago; hori aurreikusita, gure asmoa da gure herriko dendariekin, lantokietako eta langileen ordezkariarekin, hezkuntza arloarekin eta guraso elkarteekin, besteak beste, harremanetan jartzea. Zertarako? Bada, grebaren gaineko informazioa emateko, hain justu ere".

Emakume taldeak, baina, bakoitzaren esku utzi gura du erabakia; bakoitzak bere ondorioak ateratzea sustatzea, alegia: "Informazioa banatu ondoren, baina, greba egin edo ez erabakitzea euren esku utziko dugu; antzuolarrena izango da eraba-

kia; guk hausnarketa egitera gonbidatu gura ditugu soilik herriko emakumeak".

Emakumeak geratuz gero, hau da, greba eginez gero, herria ere geratu egingo litzatekeela bistaratu gura dute: "Bai zaintzaren esparrua, bai enpleguarena edo kontsumoarena ere gelditu egingo litzatekeela nabarmendu gura dugu. Herriko dendak, adibidez, emakumeen sektore dira. Horiek greba eginez gero, zer gertatuko litzateke? Hori irudikatu gura dugu Antzuolan".

## Gutuna eragileei

Asteon, gutunak bidali dizkiete aipatutako herriko ordezkari eta eragileei, lehenbailehen harremanetan jartzeko.

**"GREBA EGIN EDO EZ NORBERAREN HAUTUA IZANGO DA; GUK INFORMATU EGINGO DUGU SOILIK"**

"Gutunaren erantzuna, atxikimendua, zein izango den jakitean, lehentasunak markatuko ditugu elkarrekin", azaldu dute.

## Emakumeen soldatak

Emakumeek askoz ere gutxiago irabazten dutela ere salatu gura dute: "Soldaten esparruan, arrakala handia dago. Ia %30ekoa da arrakala hori. Sektore ezberdinei hausnarketa eskatu gura diegu honen gainean. Eta gutuneari hori ere adierazi dugu".

## Batzarra urtarrilaren 25ean

Herriko adin eta belaunaldi guztietako emakumeen bilgune zabala lortu gura dutela azaldu dute plataformako kideek. Batzarra hilaren 25ean, egubakoitzaz, egingo dute, Olarango ekin-tza aretoan, 18:30ean hasita. "Gizonezkoek euren hausnarketa egin beharko dute, eta euren erabaki propioak hartu. Nola konprometitu gai honekin eta zein konpromiso hartu, euren erabakia izan behar du".



IBON GEZALAGA

## Elikadura eta kirola berbagai

Asteon, Mireia Alberdi nutrizionista eta dietista bergararrak hitzaldia eskaini du. Antzuolako Kirol Elkarteak antolatuta, elikadurak kirolean daukan garrantziaz jardun zuen Alberdik. Hitzaldia "oso interesgarria eta ona" izan zela aitortu zuten bertan parte hartu zuten antzuolarrek. Olarango areto nagusia bete egin zen berbaliaz gozatzeko.

## Alzheimerrarekin bizi izateko gakoak emango dituzte

Afagiko ordezkariak izango dira Antzuolan; alzheimerra edo beste demenziaren bat dutenen senitartekoen eta pertsonen Gipuzkoako elkarte da. Hitzaldia eskainiko dute, alzheimerrarekin nola bizi daitekeen azaltzeko. Koldo Aulestia eta Antton Elozegi Afagiko kideak izango dira Olaranen, solasaldian, urtarrilaren 23an, 18:00etan.

## 2019ko aurrekontua onartzeko osoko bilkura, hilaren 29an

Antzuolako Udal Gobernuak hilaren 29an, martitzenean, eroango du ohiko osoko bilkurara 2019ko aurrekontua, onartu dadin. Iazko ikasturtean herritarrekin aurrera eramandako *Antzuola eitten* prozesua dauka abiapuntu aurrekontuak. Hala, inbertsioak egiterakoan, parte hartze prozesuan jasotako emaitzak oinarri izango dituzte.



AKE

## Zozketatu dituzte saskiak

Antzuolako Kirol Elkarteak zozkatu ditu bi saskiak; bi zenbaki sarituen jabeak azaldu dira eta jaso dituzte sariak. Produktuz osatutako saski oparoa Unai Kortabarria bergararrarendako izan da. Telebista zeraman saskia, berriz, Juana Sanchezendako izan da. Argazkian, Unai Kortabarria, AKEko ordezkariarekin, Eztalan.





Urtarrilaren 5ean auzoz auzo egin zuten bisitan. ION ITURBE

# Landa-bideak egokitzeke lehen urratsak, eginda

Antzuolako Udala baserri-bideak konpontzeko lehen pausoak ematen hasi da; urtarrilaren 5ean, auzo-alkateekin bideak bisitatu eta hondatutako zatiei argazkiak atera zizkieten. Hurrengo pausoa Ingurumen batzordean lehentasunak ezartzea da

**Amaia Zabala** ANTZUOLA

Antzuolako Udalak urtero bide-ratzen du diru partida bat baserri-bideak konpontzeko, eta iaz, lehen aldiz, egun zehatz bat jarri eta auzoetako alkateekin eta bizilagunekin batera hondatutako bideak bisitatzera joaten hasi ziren.

"Elkarrekin bide hauek ikus-tera joatea oso positiboa da, askotan bakoitzak ez baitaki bestearen auzoko bidea nola dagoen, eta, hain zuzen, bereari ematen dio lehentasuna; modu honetara, denok ikusten ditugu guztiak eta errazagoa da lehentasunak ezartzeko garaian", dio Beñardo Kortabarriak, Antzuolako alkateak.

Aurten, urtarrilaren 5ean elkartu ziren eta auzoz auzo joan ziren baserri-bideak bisitatzera: "Taldea polita bildu ginen, egia esatearren, eta goiz osoa pasatu genuen, auzoz auzo, apurtuta dauden edo konpondu beharra duten bide zatiak identifikatu eta argazkiak ateratzen" argitu

du Ion Iturbek, Hirigintza zinegotziak.

Jakinarazi dute hurrengo pausoa izango dela Ingurumen batzordean bildutako materiala aztertzea eta lehentasunak markatzea, eta prozesu horretan udal teknikariek aztertuko dutela konponketa bakoitzaren batez besteko kostua. Ingurumen batzordea urtarrilaren amaieran edo otsaileko lehen astean batzea aurreikusten dute.

Antzuolako alkateak aditzera eman du baserri-bideak konpontzeko 23.000 euro bideratzea dela beraien helburua, eta hilaren 29ko osoko bilkurara eramango dute proposamena, bertan onartua izan dadin: "37 kilometro baserri-bide daude Antzuolan

**BASERRI-BIDEAK KONPONTZEKO 23.000 EURO BIDERATZEA PROPOSATUKO DUTE OSOKO BILKURAN**

eta horien konponketa osoa Udalarik dagokio; badakigu diru hau ez dela nahikoa konponketa guztiak egiteko, baina guztiak urte berean konpontzea ezinezkoa dugu. Horregatik da garrantzitsua lehentasunak ezartzea", dio alkateak.

Bestalde, Kortabarriak gaineratu du konponketen plangintza egingo dutela, baina balitekeela iaz bezala planteamendu hori bertan behera utzi behar izatea: "Iaz, esaterako, 30.000 euro aurreikusi genituen landa-bideak konpontzeko; uholdeen ondorioz, ordea, adostua genuen plangintza guztia aldatu behar izan genuen eta, adostutakoaz gain, beste 120.000 euro gastatu behar izan genituen bide hauek konpontzen".

**Sei baserri-auzo eta 96 baserri**

Antzuolak sei baserri-auzo ditu eta une honetan 96 baserri dauzute. Biztanleriari dagokionez, herritarren %17-20 bizi da baserri horietan.

## Piztu Itxaropena euskal kanpaina abiarazi dute, sahararren alde

Antzuolan, urtarrilaren 22ra bitartean egingo dute elikagai bilketa, Eskolan, Aixan, Amaian eta Eroskin

**A. Z. ANTZUOLA**

Saharar Herriaren Lagunen Euskal Elkartek XV. Piztu Itxaropena kanpaina jarri dute martxan. Antzuolaren kasuan, Eskolak, Udalak, Sagiri Elkartek eta Anelkar Elkartek bultzatu dute eta kanpaina horren barruan hainbat ekintza antolatu dituzte egun hauetarako.

"Elkartasun kanpaina honen helburu nagusia saharar herriari elikagaiak helaraztea da, Tinduf-en (Aljeria) errefuxiatutako sahararrek gaur egun jasaten duten elikadura krisi larria ahal den neurrian arintzeko", argitu du Jabier Etxanizek, Anelkar-eko kideak.

**Elikagai bilketa**

Antzuolari dagokionez, kanpaina urtarrilaren 12an hasi zen eta 22an amaituko da eta bilketa Eskolan, Aixan, Amaian eta Eroskin egingo dute.

"Elikagaiei dagokionez, hegazuak eta sardinak oliotan, arroza, azukrea, pasta eta lekaleak biltzea proposatu dugu, horietatik baitira sahararrentzako elikadura osagarria biltzeko estatu mailan egin den banaketan Eus-

kadiri egokitu zaizkion elikagaiak", azaldu du Etxanizek.

Antolatzaileek gaineratu dute saharar errefuxiatuek elikadurari aldetik segurtasunik ez izateak "ondorio latzak" dakartzala herritarren bizitza-kalitatean, osasunari dagokionez, batez ere: "Desnutrizioak eragindako patologiak nagusitzen dira eta beste gaixotasun batzuei aurre egiteko gaitasuna murrizten da".

Iazko kanpaina, esaterako, Antzuolan soilik 49 kutxa eta 570 kilo elikagai bildu zituzten; 2017an, berriz, 488,4 kilo; eta 2016an, 649 kilo.

**Konpresak eta pixoihalak**

Elikagaiez gain, helduentzako pixoihalak eta emakumeentzako konpresak biltzeko deialdia ere egin dute.

"Saharar Emakumeen Batasun Nazionalak, emakumeentzako oinarritzako eta ezinbesteko garbitasun gaia denez, konpresen beharra berretsi du; beraz, kanpalekuan produktu mota hau lortzeko duen zailtasuna dela eta, konpresen bilketa eta bidalketa guztiz egokia da", adierazi dute antolatzaileek.



AITOR AGIRIANO

## Iturbe eta Zubikarai garaile

Lorentzo Iturbek eta Txeme Zubikarai irabazi zuten igandeko mus txapelketa eta hilaren 19an Arin Jatetxean jokatu den finalera joango dira. Domekako txapelketa Gorosti tabernan jokatu zen eta hamahiru bikotek hartu zuten parte. Kanporaketa horren aurretik, beste lau txapelketa egin zituzten, aurrez; guztiak, herriko tabernetan.

# Jazinto Rivas izango dute gogoan, jaietan

Ferixa Nagusiko jaietan keinu bat egingo diote 'Intxuzabal' edo 'Elgeta' izenekin ezagutzen zen trikitilariari. Pelikula batean jasotzeko moduko bizitza izan zuen elgetarrak. Antzerki ukituko dantza emanaldia egitea da asmoa, eta jendea behar da

**Larraitx Zeberio** ELGETA

Trikitilari gehienek aitortzen dute Jazinto Rivasen garrantzia soinu txikiaren jarraipenean eta bilakaeran. Hil berria den *Laja* handia, esaterako, *Elgeta*-ren ikasleetako bat izan zen. Baita ere *Maltzeta*, *Sakabi*, *Auntxa*, *Epelarre* eta *Zialtzeta*.

Mito eta legenda asko sortu dira *Elgeta*-ren inguruan, eta Herri Eguneko dantza emanaldian keinu bat egin nahi diote herrikideek. Antzerki ukituak izango dituen dantza emanaldi bat egitea dute buruan, eta ekimen irekia izatea nahi dute. Hala, urtarrilaren 25ean kiroldegiko gimnasioan egitekoa duten saiora gonbidatuta daude elgetarrak.

Ezagutu zutenek esan dute musikarako sen apartekoa zela *Elgeta*. Musikatik atera nahi izan zuen bizimodua soinua inon ikasterik ez zegoen garaietan eta lana zenik ere inork uste ez zuen sasoi batean.



Jacinto Rivas *Elgeta*, 1942ko San Tomas egunean, Donostian. TRIKITIXA ELKARTEA

**Goimendi auzotik Eibarrera**

1906an jaio zen Jacinto Rivas, Donostian. Kutxan utzi zuten eta Goimendi auzoko Intxuzabal etxeokoe hartu zuten semetzat. Eibarren hasi zen soinu-jole eta sasoi hartan Lasturtik etortzen

zitzaien Sakabi eskolak jasotzera. Gerran boluntario joan zen eta hamabi urte eta egun bateko kartela zigorra jaso zuen. Cádiz-en amaitu zuen langile batailoi batean. Presoaldia ez zen hain luzea izan; izan ere, soinuarekin



lazko jaietako Herri Egunean euskal dantzak eskaini zituen taldea. I. SORIANO

## Lehenengo entsegua, hilaren 25ean

lazko jaietarako sortu zen talde bat, herrikoak diren *Egoarbitza* eta *Arratera begira* dantzak eskaintzeko, aspaldiko partez. Umeen urteroko euskal dantzen emanaldiaren ostean egin zuten saioa. Aurtengo jaietan, fandango bat eta arin arin bat dantzatuko dituzte, eta aukera baliatuko dute Jazinto Rivas *Elgeta* gogora ekartzeko. Antzerki ukituak izango ditu emanaldiak, baina zehazteko dago oraindik zein forma hartuko duen.

Hain zuzen ere, fandangoa eta arin-arina ikasten hasiko dira. Kepa de Vegak egingo ditu irakasle lanak eta urtarrilaren 25erako iragarri dute lehenengo entsegua, 19:00etan, gimnasioan. Herriar guztiei dago zabalik ekimena. Adierazi dute, hori bai, entseguak jaietako emanaldia prestatzeko direla, eta bertaratzen direnei Herri Eguneko saioan parte hartzeko konpromisoa eskatzen diete.

## Azken hamarkadan gora egin dute biztanleria datuek Elgetan

Debagoienera baino zahartze tasa txikiagoa eta amatasun eta haurtzaro tasa handiagoak ditu herriak

**L.Z.** ELGETA

2019ko urtarrilaren 1ean Espainiako Estatistika Institutuak egindako herriz herriko udal errolden berrikuspenaren arabera, 2009an baino 62 biztanle gehiago ditu Elgetak 2019an. Oñatirekin eta Aretxabaletarekin batera gorako joera duen herrietako bat da Debagoienera.

2018ko errolda datuetara etorrira, iaz, hamalau jaiotza eta hamahiru heriotza izan ziren herrian.

Udalak jakinarazi du Debagoienak baino zahartze tasa

### Biztanleria

| URTEA | EMAKUMEAK | GIZONAK | GUZTIRA |
|-------|-----------|---------|---------|
| 2009  | 519       | 550     | 1.069   |
| 2010  | 527       | 552     | 1.079   |
| 2011  | 539       | 567     | 1.106   |
| 2012  | 547       | 573     | 1.120   |
| 2013  | 555       | 584     | 1.139   |
| 2014  | 547       | 574     | 1.121   |
| 2015  | 555       | 561     | 1.116   |
| 2016  | 547       | 566     | 1.113   |
| 2017  | 562       | 569     | 1.131   |

ITURRIA: ESPAINIAKO ESTADISTIKA INSTITUTUA

txikiagoa eta amatasun eta haurtzaro tasa handiago dituela Elgetak.

"Nire ustez, duela hamabi urte gaingitu genuen mila biztanleko muga. Faktore ezberdinak izan ziren: industrializazioa, etxe berrien eraikuntza... Ordutik, kopuru horietan mantendu gara", azaldu du *Harira* telebista saioan Iraitx Lazkano alkateak. "Elgetaren kasuan ikusten duten positiboena populazioaren piramidea dezente gaztetu zaigula da. Gaur egun adin bereko neska-mutikoak 15-20 bitarte horretan baldin badabilta, gu ume ginenean 8-10eko talde bat asko zen. Ematen du eskualdeko piramidearekin alderatuta gazteagoa dela Elgetakoa, eta hori gurea moduko herri txiki baten biziraupenerako ezinbesteko zerbait da".

agertu zen, Donostiako San Tomas egunean, 1942an.

Gerraostean Urolarako joera handia izan zuen, beti soinuarekin. Baserriz baserri ibili zen irakasle, eta trikitilarien errepertorio urria aberastu izana

aitortzen diote adituek. Dantza loturako tresna egin zuen trikitia. Erretiro gogorra izan zuen. Donostiara joan zen gainerako trikitilarien artetik urrunduta. Hiriburuko Miserikordian hil zen 1964ko urtarrilaren 30ean.



SONIA SENOSIAN

## Bi tailer Maider Galarzarekin

**Goiena komunitatea** / Elgetako liburutegia / ELGETA

Liburutegiak antolatuta, hilaren 25ean, 8 urtetik gorako umeendako tailerra egingo du Galarzak, eta otsailaren 8an LH-1 eta LH-2 mailetakoendako, baina, kasu horretan, heldu batek lagunduta hartu beharko dute parte. Beharrezkoa da aurrez izena ematea. Informazio gehiago, liburutegian.



# Albizu, gogotsu, jokatu duen lehen apusturako

Zapatuan lotu zituen lotu beharrekoak Hodei Iruretagoiena 'Izeta IV.a'-rekin, eta, lehen izateko, ez du errazenera jo. Helburua, orain, maiatzaren 4ra sasoi onenean iristea da. Etxekoen babesarekin eta prestatzaileen aginduetara egingo du aurrera

L.Z. ELGETA

"Erraz lotu genuen dena", adierazi du Imanol Albizuk. "Arazo bakarra datarekin izan genuen. Nik apirilean jokatu nahi nuen eta beraiek, maiatzean. Azkenean, maiatz hasierarako lotu dugu, maiatzaren 4rako".

Erronkak oihartzuna izan du. Espero zuela esan du Albizuk, baina ez hainbestekoa izatea. Presiorik sumatzen duen galdetuta, kontu horiek aurreragokoak izango direla uste du. "Pentsatzen dut agertuko dela jendea pisuz eta zelan nagoen ikustera etorriko dena, sasoiaren nagoen galdetzerako etorriko dena... Apustulariak, batez ere".

Berria da Albizu horrelako kontuetan, eta "ikusiko dugu" esaten du behin eta berriz. Ikusteko dago, haren esanetan, egunean bertan eta presio horren aurrean gorputzak zelan erantzuten dion. "Azkenaldian, plazaz plaza, nahiko ondo ari naiz nerbio kontuak eta kontrolatzen, baina hau beste dimentsio batetako erronka da", esan du.

## 125 kiloko kubikoarekin

Alde bakoitzak 6.000 euro jokatu ditu, hamar minutuko hiru txandatan zeinek egin jasoaldi gehien hamar arroako -125 kiloko harri kubikoarekin. Azpeitiko zezen-plazan jokatu dute erronka, 19:00etan. "125 kiloko kubikoa izatera, indarra derrigor behar da, eta erresistentzia ere bai. Ehun kiloko harria balitz, arnasa lantzea nahikoa izango zen, baina 125 kilokoak beste exigentzia maila bat du". Izeta IV.a, gainera, ez da arerio makala. "Izeta II.aren semea da eta aita-semeak teknikoki onenak dira gaur egun kubikoarekin. Bera, gainera, hiru hamarrekota probatuta dago", dio Albizuk. Hori izaten da apustuaren ohikoena; hamar minutuko hiru txanda egitea. Azkena duela lau urte



Izeta IV.a eta Goikoetxe, tratua ixten, zapatuan, Azpeitian. EGURSPORT HK

jokatu zuten, Izeta IV.ak eta Aimar Irigoienek.

## Prestatzaileekin lanean

Prestaketa lanei dagokienez, saltsa hauetan berak baino esperientzia handiagoa dutenek

agindutakoa egitea dagokiola esan du Albizuk. "Harri kontuetan Zelai dut entrenatzaile eta gimnasioan, Batis. Nire helburua ahal den ondoen prestatzea da, eta maiatzaren 4ra fsasoi onenean iristea".

## "Gai bada, kontua da zenbateraino"

J.A. GISASOLA 'ZELAI'  
PRESTATZAILEA

Harri-jasotzaile ohia eta Albizuren entrenatzailea da. Gakoa prestaketarekin asmatzea dela dio. **Gai da Goikoetxe?** Badut konfiantza. Horregatik egin dugu apustua, baina prestakuntzarekin asmatu behar dugu orain. Herri kiroletan eta apustu mundu honetan bakoitzak berea gordetzeko joera izan du, eta ez dago errezeta argirik. **Lan gogorra hartu duzue.**



GOIENA

Eta sufrimendu handikoa. Indarrak 30 minutuan iraun behar du. Txapelketetan hiru minutuko lau txanda, bost minutuko bi, zazpiko bakar... jokatzeko dira. Pentsa! **Antzekoak dira mutilak?** Kubikoarekin oso ona da Izeta IV.a. Aurretik egina du apustua, eta maisu handia du etxean. Albizu mutil handiagoa da, eta diesel tipokoa; segi eta segi beti. Gero, plazaz plaza, badoa lasaitasuna hartzen.



San Sebastian eguneko danborrada, iaz, Herri Eskolan. L.Z.

## Danborrada eta kofradiako kideen bazkaria San Sebastian ospatzeko

Herri Eskolako umeek gaur egingo dute danborrada, eta kofradiako nobleak domekan elkartuko dira bazkaltzeko

L.Z. ELGETA

Asteazken zehar danbor hotsa entzun da Herri Eskola inguruan; izan ere, San Sebastian eguneko danborrada prestatzen aritu dira neska-mutikoak. Gaur, barikua, egingo dute jendaurreko emanaldia. Zuzendaritzak jakinarazi du eskolako danborradak 15:30ean joko dituela Sarriegiren martxak. Eguraldiak laguntzen badu, frontoi zaharrean izango da emanaldia, eta, txarra bada, eskolako ganbaran. "Urtero bezala, danborrada Haur Hezkuntzako 3, 4 eta 5 urteko geletako neska-mutikoek eta Lehen Hez-

kuntzako 6. mailako ikasleek egingo dute. Gainerako ikasleak ikustera joango dira". Gurasoak ere gonbidatuta daude, noski.

## Kofradiako kideak, domekan

San Sebastian kofradiako nobleak, berriz, San Sebastian egunarekin elkartuko dira. Errege Katolikoen garaitik datorren ohitura da. Egurdian elkartuko dira eta meza, sakristian urtero egiten duten ekitaldia eta bazkaria iragarri dituzte. Uberan noble bakarria gelditzen da eta Elgetan, 22. Bolatoki tabernan egingo dute, aurten, bazkaria.

## Euskaraldia batzordea, diru kontuak aurkezteko

Euskaraldiaren inguruan herrian egindako ekintzen balorazioa egiteko eta diru kontuak zertan diren azaltzeko, batzar irekia deitu du Elgetako Euskaraldia batzordeak. Interesatuak Ozkarbi elkartearen elkartuko dira, martitzenean, hilak 22, 20:00etan.

Gipuzkoa mailako batzarra abenduaren 19an egin zen, Andoainen. Bertan azpimarratutako artean nabarmentzen dira lehen hitza euskaraz egitearen garrantzia, ekimen berria izanik lan handia eskatu duela eta Euskaraldiak hartu duen dimentsioa. Hobetzeko artean identifikatu dira *belarriprest*-engana eta 16 eta 25 urte bitarteko gazteenengan iristeko zailtasunak.

## OHARRAK

### Ipuinak liburutegian

Gaur, 17:00etan, LH-3tik gorako umeendako saioa; 17:30ean, 5 urtetik gorakoendakoa; eta 18:00etan, 2-3 urtetik aurrerakoendakoa.

### M8 Plataforma

Martxoaren 8a prestatzeko batzarra, domekan, 11:00etan, kultura etxean.

### Euskara saioak

Martitzenean abiatuko da euskara butsetik ikasteko ekimen herria, 14:45ean, liburutegian.

### Herrixa Dantzan

Hilaren 27an Joxan Goikoetxearekin izango da dantzaldia (ikus 40. orria).

# Udaberriko Jabetze Eskolak badu egitaraua

Aurrekoetan moduan, autodefentsa eta batukada ikastaroak egongo dira, baina baita irakurle eskola feminista ere, feminismoaren diskurtsoa lantzeko. Maskulinitateari buruzko ikastaroa ere antolatu du Berdintasun Sailak maiatzarako

## Oihana Elortza OÑATI

Emakumeen Jabetze Eskolak orain arte antolatu dituen ikastaroek izan duten harrera ona ikusita antolatu ditu udaberri-rako tailerrak Udaleko Berdintasun sailak. "Orain artekoaren balorazioa oso positiboa da. Egitasmoaren arrakasta ikusita antolatu zen lehen aldiz udazkenekoa eta horren emaitzarekin ere pozik gaude. Esan daiteke Jabetze Eskola hau gero eta indar handiagoa hartzen ari dela eta Oñatiko eskaintzen artean bere tokia egiten ari dela", dio Berdintasuneko udal teknikariak, Jone Arriolabengoak.

## Betikoak eta berriak

Udaberrirako zazpi tailer antolatu dituzte, otsailetik maiatza bitartean egingo direnak. Horietako batzuk ikastaro klasikoak dira, urtero errepikatzen direnak, eta beste batzuk, aldiz, berriak. "Autodefentsa ikastaroa, esaterako, beti antolatzen dugu, oinarri zein sakontze mailetan. Beti apuntatzen da jendea, eta eutsi egiten diogu. Baita batukada ere. Tailer horretan izena ematen duten batzuk aurrekoetan ere ibilitakoak izaten dira, eta beste batzuk lehen aldiz apuntatzen dira. Eskalada da arrakasta handia izaten duen



Mendi orientazio ikastaroa da egitarauko berritasunetako bat. QUEINVENTO.NET

beste ikastaro bat. Berehala bete izan dira plazak. Oraingoan, baina, mendi orientazio ikastaroa antolatu dugu horren ordez", adierazi du teknikariak. Patri Espinar bizkaitarrak gidatuko du tailer hori eta autonomia osoz mendiko ibilbideak diseinatzeko erakutsiko die apuntatzen direnei. Mapa eta iparrorratza erabiltzen irakatsiko die, besteak beste.

Ibilgailuen gaineko oinarritzko mekanika ikastaroa ere egongo da. "Brikolajearekin lotutakoren bat beti egoten da, eta oraingoan

mekanikarena antolatzea pentsatu dugu".

## Maskulinitateari buruzkoa

Jabetze Eskolako egitarauarekin batera, beste proiektu batzuk ere baditu esku artean Berdintasun Sailak: Martxoaren 8aren harira ekitaldiak antolatzea eta maskulinitateari buruzko tailerra prestatzea. "Maiatzean izango da eta hiru saio izango ditu. Proba moduan antolatu dugu eta duen interesa neurtuko dugu aurrerantzean ere gehiago antolatzeko".

## Araotzeko errepidea itxita egongo da, tarteka, lanengatik

Gaur, egubakoitza, hasiko dituzte lanak eta hiruzpalau astean goizez zein arratsaldean egongo da itxita

## O.E. OÑATI

Araotzeko errepidearen zabaltze eta egokitze lanak direla eta, urtarrilaren 18tik aurrera, bidea tarteka itxi egingo dute. Errepidea 09:00etatik 12:30era eta 14:30etik 17:30era itxiko da, hiruzpalau astean.

## Bidea zabalduko dute

1,065 eta 1,300 kilometro puntuen artean zabalduko dute bidea. Izan ere, errepidea estua da eta ibilgailu bakarra pasatzeko zabalera dauka gaur egun.

Helburua segurtasuna hobetzea da eta 5,40 metroko zabalera emango zaio errepideari; hala, bi ibilgailu pasatzeko adina leku egongo da. Lan horiek Gipuzkoako Foru Aldundiaren kontura egingo dira, 193.705 eurotan esleitura. Lan guztiak hamar astean amaituta egotea aurreikusten da.



Araotzeko errepidea. GOIENA

Araotzeko errepide hori auzotarrez gain, eskalatzailerek, mendizaleek eta turistek ere sarri erabiltzen dute eta auzotarren eskaera kontuan hartuta erabaki du Aldundiak obrei jarraipena ematea, Aintzane Oiarbide diputatuak esan zuen moduan.

## Hilaren 30ean egingo du hurrengo bilera Korrika batzordeak

Aste honetan egin du lehen bilera Oñatiko Korrika batzordeak eta dagoeneko jarri du hurrengoaren data: urtarrilaren 30ean izango da, 18:30ean, Euskaldun Berria gelan. Herriko eragile ezberdinetako ordezkariak hartu zuten parte eguaztenean egingako bileran. Hurrengo bilera ere irekia izango da, gura duten herritar guztiendako.

## Bizikidetzaz mintzatuko da Jonan Fernandez Santa Anan

Jonan Fernandez etorriko da Oñatira datorren astean. Hilaren 23an etorriko da, Oñatiko EAJ alderdiak gonbidatuta, eta bizikidetzaz mintzatuko da. *Bizikidetzaren erronkak* izango da hitzaldiaren izenburua eta bizikidetzak dituen etorkizuneko erronkez jardungo du. Hitzaldia Santa Ana aretoan izango da, eguaztenean, 18:30ean.

## Tailer berriak antolatu ditu Bizipoz egitasmoak

Elikadura, osasuna, konfiantza, irudiak, ariketak... halako gaiak landuko dituzte otsailean eta martxoan Bizipoz egitasmoak egingo dituen tailerretan. Amaia Diaz de Monasterioren die-tistaren laguntza izango dute, gainera. Tailerren inguruko informazioa, baina, eguaztenean, hilak 23, emango dute, 18:00etan, Euskaldun Berria gelan.

## Apustu etxeen inguruan hitz egingo du Igor Melchorrek

Oñatiko Trapu Zikinak Astintzen elkarteak apustu etxeen inguruko hitzaldia antolatu du datorren eguaztenerako. *Zer dago apustu etxeen atzean?* galdera da hitzaldiaren izenburua eta hizlaria, Igor Melchor idazlea. Azken boladan apustu etxeen inguruan asko hitz eta entzuten da eta horiek izango dira hizpide 23an, 19:00etan, kultura etxean.

## Antolatu dituzten ikastaroak eta datak

- **Pentsatzen ikasi eta pentsatzeari uzten ikasi:** Otsailaren 6tik 15era, 24 ordu. Mertxe Arratibel (gaztelaraz). 20 euro
- **Bizitzaren labirintoak. Krisiak eta doluak:** Martxoaren 25etik ekainaren 3ra, 24 ordu. Pepa Bojo (gaztelaraz). 20 euro
- **Mendi orientazioa:** Martxoaren 16tik maiatzaren

4ra, 24 ordu. Patri Espinar (euskaraz). 20 euro.

- **Oinarritzko mekanika:** Apirilaren 29tik maiatzaren 27ra, 10 ordu. Paz Carbajosa (gaztelaraz). Bost euro.
- **Autodefentsa feminista:** Martxoan eta apirilean, oinarritzko eta sakontze mailak. Emagin (euskaraz). Bost euro.
- **Irakurle eskola feminista:** Otsailak 19, martxoak 5,

apirilak 16 eta maiatzak 21. Iratxe Retolaza (euskaraz). Bost euro.

- **Batukada:** Martxoak 20, apirilak 3, maiatzak 8 eta 22, ekainak 5 eta 19. Hamabi ordu. Ainara Sarasketa eta Arantxa Vicedo (euskaraz). Hamar euro

Oharra: Ikastaroaren aurreko astean eman behar da izena.





Bidaurretako zebra bidetik zuzenean sartu ahal izango da parkera. O.E.

# Otsailean amaituko dute Etxaluze parkeko obra

Argiteria berritu eta iturri bat eta hainbat eserleku jarriko dituzte, lurzorua eta berdeguneak eraberritzeaz gain. Irisgarritasuna kontuan hartuko dute eta Bidaurreta aldetik dituen sarrerak, esaterako, irisgarritasun unibertsalera moldatuko dituzte

## Oihana Elortza OÑATI

Bide onetik doaz Etxaluze parkea eraberritzeko lanak. Azaroaren erdian hasi zituzten eta datorren hilean, otsailean, bukatuko dituzte. "Udalak berak argiteria berrituko du, eta luminaria berriak, ia bost metrokoak, eskatuta daude. Horiek heldu arte ez da zoladura berrian asfalto jarriko, eta horrek baldintzatu dezake lanen bukaera epea, baina martxa onean doaz eta otsailean amaitzea da espero duguna", dio Hirigintza zinegotziak, Irati Etxeberriak.

## Lurzorua berria

Argiteria berriaz gain, iturri bat eta eserlekuak ere jarriko dituzte. Batzuk hormigoizkoak izango dira eta beste batzuk, egurrezkoak. Projektua LKSk egin du eta lanak Tolosako Ecahide ari da egiten. Aurrekontua 195.868 euro da.

Etxaluze parkearen erabateko berrantolaketa egiteko asmoa zuen Udalak. Horren harira,

Altube-Negeruela-Otaegi arkitetkoek *Parke gorrixa* izeneko proiektua egin zuten. Hori gauzatzeko, baina, parkearen azpiko garajeetako jabeen parte-hartzea ezinbestekoa zen. Ura sartzen zitzaiela kexu ziren, eta, lan horiekin batera, arazo hori konpontzea zen asmoa. Lurzorua impermeabilizatzeko aurrekontuan beraien ekarpena egiteari uko egin zioten eta Udalak proiektu xumeago baten alde egin zuen orduan. "Zerbait xumeagoa, baina 1.700 metro karratuko zoladura berrituko da kolore naturaleko asfaltoarekin, berdeguneak txukunduko dira, eserlekuak eta iturri bat jarri... Ondo geldituko dela uste dut", adierazi du zinegotziak.

**GERO, EZ DA KIROL ELEMENTURIK EGONGO, BAINA, ESKAERAK EGONEZ GERO, AZTERTU EGINGO DIRA**

## Irisgarritasuna bermatu

Irisgarritasuna bereziki landu dute proiektu horretan, eta parkearen kontra dauden Otamendi tabernaren eta Kurtze Baltz elkartearen aurrean ere ari dira eraberritze lanak egiten. Plazatxo bana egokituko dute gune horietan.

Bestalde, Bidaurretatik parkera sartzeko dauden sarrerak ere egokitu egingo dituzte, eta irisgarritasun unibertsalera moldatu. Hala, Bidaurretako zebra bidetik sarrera zuzena egongo da parkera eta elkar komunikatuta egongo dira bi espazio horiek.

Etxaluze parkea kirola egiteko ere erabili izan da, saskibalo saskiak egon izan dira, eta baita, tarteka, eskubaloian eta futboleko jokatzeko ateak ere. Gero, ez da horrelako elementurik egongo: "Eskaerak egonez gero, aztertu egingo da proposamena, baina, hasiera batean, ez da aurreikusten horrelakorik jartzea", zehaztu du Etxeberriak.



Kultura etxeko erakusketa gelan dago erakusketa. A.T.

## Euskal Memoria Fundazioaren argazki erakusketa zabaldu dute

Joseba Zabalza iruindarraren liburuan du oinarria eta Susana Arregi oñatiarraren argazkiak daude tartean

## O.E. OÑATI

*Gogoan hartzeko izenak* argazki liburua atera zuen Joseba Zabalza iruindarrak eta hor du oinarri Euskal Memoriaren Fundazioak Oñatira ekarri duen erakusketak. "Behin, irratian entzun nuen biktimak ETAko atentatuetaoak zirela. Haserretu eta harritu egin ninduen horrek, eta beste izenak non gelditu ote ziren galdetu nion neure buruari. Horietako asko izen ezagunak ziren; Santi Brouard edo Lasa eta Zabala, adibidez. Beste asko zeuden ezagunak ez zirenak, eta argazkilari batek

ahaztuen prozesu horretan zer egin zezakeen pentsatzen hasi eta erabaki nuen familiak, tokiak eta argazki albumak arakatu eta erretratatzeko", dio Zabalzak.

Argazki liburua atera zuen, eta hango hainbat argazki ikus daitezke Oñatin zabalik dagoen erakusketan. Tartean, esaterako, Susana Arregi oñatiarrarenak, Arrasateko *Moriko*-renak eta bortxatu ostean hil eta probak desagertu ziren Loiolako neska gazte batenak.

Erakusketa urtarrilaren 27ra bitartean egongo da zabalik, egunero, 18:00etatik 20:00etara.

## GORA ETA BEHERA



O.E.

## Txakurrak kanpoan uzteko kaketxa

Farmaziara txakurrarekin doanak kanpoan lotuta uzteko kaketxa jarri du fatxadaren Juldain botikak, eta oso ideia ona iruditu zaiola adierazi du irakurle batek, gustatu zaiola dio.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.



# Desafio historikoak 60 urte beteko ditu aurten

1959ko maiatzaren 1ean jokatu zen, Oñatiko pilotalekuan, Olabarta auzoko Eufrazio Belategiren eta kaleko Manolo Arregiren arteko pilota desafio historikoa. Lehia hark jende asko batu zuen eta 10.000 pezeta inguru jarri ziren jokoan

## Maialen Regueiro OÑATI

Maiatzaren 1ean, 60 urte beteko dira Oñatiko pilotalekuan Eufrazio Belategi eta Manolo Arregi pilotak desafio historia jokatu zutenetik. Egun hartako partiduak herritar asko erakarri zituen eta Bernabe Belategi, Eufrasioren anaiak, adierazi duenez, "norgehiagoka jendetsua, baina polemikoa ere bai".

## Torre taberna

Oñatiko Torre tabernan hartu zen apustu hura egiteko erabakia. Izan ere, han izandako berbaldi batean, batzuek zioten Belategi, pilotan, Arregi baino hobe zela. Beste batzuek, ordea, zioten Arregi zela onena. Beraz, pilotari onena izendatzeko, desafio hura aurrera eramatea erabaki zuten.

## Pilota polemikoa

Partiduko hirugarren tantoan zihozela Arregi pilotak alda-keta eskatu zuela adierazi du

Belategik. Saskian lau zapabost pilota zeuden, baina inguruan zegoen ikusle batek sakelatik pilota bat atera eta hura eskaini zion Arregiri. Belategi ez zen horretaz ohartu, baina ikusle batek honako hau oihukatu zuen: "Pilota hori ez zegoen saskian, sakelatik ateratakoa da!". Belategiren esanetan, "Arregi saskian zegoen pilota bat aukeratu behar izan zuen".

## Arregi, txapa jo

Belategiren esanetan, "Arregi txapa jo zuen 21-13 zihozazenean, eta anaiak partidua irabazi zuela konturatu zen". Ikusle batzuek Arregi jotako txapa zalantzan jarri zuten eta horrek eztabaida eragin zuen ikusleen artean. Epaileek, azkenean, ontzat eman zuten Arregiren tanto hura eta partidua aurrera jarraitu behar zuela erabaki zuten. Hala, markagailua 21-14 zegoela, jokatzeari ekin zioten berriro. Arregi hainbat tanto

egin zituen jarraian, baina, azkenean, 22-19 irabazi zuen Belategik.

## Espainiako txapelduna

Belategi 1969an Espainiako txapeldun izendatu zuten afizionatuetan. Izan ere, urte haietan Madrilan eta Bartzelonan jokatzen aritu zen, besteak beste.



Berbabe Belategi, Eufrasioren anaia, argazki eskuetan duela. AMAIA TXINTXURRETA

## 1959ean jokatutako 'desafixua'

Igandeetan Torre tabernan elkartzen zirenek pilota kontuak izaten zituzten hizpide. Berbaldi horietako batean, batzuek esan zuten Olabarta auzoko Eufrazio Belategi pilotan jokatzen onena zela, baina beste batzuek zioten onena kaleko Manolo Arregi zela. Hala, eztabaida hura aitzakia hartuta, bi pilotari oñatiarren arteko apustua egitea erabaki zuten batzuek, eta baita

partidu hura jokatuko zen data ere: maiatzaren 1a.

## 1959ko maiatzaren 1a

*Desafixua*-k herritar asko batu zituen, baina inguruko herrietako jendeak ere ez zuen apustu hura galdu nahi izan. Hala, Arregi txapa jo eta ikusle batek hari sakelari zeukan pilota bat eskaini izanak polemika eragin zuen.



Manolo Arregi eta Eufrazio Belategi.



OÑATIKO ZURI-GORRI TALDEA

## Oparia jasotzen, San Mamesen

Pasa den asteburuan, Athletic taldeak bidalitako gonbidapena onartuta eta taldeak etxean jokatzen zuela aprobetxatuz, Oñatin talde zuri-gorriak duen lagunarteko hainbat kide San Mamesko palkoan izan ziren oparia jasotzen. Ander Zabaleta eta Xabi Elgero

oñatiarrak lagunarteko kideak dira, eta argazkia atera zuten Jose Maria Argoitiarekin, Aitor Elizegi Athleticeko lehendakari berriarekin eta Jose Angel Iribarrekin batera. Horrez gain, jokalaria zuri-gorriekin egoteko aukera ere izan zuten.

## Zikloturisten lizentziak tramitatzen hasi da Aloña Mendi

Aste honetan, hainbat egun izan dituzte zikloturistek lizentzia tramitatzeko, eta hurrengo astean hiru egun izango dituzte horretarako: urtarrilaren 22a, 23a eta 24a. Egun horietan, 19:00etatik 20:30era bitartean, Aloña Mendi elkarteko kideak bulegoan izango dira dokumentazioa eta datuak hartzen. Lizentzia lehen aldiz atera behar duenak nortasun agiri zenbakia, helbide elektronikoa eta telefono zenbakia eman behar ditu; eta lizentziaren ordainagiria. Luzatu gura duenak, ordea, ordainagiria bakarrik eramatea nahikoa da.

Espainia mailako lizentzia 130 euro da eta EAEkoak, berriz, 125 euro.

## Anaitasunaren bisita jasoko dute Endika Ruizen mutilek

Azkoagainen urteko lehen partidua jokatuko dute, domekan, Endika Ruizen mutilek, txapelketako 17. jardunaldia izango dena, hain zuzen ere. Norgehiagoka 16:30ean hasiko da eta oñatiarrek Azkoitiko Anaitasuna taldea izango dute aurkari. 2019an jokatutako lehenengo partidua irabaztea lortu zuen Aloña Mendik, Getariakoren aurka.

Ruizen taldea hirugarrena da sailkapenean, 30 punturekin, aurretik Urola eta Lagun Onak taldeak daude. Aurkaria, berriz, azkenengo postuan dago, 7 punturekin, eta azken sei jardunaldietan ez du garaipenik lortu.



# Hangover Metal Fest jaialdia gaztetxean

Bullets Of Misery (Gernika), WEED (Bartzelona) eta Rodeo (Zestoa) taldeek joko dute gaur, hilak 18, 21:00etan, gaztetxean; sarrera 5 euro da –ikasleentzat, 3–. Gero eta arrakasta handiagoa lortzen ari den jaialdia da eta gaur bosgarren aldia izango du

## Amaia Zabala OÑATI

Hangover kuadrillak antolatutik, metal soinuak izango dira gaur protagonista Oñatiko gaztetxean. Bullets Of Misery talde gernikarrek, WEED (We Exist Even Dead) talde kataluniarrak eta Rodeo talde zestoarrak zuzenekoak eskainiko dituzte, 21:00etatik 01:00era. Antolatzaileek jakinarazi dute kontzertuen ondoren ere gaztetxean jai giroak jarraituko duela.

## Metal festaren bosgarren aldia

"Duela bi urte eta erdi hasi ginen Hangover kuadrillako lagunok jaialdi hau antolatzen; metal musika oso gustuko dugu eta

entzun nahi ditugun taldeak ekartzen saiatzen gara; normalean, talde oñatiarren bat ere sartu ohi dugu. Urtean bi edizio egiten ditugu, bata uda partean eta bestea neguan, eta ikusten da jaialdia gero eta ezagunago egiten ari dela. Azkenekoa bereziki izugarria izan zen, jende asko etorri zen kanpotik, eta gaur ere halaxe izatea espero dugu, sare sozialetan asko zabaldu baita", azaldu du Pello Uriartek, Hangover-ko kideak.

## Rodeo Talde zestoarra

Gaurko Hangover Metal Festan joko duenetako bat Rodeo taldea izango da. 2015ean sortu zen

taldea eta 2017an lehen diskoa kaleratu zuten; lau musikari zestoarrek osatzen dute eta beraien bigarren diskoa, *Dilmun*, kaleratu berri dute.

70eko hamarkadan AEBetan sortutako stoner rock musika estiloa dute nagusiki zestoarrek, baina Mikel Ilarramendi taldeko abeslariak gaineratu du Oñatiko gaztetxean gaur egingo den jaialdia metal festa izanik, beraien emanaldia estilo horretara egokituko dutela: "*Dilmun* disko berriaren aurkezpen betean gabiltzan arren, kontzertu honetarako moldaketa bat egin dugu eta metal estiloko abestiak eskainiko ditugu".

# "Loperen historia ezagutaraztea eta zabaltzea dugu helburu"

Urriaren estreinatu zenetik, ibilbide oparoa ari da izaten 'Lope' filma, bai pantaila handian eta bai txikian ere

## Amaia Zabala OÑATI

Urriaren 26ean herrian estreinatu zenetik, bolo-bolo dabil *Lope* filma. Herrian sekulako arrakasta izan zuen eta, geroztik, Euskal Herriko hainbat gaztetxe eta zinema aretotan eskaini dute.

Hurrengo pausoa urtarrilaren 1ean etorri zen, Youtubera igoztean: ezustean, lehen astean 2.000 ikustaldi izan zituen. "Egia esan, ez genuen espero, eta lantalde guztia oso gustura geratu gara erantzunarekin, pozgarria izan da", adierazi du Anjel Lerak, filmaren zuzendariak.

## Lope ezagutaraztea helburu

Filmaren zuzendariak gaineratu du beraien helburua filma zabaltzea eta Loperen historia eta El Dorado espedizioa ezagutzera ematea dela: "Euskal Herri osora hedatzea eta Loperen figura historikoaren gaineko

hausnarketa eta debatea zabaltzea da gure asmoa. Askok esan digute filma ikusi eta gero Loperen inguruan informazio gehiagoren bila ibili direla. Izan ere, pertsonaiaren inguruan gutxi zekiten askok, eta filmak jakin-mina piztu die. Beraz, pozik gaude".

Horretaz gain, Lerak azpimarratu du filma ikusi dutenetako batzuek esan dietela "hausnarketa politikoa" egiteko ere balio izan diela filmak.

## Azpitituluak gaztelaniaz

Loperen gaineko filma eta, bide batez, pertsonaia horren historia "zabaltzen eta ahalik eta jende gehienarengana" iristeko asmoz, berrikuntza moduan, gaztelaniazko azpitituluak gehitu zizkioten filmari aurreko astean, eta hori ere ikusgai da dagoeneko sarean.

## Debagoieneko GREMIOAK

### ARROZTEGIAK

#### AZKARATE AROZTEGIA

BERGARA

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak.
- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

blogak.goiena.net/azkarate

### HONDEAKETAK

#### EXCAVACIONES Y CONTRATAS

#### ARRASATE SL

ARRASATE

Meatzereka 30

Tel.: 943 77 12 26 / 646 29 59 87

e.arrasate@gmail.com

### ITURGINTZA

#### EGIA ITURGINTZA

ARRASATE

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

Tel.: 943 77 01 85

#### OYANGUREN ITURGINTZA

ESKORIATZA

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

f.oyanguren@ctv.es

#### URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta halzeztatzea

Basabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

### LOREZAINZA

#### MAKAI KOOP. ELKARTEA

ARETXABALETA

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatzeko sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45



Inagarkia jami nahi baduzu,  
deitu 943 25 05 05 zentzura.

**X. Urzelai / M. Regueiro** ARRASATE

Denboraldi-aurre luzea izan du Markel Irizarrek (Oñati, 1980), Vueltan jantzi zuen-eta azkene-koz dortsala, irailean. Castellana pasealekua bizikleta gainean zeharkatuz, bertatik bertara bizi izan zuen Alberto Contador taldekidearen agurra, eta dagoneko agur pertsonalean pentsatzen ere hasita dago. Taldearekin batera erabakiko du noiz izango den hori, eta non. Mallorcara abiatu aurretik, GOIENArekin izan da Oñatikoa.

**Hamaseigarren denboraldia hasiko duzu aurten.**

Eta hasteko gogoz nago, gainera. Esan daiteke ziklista batendako neguko hilabeteak izaten direla gogorrenak, lasterketarik ez baina gogor entrenatu beharra... Hilabete horiek atzean geratu dira jada, etxekoekin egindako denboran gozatu egin dut, eta dortsala janzteko gogoz nago.

**Hamargarren urtea izango duzu taldean.**

Halaxe da. Sei urte egin nituen Euskaltelen, eta, ordutik, estrukturan berean egon naiz. Nahiz eta babesleen joan-etorriekin izen ezberdina izan dugun: Team RadioShack, RadioShack Nissan, RadioShack Leopard, Trek Factory Racing... familiak bere horretan jarraitu du.

**Azken urtearen atarian gaude?**

Posible da, bai. Oraindik, gauza batzuk ditut taldearekin zehazteko, eta egunotan Mallorcan ere egingo dugu horretaz berba. Noiz esango dugun agur, zein lekutan, etorkizunari begira zein asmo dugun... Halako galderei erantzuna bilatzen ahaleginduko gara taldeko ordezkariekin batera, eta, horiek argitzen ditugunean, taldeak publiko egingo du berria. Baina mentalizatuta nago, ondo dakit kirol bizitzako azken txanpan nagoela.

**Azkena bada, modu berezian bizi izango duzu?**

Bereziki gozatzen ahaleginduko naiz, baina, modu batera edo bestera, lasterketa batzuei dagoneko agur esan diet. Iaz, esaterako, ez nintzen Tourrean egon, baina, badaezpada, duela bi urteko Tourrean, Parisera iritsi ginenean, agur esan nion lasterketari. Iaz, beste horrenbeste egin nuen Giroan, nahiz eta berez 2019an Girora joan daitezkeen multzoan nagoen. Dena dela, kirol maila ona eskainita agurtu gura dut, %100



Markel Irizar, etxeko atarian, Mallorcara bidaia egin aurreko egunetan. MAIALEN REGUEIRO

# "Kirol maila ona eskainita agurtu gurako nuke, %100 emanda"

**TXIRRINDULARITZA** MARKEL IRIZAR TREK-SEGAFREDO TALDEKO ZIKLISTA

Ziklista oñatiarra Mallorcako tenperaturaz gozatzen dabil egunotan; taldearekin dago han, bere kirol ibilbideko azkeneko denboraldia izan daitekeena prestatzen

emanda, taldea ondo portatu da-eta nirekin.

**Dagoneko zehaztu duzue egutegia?**

Mallorcan hasiko dut denboraldia, eta Arabiar Emirerri Batuetako Itzulia egingo dut. Ondoren, egun bakarreko pare bat

**"DUELA BI URTE, TOURREAN, PARISERA IRISTEAN, AGUR ESAN NION LASTERKETA HORRI"**

lasterketa egingo ditut, jarraian Kataluniako Volta eta Itzulia, eta Romandian ere izango naiz. Giroa dator jarraian, eta, hasiera batean, Italiara joan daitezkeen zerrendan nago. Baina talde handia gaude hor, eta gogor borrokatu beharko dugu taldean egoteko. Hori da egutegiko lehenengo zatia, eta horraino zehaztu dugu. Bigarren zatia, berriz, lesioek eta bestelakoek baldintzatuta egoten da. **Armstrongendako, Cancellarrendako, Contadorrendako... lan egitea**

**tokatu izan zaizu. Aurten, Richie Porte fitxatu duzue.**

Bada, berez, ez nintzen UAEra joatekoa [Arabiar Emirerri Batuetako Itzulia], baina taldeako erlojupekoa jarri dute eta, besteak beste, Richie Porteri

**"TXIRRINDULARI BETERANOEN ZERRENDA EGIN DUT, ETA HOR BAI, HOR PODIUMEAN NAGO"**

eta Bauke Mollemari laguntzera joango naiz hara. Ondoren, ez dakit zenbatetan egingo duan bat Richie Porterekin, hura Tourrean izango delako eta ni ez. Giroan, berriz, Bauke Mollema izango da taldeko liderra. Eta ondoren, klasikoetarako ere oso talde indartsua dugula uste dut. Iaztik hona, koska bat egin dugu gora.

**Taldeak Australian hasi du urtea; zein da helburua han?**

Richi Porterekin Tour Down Under irabaztea da helburua. Hori lortzea oso garrantzitsua izango litzateke, taldeak hasieratik morala hartzeko, baita Portek berak ere.

**Otsailean, 39 urte egingo dituzu. Tropeleko beteranoetako bat zaitugu.**

Ziklista beteranoen zerrenda ere egin daukat, eta, lasterketetan podiumaren bueltan ibili ez naizen ziklista izateko, hor bai, hor podiumean nago; kar, kar, kar.

**Helburu nagusietako bat beteta erretiratuko zara, baina.**

Profesional mailara salto egin nuenean, neure buruari jarri nion helburua izan zen kirol bizitza luzea izatea, urteak egitea nire profesioaz gozatzen, eta lortu dut. Bada, 39 urterekin erretiroa hartzen badut, eta horretarako mentalizatuta nago, pribilegiatutzat izango dut neure burua, zorioneko sentituko naiz, egin dudana bidearekin pozik. Hau amaitutakoan, ilusioz ekingo diogu bizitza berriari.

**Zelan ikusten dituzu ziklista gazteak?**

**Eta, bereziki, bailarako ordezkariak?**

Hasteko, nabarmenduko nuke nazioartean ziklista gazteek zelako maila duten, ikustekoa da duten adinerako zelan dauden prestatuta. Bailarara etorrita, berriz, egoera polita dela esango nuke. Hor ditugu, Bergaran, Euskadi Murias taldeko Julen Irizar eta Mikel Aristi. Eurekin entrenatzen naiz eta badakit zein maila ona duten, benetan indartsu ikusten ditut. Eta, txantxikua naizen aldetik, herrian Xabier Murgiondo dugu; azken kolpetxo ematea falta zaio profesional mailara salto egiteko, eta nabarmenduko nuke Aloña Mendikoak herriko ziklismoaren alde egiten dabiltzan lan ona. Hor dago Aimar Erostarbe... Badira lan ona egiten dabiltzan ziklista gazteak, eta, hain zuzen ere, herriko taldeari etorkizun polita ikusten diot.





Ligako lehenengo jardunaldian 0-0 egin zuten Bergarak eta Mondrak. Erretratuan, iazko derbia. IMANOL SORIANO

# Bigarren itzulia hasteko, derbia izango da Mojategin

**FUTBOLA** Domekan, sailkapenaren bosgarren postuan dagoen Mondrak erdialdean dagoen Bergara hartuko du. Aretxabaletak Añorgan jokatu du; azken hilabete txarra ahazteko, garaipena behar dute, eta kontrario zuzena gehiago itoko lukete

**Xabier Urzelai** ARRASATE  
Ohorezko Erregional Mailako lehenengo itzulia amaituta, Debagoieneko talde bakarra ere ez da sartu mailaz igotzeko hautagaien borrokan. Eibar (41), Anaitasuna (39) eta koska bat beherrago Tolosa (35) dira, oraingoz, hiru oilarrak eta besteek dagoeneko aukera handiak galdu dituzte saltsa horretan ibiltzeko.

Orain artean, Mondra (30) da lan txukunena egin duen taldea, hiru partidu baino ez dituzte galdu, baina eurak dira ligan partidu gehien berdindu dituztenak (6), eta lauza pisutsua da hori.  
Domekan (16:30), berriz, gora-ego teko erregulartasuna falta izan zaion Bergara izango dute aurrean. Mahoneroak sailkapenaren erdialdean daude,

baina erditik atzera nahiko estu dago sailkapena, eta lehenbail lehen gura dute 40 puntuen langa gainditu, ezustekoak ekiditeko.  
Eta, atzealdeko postuetatik ihes egiteko borroka horretan murgilduta daude aretxabaletarrak, liga hasieratik, gainera. Biharko kontrario Añorga kontrario zuzena da (15:45).

## Aloña Mendi, hirugarren postuan

Oñatiarrak lan ona egiten dabilta, eta aurten ere mailaz igotzeko borroka horretan egon gura dute liga amaierara arte. Lagun Onak-ek, baina, orain artean koska bat gorago dagoela erakutsi du, oso partidu gutxitan kale eginda —horietako bat oñatiarren kontra, hain zuzen—. Txantxikuek azken sailkatu Anaitasuna hartuko dute domekan (16:30).



Talde oñatiarra, aurtengo goletako bat ospatzen —23 egin dituzte—. I.S.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

| FUTBOLA                                                                                                                                                                                                                  | LEHEN ERREGIONALA                                                                                                                                                                                    | GIPUZKOAKO TXAPELK.                                                                                        |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>OHOREZKO ERREGIONA.</b><br><b>Añorga-Aretxabaleta</b><br>Zapatua. 15:45. Donostia.<br><b>Mondra-Bergara</b><br>Domeka. 16:30. Mojategi.                                                                               | <b>Aloña Mendi-Elgoibar</b><br>Zapatua. 18:00. Azkoitia.<br><b>Bergara-Arizmendi</b><br>Zapatua. 15:30. Ipintza.                                                                                     | <b>Soraluce BKE-Urnieta</b><br>Zapatua. 18:45. Bergara.                                                    |
| ERREGIONAL PREFERE.                                                                                                                                                                                                      | ARETO FUTBOLA                                                                                                                                                                                        | SASKIBALOIA                                                                                                |
| <b>Aretxabaleta-Zestoa</b><br>Domeka. 16:30. Ibarra.<br><b>Antzuola-Soraluze</b><br>Zapatua. 16:00. Estala.<br><b>Lazkao-Mondra</b><br>Zapatua. 15:45. Lazkao.<br><b>Aloña Mendi-Anaitasu.</b><br>Domeka. 16:30. Azkoag. | <b>EUSKADIKO TXAPELK.</b><br><b>Labastida-Mondrate</b><br>Zapatua. 19:00. Labastid.<br><b>Sestao-Eskoriatza</b><br>Domeka. 12:30. Sestao.<br><b>Aretxabaleta-Scalibur</b><br>Zapatua. 17:00. Ibarra. | <b>EBA</b><br><b>Miraflores-MU</b><br>Zapatua. 19:30. Burgos.                                              |
| <b>EMAK. OHOREZKO ERR.</b><br><b>Urola-Bergara</b><br>Domeka. 16:00. Zumarra.<br><b>Goierri-Leintz Arizmen.</b><br>Domeka. 11:30. Ordizia.                                                                               | <b>EMAK. GIPUZKOAKO L.</b><br><b>Eskoriatza-Tolosaldea</b><br>Zapatua. 16:30. M.Muño.                                                                                                                | <b>GIPUZKOAKO SENIORRAK</b><br><b>Mekalki Aloña-Oiartzun</b><br>Zapatua. 18:00. Zubikoa.                   |
| <b>EMAK. GORENGO MAILA</b><br><b>Goierri-Aloña Mendi</b><br>Zapatua. 18:00. Lazkao.<br><b>Bergara-Oiartzun</b><br>Domeka. 17:00. Ipintza.                                                                                | <b>ESKUBALOIA</b><br><b>EUSKADIKO TXAPELK.</b><br><b>Urdaneta-Ford Mugarri</b><br>Zapatua. 20:00. Zarautz.<br><b>F. Industrial-Muskiz</b><br>Zapatua. 18:15. Zubikoa.                                | <b>GIP. BIGARREN MAILA</b><br><b>Bergara Soralu-Ordizia</b><br>Zapatua. 16:00. Labegara.                   |
|                                                                                                                                                                                                                          | <b>EUSK. TXAP. EMAKUM.</b><br><b>Aloña Mendi-Urdaibai</b><br>Zapatua. 16:30. Zubikoa.                                                                                                                | <b>EMAKUMEZKOAK</b><br><b>Eskoriatza-Aletico SS</b><br>Gaur. 20:15. M.Muñoz.                               |
|                                                                                                                                                                                                                          |                                                                                                                                                                                                      | <b>ERRUGBIA</b><br><b>EUSKADIKO SENIOR. M</b><br><b>Kanpanzar ART-Aletic.</b><br>Zapatua. 16:30. Mojategi. |

## Muriaskoak Arrasaten

**ZIKLISMOA** Euskadi Murias txirrindularitza taldekoak Athlonen izan dira aste barruan, 2019ko denboraldiari begira esfortzu probak egiten. Eta tarteetan izan dira Mikel Aristi eta Julen Irizar bergararrak. Talde orlegiko ordezkariak beste aurrerapauso bat eman gura dute aurten, iazko urte borobilaren ostean. Alacanten egon berri dira entrenatzen.



ATHLON

## ESKALADA Datorren astean, bi txapelketa izango dira Ibarran

Debagoieneko Eskalatzaileak taldeak antolatuta, urtarrilaren 26rako eta 27rako bina txapelketa antolatuko dituzte Aretxabaletako kiroldegian. Zapatukoa boulder txapelketa izango da —izen-ematea, 09:30ean, 5 euro— eta domekan, Eskolarteko Gipuzkoako Ligaxkako lehen proba izango da. Hor ere egun berean egingo dute izen-ematea (3 euro).

## ESKUBALOIA Fagor Industrialek Muskiz hartuko du bihar

Euskadiko Txapelketan jardunaldi txarra izan zen joan den astekoa bailarako taldeendako. Hori zuzentzeko, Fagor Industrialek Muskizen kontra jokatuko du bihar (18:15). Ford Mugarri Arrasatek, berriz, Bilbora egingo du bidaia (20:00). Bestalde, Aloña Mendiko neskek ere etxean jokatuko dute bihar, Urdaibairen kontra (16:30).



# Urteurren dantzaldia Joxan Goikoetxearekin

Elgetako Herrixa Dantzan dantzaldiak hamar urte beteko ditu, eta, urteurren hori ospatzeko, Alboka taldeko soinu-jole Joxan Goikoetxea izango da urtarilaren 27an Espaloia kafe antzokian, 19:00etan, Patxi Montero dantzariak gidaturik

**Amaia Zabala** ELGETA

Herrixa Dantzan ekimenak hamar urte beteko ditu hilabete honetan, 2010eko urtarileko azken igandean izan baitzen lehen dantzaldia, Elgetako Espaloia kafe antzokian. Hori dela eta, hamar urte geroago, urtarilaren 27rako, Hernaniko Alboka taldeko Joxan Goikoetxearekin dantzaldia prestatu dute.

"Begiz jota eta oso maitea duan taldea da Alboka eta urte hauetan guztietan Herrixa Dantzan dantzaldietan haren musika oso presente egon da. 25 urteko ibilbidea duen taldea da eta oso lan duina egin du. Azken hamar urteotan taldea geldirik egon bada ere, 2017an bosgarren diskoa kaleratu zuten, *Lurra, ur, haize*, eta berriz hasi dira zuzeneko kontzertuak ematen", azaldu du dantzaldietako sortzaile, egungo antolatzaile eta irakasle Patxi Monterok.

Gaineratu du Goikoetxearekin batera Alboka taldeko Alan Griffin ere dantzaldian izatea zela asmoa, baina bolada honetan Irlandan, jaioterrian, dagoenez, ezinezkoa izan dela.

Urtarrilaren 27ko emanaldia Alboka taldearen diskografiatik aukeratutako abestiekin osatutako dantzaldia izango da, Montero dantza irakasleak gidatuko



Joxan Goikoetxea soinu-jolea emanaldi batean. AZTARNA

du eta, antzokiko taberna itxita badago ere, izango da jatekoa eta edatekoa gerturatzaren ororentzat. Bestalde, sarrera irekia eta doakoa izango da.

## Dantzaldi erreferenteak

Aurtengoa hamargarren edizioa bada ere, Monterok Azpimarratu du urtetik urtera "osasuntsuago" daudela eta dantzaldiak eta jendearen erantzuna ere "gero eta hobeak" direla: "Dantzaldi erreferente bihurtu dira, eta, inguru osoko zaleez gain –Debagoiena, Debarrena, Du-

rangaldea–, urrutia gotik ere etorri ohi dira dantzariak –Bilbo, Gipuzkoako kosta...–. 40 eta 100 lagun artean elkartu ohi gara".

Monterok azpimarratu du, erreferente izateaz gain, estilo propioa duten dantzaldiak direla Elgetakoak eta "dantzaldi guztien oinarria beti" musika eta dantza tradizionala dela. Dantzaldiak Elgetako Udalak laguntzen ditu eta hileko azken domeketan izaten dira, normalean, urritik maiatzera bitarte, Espaloia kafe antzokian.

## 91 lan jaso dituzte Amodiozko Gutunen Lehiaketaren 27. aldian

Amodiozko Esaldien III. Lehiaketari dagokionez, aldiz, urtarilaren 24ra bitartean jasoko dituzte esaldiak

**Amaia Zabala** BERGARA

Bergarako Jardun Euskara Elkartek urtero antolatzen duen Amodiozko Gutunen Lehiaketa klasiko bihurtu da dagoeneko, aurtengoa 27. edizioa izan baita.

Maitane Arizabaleta Jardun Elkarteko kideak jakinarazi du 91 gutun jaso dituztela, horietatik 67 (%74) emakumezkoek idatziak eta 24 (%26), gizonezkoek. Bestalde, gaineratu du gutunak txoko guztietatik iritsi zaizkiela aurrean ere: 53 Gipuzkoatik –horietatik 30 Debagoienetik eta ia guztiak, 23, zehazki, Bergararik–, bost Bizkaitik, bi Arabatik, lau Nafarroatik, bat Iparraldetik eta 26 Estatuko hainbat lekutatik.

Gutunen egileen adinari dagokionez, batez besteko adina hogeita hamar urtekoa izan dela jakinarazi du Arizabaletak.

Sari ematea otsailaren 14an, osteguna, San Valentin egunean egingo da, Bergarako Irizar jauregian, arratsaldeko zazpitan. Epaimahaikideak izango dira Eneko Barberena literaturzalea, Nerea Ibarguren bertsolaria, Iñaki Etchezarraga musikaria eta Itziar Ugarte 2018ko irabazlea.

## Amodiozko Esaldien Lehiaketa

Azken urteetan, amodiozko gutunez gain, esaldien lehiaketa ere antolatzen du Jardunek, eta aurtengoa hirugarren aldian izango da. Lehiaketa horretan urtarilaren 24ra bitarte parte hartzeko aukera izango da; esaldia Whatsappez edo mezuz 605 71 24 69 telefono zenbakira edo posta elektronikoz [amodiozko-gutunak@gmail.com](mailto:amodiozko-gutunak@gmail.com) helbidera bidali beharko da.

## Craic 'N' Roll talde irlandarra izango da Inkernun eta Itturin

Craic 'N' Roll taldeko Donna Dunne abeslariak eta Philip Doyle gitarra-joleak emanaldi akustikoak eskainiko dituzte asteburu honetan Debagoieneko bi tabernatan.

Hain zuzen ere, kontzertuetako bat gaur izango da, Eskoriatzako Inkernu tabernan, 22:30ean, eta bestea, berriz, domekan, Oñatiko Itturri tabernan,

19:30ean. Pasa den urrian, Arrasaten eskaini zuten.

Irlandatik datorren taldeak rock-and-roll, country eta gipsy-jazz estiloak uztartzen ditu eta ikuskizun dibertigarria eskainiko du.

Diablo Records diskoetxeak burua da Philipe Doyle, taldeko gitarra-jolea, eta, bidaia aprobetxatuz, Aretxabaletako Screamers And Sinners taldearen disko berria produzitzera gertuko da; *Hypnosia* diskoaren grabaketak astebete iraungo du.

## ELKARRIZKETTAP

GOIENA TELEBISTA

ANEGURIA RAP ABESLARIA ETA MUSIKARIA,  
JON GOMEZEK ELKARRIZKETATUTA

URTARRILAREN 18AN, EGUBAKOITZEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

ANE LABAKA TXAKUR GORRIA KOLEKTIBOKO KIDEA,  
JONI UBEDAK ELKARRIZKETATUTA

URTARRILAREN 23AN, EGUAZTENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

**goiena**  
Zu hemen zaude.





# Izaki Gardenak taldearen kontzertua, gaztelekuan

Bihar, zapatua, 19:30ean izango da emanaldia, eta Aitor Regueiro oñatiarrak joko du aurretik; sarrerak 10 eurotan izango dira leihatilan eta aurrez erosiz gero, 8 eurotan, 'Oñati.eus' atarian, Txokolateixan eta udaltzainen bulego ondoan dagoen kutxazainean

## Aitziber Aranburuzabala OÑARI

Jon Basagurenek gidatzen duen taldea sarritan izan da Oñatin, eta, "oroitzapen politekin", ilusioz itzuliko direla dio abeslariak: "Izaki Gardenak moduan gazte-txean eta gaztelekuan izandakoak gara, eta bakarkako formatuan ere behin baino gehiagotan izan naiz, eta, egia esan, oso oroitzapen onak ditut. Iluntzean joko dugu, eta gustatzen zaigu beste ordutegi batzuetan ere jotzea; iruditzen zait hori dela bidea aukera berriak eskaintzeko".

Izaki Gardenak bere kantak plazaratzeko gogoaren ondorioz sortutako ekimena dela dio Basaguren: "Izaki Gardenak ideia bat da, eta hastapenetako kideetatik Libe Garcia de Cortazarrek -ahotsa eta teklatura- eta biok bakarrik jarraitzen dugu. Une edo lan bakoitzean, euren agendek ahalbidetzen duten neurrian, musikari eta lagun ezberdinak batu ditugu. *Dena oskol* lana grabatzeko, Danilo Foronda gitarra-jolearekin, Fede Egiluz baxu-jolearekin eta Dani Arribabalaga bateria-jolearekin osatu genuen boskotea Libe eta biok, baina Danilok ezin du zuzenekoetan gurekin jarraitu eta aurrez gurekin izandakoa den Joseba Baleztenak hartu du haren lekukoa".



Izaki Gardenak taldea. GALDER IZAGIRRE

## 'Dena oskol' eta gehiago

Lan berriarekin "oso harro eta pozik" daudela dio, eta gustura daudela izan duen harrerarekin. "Bihar, ibilbidearen errepaso edo laburpen bat egingo dugu: disko berria goitik behera joko dugu, eta beste lanetako kantuak ere tartekatuko ditugu; izan ere, konturatu gara erreperioritik kendu nahi ez ditugun kantu asko daudela. Guretzako ohikoa den baino kontzertu luzeagoa izango da; aurreko astean Gasteizen probatu genuen eta izugarri gozatu genuen".

## Aurretik, Aitor Regueiro

Izaki Gardenak taldearen jarraitzailea dela aitortzen du Oñatiko musikariak, eta horregatik urduri eta ilusio handiarekin partekatuko duela gaztelekuko oholtza: "Erreferentzia izan dira beti niretzako. 45 minutu inguruko emanaldia egingo dut eta nik sortutako kantuak dira abestuko ditudan guztiak. Akorde ez konbentzionalak dituzte, eta melodia eta oxigeno asko dituzten kantuak dira. Bakarrik izango naiz taularen gainean, gitarra eta pedala lagun ditudala".

## Haurrentzako 'Pinotxo' musikala asteburuan, Bergaran eta Oñatin

Sarrerak lau eurotan eskura daitezke leihatilan, eta 'Bergara.net' eta 'Oñati.eus' udal atarietan ere bai

## A. A BERGARA

Carlo Collodik idatzi zuen ipuin klasikoak abiapuntu hartuta, Glu Glu antzerki taldeak bertsio gaurkotua eskainiko du asteburu honetan, birritan, Debagoienan: bihar, zapatua, Bergarako


Seminarixoa, 18:00etan, eta etzi, Oñatiko Santa Ana aretoan, 17:00etan. "Hasiera batean, 3 eta 9 urte bitarteko haurrendako sortu dugun lana da, baina euren etorriko diren helduei ere keinu asko egiten dizkiegu. An-

tzerki musikala da, hitzak eta abestiak tartekatzen ditugu ikuskizunean, eta abesten ditugun doinuak oso ezagunak egingo zaizkie etortzen diren helduei", dio Ugaitz Alegria aktoreak.

Oinarrian guztiok ezagutzen dugun istorioa dela gaineratu du Alegriak: "Galder Perezek moldatu duen gidoiko mezu nagusia apur bat birplanteatuta dator; hau da, *bullying* gaia dakargu, Pinotxo bere ikaskideekiko ezberdin sentitzen dela aitzakia hartuta".

## Goiena Klubaren txokoa

### Goiena Klubeko urtarileko sariak!



#### Tableta

SPC Heaven 10.1 tableta  
Parte hartzeko sariaren izena: Tableta



#### 'Larga vida a Rip'

Rip taldearen liburu eta diskoa  
Parte hartzeko sariaren izena: Rip

#### Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

**ARRIKUTZ**

GRATIS

#### Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

[www.harremandenda.org](http://www.harremandenda.org)

Bidezko Merkataritzako produktuak

#### PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus) Whatsapp: KLUBA "sariaren izena" [barkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzearen artean egingo da zozketa.

Indarregimen (DPO) 15/1993 legearen arabera, gure webgunean zure datu pertsonalak Goiena Klubaren taldearen inbentarioan gordetzen ditugu. Datuak zure kontrolpean izan behar dira, eta zure datuak ezin dira saldu, erabiltzeko, edo beste helburu batera aldatu. Zure datuak ezin dira saldu, erabiltzeko, edo beste helburu batera aldatu. Zure datuak ezin dira saldu, erabiltzeko, edo beste helburu batera aldatu. Zure datuak ezin dira saldu, erabiltzeko, edo beste helburu batera aldatu.

#### Irabazi bi lagunendako otordua

ITURRIETA JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkari Oñatiko atala eta hartu parte!

943 25 05 05 [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)

KLUBA Jate Txerri  
[barkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

#### Irabazi bi lagunendako sarrerak

Doke Antzerki Taldeari esker

'Hamaika amaren seme (alaba)'

antzerkiaren sarrerak + autobusa ditugu.

Bilbo | Arriaga Antzerkia | Urtarrilaren 26an | 19:30ean

Parte hartzeko: urtarilaren 23ra arte

Bergarako Udalari esker

'Zoz Bole Santuan' ikuskizunaren sarrerak ditugu.

Bergara | Seminarixoa | Urtarrilaren 26an | 19:00etan

Parte hartzeko: urtarilaren 25era arte

#### PARTE HARTZEKO:

E-postaz: [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus) WhatsApp: KLUBA "doke / Zoz Bole Santuan" [barkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzearen artean egingo da zozketa.

Indarregimen (DPO) 15/1993 legearen arabera, gure webgunean zure datu pertsonalak Goiena Klubaren taldearen inbentarioan gordetzen ditugu. Datuak zure kontrolpean izan behar dira, eta zure datuak ezin dira saldu, erabiltzeko, edo beste helburu batera aldatu. Zure datuak ezin dira saldu, erabiltzeko, edo beste helburu batera aldatu. Zure datuak ezin dira saldu, erabiltzeko, edo beste helburu batera aldatu.



Puntua aldizkaria

jasotzeko,

zozketetan parte

hartzeko eta txartelaren

abantailez gozatzeko...



Egin zaitze Goiena Klubeko barkide! Urte osoa, 56 € bakarrik!  
Eta barkideen artean, astero zozketak, deskontuak...  
Deitu: 943 25 05 05 • [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)

**goienakluba**  
Euskara irabazle, denok irabazle!

ASTEA GOIENA TELEBISTAN



GOIENA

ANEGURIA MUSIKARIARI ELKARRIZKETA

*'Elkarriketap'* Egubakoitza, 21:30 eta 23:30



GOIENA

MARIA UBARRETXENA ALKATEAREKIN SOLASEAN

*'Harira'* Martitzena, 21:30

EGUBAKOITZA, 18

10:00 Hemen Debagoiena  
11:00 Ur eta lur  
11:30 Hemen Debagoiena  
12:30 Elkarriketap: Alex Gibelalde  
13:00 Kantari Gasteiz 4  
13:30 Hemen Debagoiena  
14:30 Albisteak  
14:45 Elkarriketap: Onintza Enbeita  
15:15 Hemen Debagoiena  
16:15 Albisteak  
16:30 Onein  
17:00 Albisteak  
17:15 Elkarriketap: Alex Gibelalde  
17:45 Albisteak  
18:00 Hemen Debagoiena  
19:00 Elkarriketap: Onintza Enbeita  
19:30 Erreportajea: Ereindakoagatik esker onez  
20:00 Hemen Debagoiena  
21:00 Harmailatik  
21:30 Elkarriketap: Aneguria  
22:00 Hemen Debagoiena  
23:00 Harira: Iñaki Kerexeta

ZAPATUA, 19

09:00 123 Hemen da Miru  
09:30 Txanbaxariak 16  
10:00 Kantari Gasteiz 5  
10:30 123 Hemen da Miru  
11:00 Hemen Debagoiena  
12:00 Harira: Iñaki Kerexeta  
12:30 Elkarriketap: Alex Gibelalde  
13:00 Hemen Debagoiena  
13:30 Elkarriketap: Aneguria  
14:00 Ur eta lur  
14:30 Asteko errepasoa  
15:00 Hemen Debagoiena  
16:00 Erreportajea: Ereindakoagatik esker onez  
16:30 Asteko errepasoa  
17:00 Kantari Gasteiz 5  
17:30 Txanbaxariak 16  
18:00 Elkarriketap: Aneguria  
18:30 Hemen Debagoiena  
19:00 Txanbaxariak 16  
19:30 123 Hemen da Miru  
20:00 Kantari Gasteiz 5  
20:30 Harmailatik  
21:00 Elkarriketap: Alex Gibelalde

DOMEKA, 20

09:00 Txanbaxariak 1609:30 Kantari Gasteiz 5  
10:00 123 Hemen da Miru  
10:30 Txanbaxariak 16  
11:00 Kantari Gasteiz 5  
11:30 123 Hemen da Miru  
12:00 Hemen Debagoiena  
13:00 Ur eta lur  
13:30 Harira: Iñaki Kerexeta  
14:00 Elkarriketap: Aneguria  
14:30 Erreportajea: Ereindakoagatik esker onez  
15:00 Hemen Debagoiena  
16:00 Asteko errepasoa  
16:30 Elkarriketap: Alex Gibelalde  
17:00 Harira: Iñaki Kerexeta  
17:30 Hemen Debagoiena  
18:30 Asteko errepasoa  
19:00 Erreportajea: Ereindakoagatik esker onez  
19:30 Harira: Iñaki Kerexeta  
20:00 Elkarriketap: Alex Gibelalde  
20:30 Elkarriketap: Aneguria  
21:00 Hemen Debagoiena

ASTE BURUAN

'TXANTXARIAK' ETA KANTARI

*'Umeendako saioak'*

Zapatuan eta domekan

ASTELEHENA, 21

MONDRA-BERGARA, FUTBOL DERBIA

*'Harmailatik'*

21:30/23:30



GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA: *goiena.eus/telebista* Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

EGUNERO



GOIENA

ERREPORTAJEAK ETA ELKARRIZKETA

*'Hemen Debagoiena'*

18:00/20:00/22:00

EGUZTENA, 22

ANE LABAKARI ELKARRIZKETA

*'Elkarriketap'*

21:30/23:30

URTEURRENA



Francisco Javier Mendez Luque

2018ko urtarrilaren 4an hil zen, 44 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, urtarrilaren 20an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, familiaren izenean. Bergaran, 2019ko urtarrilaren 18an.

URTEURRENA



Claudio Sierra Sanchez

2018ko urtarrilaren 24an hil zen, 88 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, urtarrilaren 20an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2019ko urtarrilaren 18an.

OROIGARRIA



Anton Errasti Ibabe

(Ikastolako gurasoa)

2019ko urtarrilaren 11n hil zen, 65 urte zituela.

Har beza familiak gure atsekabe-mina.



Arizmendi Ikastolako langile, guraso eta kolaboratzaileak. Leintz bailaran, 2019ko urtarrilaren 18an.

OROIGARRIA



Anton Errasti Ibabe

2019ko urtarrilaren 11n hil zen, 65 urte zituela.

Beti umoretsu eta laguntzeko gertu horrela beti izango zaitugu gogoan.

Zure kuadrillak. Aramaion, 2019ko urtarrilaren 18an.

ESKER ONA



Mari Carmen Garay Elorza

Ignacio Maizteguiren alarguna

2019ko urtarrilaren 10ean hil zen, 86 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Oñatin, 2019ko urtarrilaren 18an.

ESKER ONA



Anton Errasti Ibabe

2019ko urtarrilaren 11n hil zen, 65 urte zituela.

Eskerrak eman nahi dizkizuegu, bihotz-bihotzez, horrenbeste eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.

—  
*Izan zarenagatik eta erakutsi diguzunagatik, ez zaitugu inoiz ahaztuko. Zure irriparra betiko egongo da gure bihotzean.*

Etxeokak. Aramaion, 2019ko urtarrilaren 18an.

HILDAKOAK

Jose M. Ortiz de Mendibil Landa.

Arrasaten, abenduaren 31n. 67 urte.

Maximino Alcalde Mayor.

Arrasaten, urtarrilaren 1ean. 85 urte.

Jose Mari Arando Zangitu.

Bergaran, urtarrilaren 1ean. 84 urte.

Jabier Garciaonandia Mujika.

Bergaran, urtarrilaren 2an. 74 urte.

Josefa Alcocer Polo.

Arrasaten, urtarrilaren 3an. 85 urte.

Nicolas Angel Gonzalez Martin.

Arrasaten, urtarrilaren 3an. 70 urte.

Isabel Anguas Romero.

Arrasaten, urtarrilaren 3an.

Maximo Alberdi Basterrika.

Bergaran, urtarrilaren 3an. 68 urte.

Maria Angeles Altube Zabarte.

Oñatin, urtarrilaren 3an. 91 urte.

Iñaki Arrieta Beistegui.

Bergaran, urtarrilaren 4an. 67 urte.

Ramon Arregi Agirre.

Arrasaten, urtarrilaren 4an. 83 urte.

Gloriosa Pascual Lopez.

Oñatin, urtarrilaren 4an. 69 urte.

Felisa Ezkurra Murua.

Arrasaten, urtarrilaren 5ean. 97 urte.

Bizente Urtzelai Altube.

Oñatin, urtarrilaren 5ean. 81 urte.

Maria Luisa Gallastegui Balzategui.

Bergaran, urtarrilaren 6an. 90 urte.

Castora Urionaguena Arriaga.

Arrasaten, urtarrilaren 6an. 100 urte.

Maria Rosa Olalde Arrieta.

Bergaran, urtarrilaren 7an. 74 urte.

Martina Santamaria Bergaretxe.

Bergaran, urtarrilaren 7an. 94 urte.



URTEURRENA

Maria Umerez Aguirre



2018ko urtarilaren 23an hil zen.

Urteurreneko meza zapatuan izango da, urtarilaren 19an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Oñatin, 2019ko urtarilaren 18an.

URTEURRENA

Felix Arregi Zendoia

2018ko urtarilaren 16an hil zen, 92 urte zituela.

Urteurreneko meza zapatuan izango da, urtarilak 19, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Oñatin, 2019ko urtarilaren 18an.

URTEURRENA

Jokin Agirre Arrizabalaga



2018ko urtarilaren 16an hil zen, 52 urte zituela.

Samindurik dugu bihotza, motel bizitzaren garra.  
Faltan sumatzen dugu zuk emandako indarra.  
Maite zaitugu.

Urteurreneko meza domekan izango da, urtarilaren 20an, 12:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, senideen izenean. Arrasaten, 2019ko urtarilaren 18an.

OROIGARRIA

Candida Larrañaga Bergara

Carlos Elorzaren alarguna

2019ko urtarilaren 12an hil zen, 87 urte zituela.

Izan zarenagatik eta erakutsi eta lagundu diguzunagatik ez zaitugu inoiz ahaztuko.

Koinatu, koinata eta ilobak. Bergaran, 2019ko urtarilaren 18an

OROIGARRIA

Juan Berezibar Garro

2019ko urtarilaren 13an hil zen, 84 urte zituela.

Eskerrik asko, Juan. Beti gurekin.

Bere lagun zaintzaileak: Zoraida, Yolanda eta Manolo. Arrasaten (Garagartza), 2019ko urtarilaren 18an.

OROIGARRIA

Mila Madariaga Irastorza



2019ko urtarilaren 9an hil zen, 68 urte zituela.

Urte berriarekin lankide ohia joan zaigu.  
Agur bero-bero bat, Mila, Eskolakide guztion partetik.

Plaentxi HLHI. Soraluzen, 2019ko urtarilaren 18an.

ESKER ONA

Candida Larrañaga Bergara

Carlos Elorzaren alarguna

2019ko urtarilaren 12an hil zen, 87 urte zituela.

Seme-alabak: Marije eta Alfredo, Agurtzane eta Angel Mari, Javi eta Karnele, Ane eta Javi.  
Bilobak: Ainhoa, Aitor, Josu, Olatz, Joseba, Andoni, Idoia eta Itsaso.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

Bergaran, 2019ko urtarilaren 18an.

ESKER ONA

Juan Berezibar Garro



2019ko urtarilaren 13an hil zen, 84 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.  
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten (Garagartza), 2019ko urtarilaren 18an.

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu



Jakin ezazue nahiz eta heriotz aseguruia izan, zuek nahi duzuen hileta-zerbitzua aukeratzeko eskubide osoa duzuela.

Lasaitasuna, maitasuna eta laguntza dut beti zuentzako.

Maribi • Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA

**Amelia Arce Lopez.** Arrasaten, urtarilaren 9an. 78 urte.

**Mila Madariaga Irastorza.** Bergaran, urtarilaren 9an. 68 urte.

**Mari Carmen Barcina Martinez.** Arrasaten, urtarilaren 10ean. 83 urte.

**Mari Carmen Garay Elorza.** Oñatin, urtarilaren 10ean. 86 urte.

**Isabel Olalde Biain.** Oñatin, urtarilaren 10ean. 98 urte.

**Maria Luisa Lamariano Altzelai.** Antzuolan, urtarilaren 11n. 70 urte.

**Anton Errasti Ibabe.** Aramaion, urtarilaren 11n. 65 urte.

**Margarita Bilbao Sanchez.** Arrasaten, urtarilaren 11n. 89 urte.

**Candida Larrañaga Bergara.** Bergaran, urtarilaren 12an. 87 urte.

**Teresa De la Torre Vieco.** Arrasaten, urtarilaren 12an. 78 urte.

**Felisa Martin Bartolome.** Arrasaten, urtarilaren 13an. 84 urte.

**Jhimy Caraballo Colque.** Arrasaten, urtarilaren 13an. 33 urte.

**Juan Berezibar Garro.** Arrasaten, urtarilaren 13an. 84 urte.

**Juana Ropero Carmona.** Arrasaten, urtarilaren 13an. 90 urte.

**Jose Luis Aranzabal Gurutzeta.** Arrasaten, urtarilaren 14an. 89 urte.

**Angelita Rodriguez Garcia.** Bergaran, urtarilaren 14an. 89 urte.

**Emilio Fernandez de Fuentes.** Arrasaten, urtarilaren 15ean. 87 urte.

**Roman Zabaleta Zulueta.** Arrasaten, urtarilaren 16an. 88 urte.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

| ARRASATE EGUNEZ       |                                                    |
|-----------------------|----------------------------------------------------|
| Egubakoitza, 18       | M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99       |
| Zapatua, 19           | FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26              |
| Domeka, 20            | IRIZAR: Erguin 11 / 943 79 12 39                   |
| Astelehena, 21        | AMEZUA: Santa Marina 32 / 943 79 09 74             |
| Martitzena, 22        | ESPAÑOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65 |
| Eguaztena, 23         | RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09          |
| Eguena, 24            | ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30    |
| BERGARA EGUNEZ        |                                                    |
| Egubakoitza, 18       | URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74     |
| Zapatua, 19           | ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87              |
| Domeka, 20            | ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87              |
| Astelehena, 21        | OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05             |
| Martitzena, 22        | ESTELLA: Mabiategi 5 / 943 76 19 63                |
